Gaia: Hemen duzue Paya sarjentua, ez dakit zenbat domina eta kondekorazio dituen sarjentua. Gaur egunean edozer bihurtzen duzu delitu, eta atzekoek ere egin dute delituren bat. Zuek badaukazue defenditzeko aukera. Hemen behintzat bai.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

X. Paya: Francon garaian Aitor genduke
alper ta maleantea.
Ataungo neska gazte bateri
deitu zion paketea
ta Bilgunetik salatu dute
ahaztu gabe esatea.
Nola ote da posible Aitor (bis)
hain pakete izatea?

A. Mendiluze: Behin ta ehun aldiz damutu behar zait
erdi deskuidoz esana
baina delitu bilakatzea
ere ez degu ba plana!
Ni paketea omen naizela
hala jartzeko afana
izatekotan paketea da (bis)
zuri hartu dizudana.

X. Paya: Hurrengoa kontrolean ikusi
ta gelditu nuen laster
A las 8 en el Bule idatzi
panfleto *izquierdista* eder.
Leku publikoan ta erretzen
auskalo igual ez da Chester!
Honekin zailago da aurkitzen (bis)
delitu ez dan zeozer!

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

X. Silveira: Amurizak arrazoi
zeukan gaur berriro
ta hura errepikatu
baino ez dut egingo:
sarjentu jaun honekin
ez daukagu giro!
Ez al ditu merezi
buruan bi tiro?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

X. Paya: Eta ondokoa Andoni Egaña
plazetan dute gatibu
hara ta hona, hona ta hara
saioak bostehun ta hiru.
Delitua du desagertzea
Zarautz osoa testigu.
Bere emaztea dela dion batek (bis)
busca y capturan jarri du.

A. Egaña: Ze gogorra den Euskal Herrian
hola ibili beharra:
egun argitan arrastaka maiz
ta gauetan ttirri-ttarra.
Nahiz neuk aitortu izan neikela
erdipurdiko senarra
hori delitu zibila degu (bis)
ez delitu militarra.

X. Paya: Eta hurrengoaz zer esango dut?
dena dago esateko!
Dirua baino ez zaio falta
filantropo izateko.
Rouco Varelak agindu digu
hori ziegara sartzeko.
Ea han ere esaten duen (bis)
irriz *Apaizac obeto!*[1]

J. Maia: Ba bai, *Apaizac obeto* diot
eta hona irriparrak
ez pentsa gero apaiz kontuak
beti izan dira txarrak!
Rouco Varela ta obispo hau
berdin parrak ta inparrak
beti batera egon zarete (bis)
apaizak ta militarrak.

X. Paya: Amets hendaiarra dugu berez
ja ja! *Un huevo!* Tralara...
Dokumentu x bat aurkitu dut
ta informazioa hara:
frantses azenturik ez du eta
realzale den gisara
Jose Luis Sanchez deitzen da eta (bis)
Extremadurakoa da.

A. Arzallus: Neri Jose Luis Sanchez deitu dit
tipo hau ez da normala!
Lehen bi tiro joagatikan
bizirik dago aibala!
Ba nik beste bi joko dizkiot
ez baita horren apala
ta hola igual ulertuko du (bis)
huevoak bi dauzkadala.

(1) *Apaizac obeto* izeneko espedizioan parte hartu zuen Jon Maiak.

X. Paya: Ta ondokoa zeinen jatorra
ia ematen du santua!
Baina halakoa ez da izaten
emakumeen kontua.
Amets Arzallusek salatu du
entzun bere delitua:
Maialenek lapurtu omen dio (bis)
bere frantses azentua.

M. Lujanbio: Medalla exkax bat ere ez dauka ta
hau bera bai paketea!
Komodo dago papel horretan
hau da sarjento merkea!
Pentsa zazute ze muturretan
dagon español jentea:
lehen delitu zan hitz egitea (bis)
oain ja azentua izatea.

X. Paya: Eta Jon Martin rimatzailea
honekin hau da trantzea!
Zeinen zaila den esan nahi duna
behar den gisan ulertzea!
Baina hankaz gora jartzen dunez
Martuteneko espetxea
alkaide jaunak eskatu digu (bis)
Indiara bidaltzea.

Neurria: Dezima
Doinua: *Norbait bilatzen duenak*

J. Martin: Zu zaitugu Xapi Paya
beraz erdi payadore
ulertuko duzu hobe
nere *innovatu* nahia.
Bada itzultzeko garaia
Indiatikan harrika
nagolako etorrita
jarri herriai begira
mugak hautsi behar dira
bertsoenetik hasita.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

X. Paya: Doinua ere aldatzen didate
eske! eske! eske! eske!
Bueno azkena jada hor dago
bere delituan eske.
Lorepotoak kontra dauzkazu
ta zergatik ezetz uste?
Mujer florero omen zara ta (bis)
denuntziatu egin zaituzte.[2]

E. Lagoma: *Mujer florero* izan ninteke
egon ninteke hobeto
eskubidea daukat hala're
defentsa bat gauzatzeko.
Egia dela badakit baina
galdera daukat konpleto:
pailazo hutsa izan behar al da
sarjentua izateko?

J. Maia ♫

Gaia: Goizeko hamaikak dira. Oraintxe jo du txirrinak, eta patiora atera behar duzu. Baina gaur erabaki duzu ez duzula pilotan egingo, ez zarela lagunekin paseatzen ibiliko, ez zarela musean jardungo. Gaur patio erdian zaude eta bertsotan egitea erabaki duzu.

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz
Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

(2) Aurreko bertsoaldi batean, Maialen Lujanbiorekin batera, "Gaur, Oiartzungo bertso saioan, lehen aldiz bi emakume kantari ariko direla irakurri dut Interneten " gai honi buruz kantatu zuen, eta *Mujer flororen* kontua aipatu zuen Erikak berak.

Txirrina jo du berriro
eta altxa gera di-da!
Monotoniak dakarren
eguneroko harira.
Bagoaz patiorantza
presoen lerro segida
burua nola altxatu
bista daukagun tokira?
Baina gaur erabaki det
banoa patio erdira
ez dut ezertxo egingo
erabakia hori da
ta bertsotan hasiko naiz
libre doinu ta neurrira
leku denetan berdina
den zeruari begira. (bis)

Automata baten eran
makurtzen zaigu ahala
gero eta makurrago
denbora pasatu ahala.
Gogortua dut bihotza
gogorragoa azala
desagertu da behin sartu
zuten nerabe makala.
Orain kantuan hasi naiz
txori bat banintz bezala
nahiz harlauzen oholtzara
heltzen den hormen itzala.
Gora begira beste bat
botako det berehala
ta pasatu den txoriak
etxera eraman dezala! (bis)

Ezagutzen dut tortura
kartzela ta kartzelondo.
Ezagutzen dut bai mina
nahi ez nukeen bezain ondo.
Jo dut nere barreneko
bihotzaren pe ta hondo
baina hala’re ni ez naiz
berriz isilik egongo.
Berdin du Zisjordania
Arrasate zein Durango
jende zapaldua gera
baina ez dugu etengo!
Kantatu nahi dugu-eta
ez dugu amore emango!
Inoiz etsiko bagenu
ez zen kanturik izango. (bis)



Beterriko sariketa
(Andoain, 2008-02-15)

Argazkilaria: A. Agirre

ZEANURI (2008-01-19)

Bertsolariak: U. Iturriaga, E. Intxaurraga, A. Egaña, A. Arzallus, J. Maia eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Jabi Olibares *Orue*.

Zeanuriko Udalak eta Zeanuri Bertsotan taldeak antolatzen duten jaialdia, aurten laugarrena. Arratsaldeko seietan izan zen, berrehunen bat lagun entzuten zirela.

U. Iturriaga- E. Intxaurraga-A. Egaña- A. Arzallus-J. Maia-M. Lujanbio.

Gaia: 18/98 eta gehiago. Hemen inguruan ere bada auzi horren ondorioak jasaten ari denik.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

U. Iturriaga: Ai zenbat urte daroakuzen
audientzia baten mende!
Euskaldunentzat egiten dira
froga, epaiketa ta lege.
Nahiz ta hamendik guri iruditu
holako barbaridade
ez da bakarra izan kasua
eta ezta azkena be.

E. Intxaurraga: Hainbeste jente borrokan dabil
Euskal Herriaren alde
ta horregatik ez dira euren
askatasunaren jabe.
Hainbat pertsona ipini dabez
epaile zorrotzen pare...
Laster arnasa hartzea ere
galazi egingo dabe!

A. Egaña: Mezu horixe igorri dute
zuzenki edo zeharka
lehenago estu zegon kontuai
goitik behera berriz kalka.
Ideiak eta sentimentuak
kondenapean. Ze marka!
Hori zigortzen hasi ezkero
honek amairik ez dauka.

A. Arzallus: Makroak dira sumarioa ta
injustizi españarra
ta makroa da auzitegiek
hartua duten indarra.
Makro ez al da hitz puztu hustu
eskasa eta zatarra?
Ta horrek berak erakusten du
marko berrian beharra.

J. Maia: Zentzu gabeko makro epaiketak
edo tortura krudela.
Txarrena dugu edozertara
ohitu egiten garela
eta jendeak jarraitzen dula
ezer ez balitz bezela
pentsatu gabe hurrena igual
norbera izango dela.

M. Lujanbio: Makro epaitegi ulertezin bat
burutzen hainbeste urte.
Gero alderdien ilegaltzea
ideia batzuen truke.
Espaini aldeko araudiak du
oinarria oker nik uste:
injustizia juxtu ez baina
legezko bihurtu dute.



Iparraldeko bersu eskolen eguna.
(Itsasu, 2008-02-01)

Argazkilaria: F. Larrukert

HENDAIA (2008-01-25)

Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña, M. Lujanbio, X. Murua eta E. Zabaleta.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Duela bizpahiru urte hasi ziren jaialdi hau antolatzen Bixintxo jaien karietara. Bertso Eskolak antolatzen du, Udalaren laguntzarekin. Ostiral arratsean izan zen, eta berrogeita hamar lagun inguru elkartu ziren Sokoburu aretoan.

A. Arzallus-S. Colina-A. Egaña-M. Lujanbio-X. Murua-E. Zabaleta

Gaia: Hendaia beti egon da mugan; ez dakit hitz egokia den, baina Lapurdi eta Gipuzkoaren mugan egon den herri bat izan da, eta da. Lehen bertsoan kontatu behar duzue zein kasutan, zein egoeratan jarri behar diren mugak. Eta bigarren bertsoan kantatu behar duzue zein kasutan hautsi behar diren mugak.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zazpi ahizparen gai den oihala*

S. Colina: Inoiz parrandan baldin bazabiltz
haize hego ta ilargi
edan baduzu patxaran edo
garagardoa ugari
mingainak eta eskuak hasten
zaizkizunean dantzari
mugak ipini behar zaizkio
norbere ausardiari.

A. Egaña: Gaueko hamarrak etxean baina
joan ninteke lantokira.
Ene txakolin basokada horrek
ze txinparta ze dirdira!
Hogeigarrengo zigarreta hori
ai bi ezpainen erdira!
Adikzioen kasu guztitan
mugak jarri behar dira.

A. Arzallus: Hendaiai buruz zerbait badakit
Hendaian bainintzen jaio.
Frantsesa zen lehen nagusi orain
kasik gaztelera gehio.
Euskaraz bi hitz egiten dira
hemen “Kaixo!” eta “ Aio!”.
Gure hizkuntzaren galera honi
muga jarri behar zaio.

E. Zabaleta: Noiz behar dugu muga bat jarri?
Hara betiko galdera!
Mugen azpian bizi gara gu
hortik kontuak atera!
Nik neuk muga bat aldatu nahi dut
eta nire arabera
muga aldatu behar genuke
Hendaiatik Bokalera.

X. Murua: Haurra edota ikaslea da
bizkorra bezain abila
beti pixka bat emanagatik
dabil gehiagoren bila.
Muga gehiegi ote daukaten
behintzat badaukate pila.
Eman zaiegun baina hala’re
zabala izan dadila.

M. Lujanbio: Muga klaseak egon litezke
noski pertsonak hainbeste
nahiz ta normalki muga txartzat jo
ta ari libertate eske.
Norbere buruai jarri muga
ez da hain traba hain neke
mugarri ere izan leike ta
helmuga izan liteke.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hasiko al naiz hasiko al naiz*

S. Colina: Bertsolaria beti izan da
eszenarioko nomada
gustora dabil herririk herri
eta bailaraz bailara.
Menpekotasun muga hausten dut
suposatu arren paga
inork erosten zaituenean
salduta gelditzen zara.

A. Egaña: Gazterik zahartzen zaigun pertsona
zer nolako desastrea!
Gazte zahartuta gero umetu
egin liteke bestea.
Berrogeita sei urte dauzkat nik
ta sentitzen naiz gaztea.
Adin kontutan komeni da bai
muga guztiak haustea.

A. Arzallus: Baina Andoni guztia ez da
mugarik gabeko neurri:
maiz beldurra da muga haundi bat
ni begira nago horri.
Muga hori hautsi egin behar da
nahiz gero gelditu larri
baina gehiegi litzatekeenez
arrasto txiki bat jarri.

E. Zabaleta: Usu plazatan ibilia naiz
Oiartzundik Hernanira
ta ehundaka begi bikote
bertsolariei begira.
Egun Hendaian saioa da-ta
erdia bete da tira!
Baietz gela hau beterik egon
mugak hautsiko balira!

X. Murua: Izan adina edo hemengoa
ari izan dira aipatzen
baina Ametsek zehaztasuna
hala ere zuen eskatzen
eta horretxen harira ere
aritu bainaiz pentsatzen
onena dudan uztea dugu
horrek ez baitu mugatzen.

M. Lujanbio: Gure buruak mugatzen lehendik
ere ohituta gaude gu.
Kanpotik ere jartzen dituzte
berdin udara ta negu.
Hitz delikatu batzuek esan
eta zigorra eredu...
Hitzek ez dute mugarik behar
baina jartzen dizkiegu.

M. Lujanbio-A. Egaña

Gaia: Zuei batere gustatzen ez zaizuen gai bat jarriko dizuet, esan orduko "Puff!" egingo duzuen gai horietako bat. Hurrengo urtean txapelketa dator, baina hori aipatu gabe egitea nahi dut bertsotan.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Adixkidia Andoaindikan*

A. Egaña: Bi urte t'erdiz izandu degu
nahiko atseden ta bake.
Orain berriro hasi beharra
omen daukagu jo ta ke.
Nere galdera zuretzat bada
Maialen aski atake:
"eingo al degu?" galdetu ezkero
zer esango zenidake?

M. Lujanbio: Orain artean tenpo lasaian
asteburuero eutsi.
Bat baino gehio ja ari dira
eskuk igurtzi ta igurtzi.
"Eingo al degun?" nei galdetzeko
ausardia erakutsi…
Baietz esango nizuke baina
gero ni ez bakarrik utzi!

A. Egaña: Etorkizunak badu berekin
brilloa edo distira.
Geroan ere jardun nahi nuke
orain arteko neurrira.
Bion arteko kontu honetan
zalantzak uxatu dira:
itsu-itsuan joango naiz ni
zu joaten zeran tokira.

M. Lujanbio: Berrogei urte pasa zituen
baina ausart dago berez.
Erretiratu behar zuela
zebilen zenbait esames.
Ni joaten naizen tokira segi
bai segidazu mesedez!
Ia-ia-ia azkeneraino
baina azkeneraino ez.

A. Egaña: Zure ondoan hartzen banauzu
Maialen bejondeizula!
Zer gerta leiken hurrengo urtean
aurtendik ezin kalkula.
Galderatxo bat egin nahi dizut
gaizto sexual mardula:
Barakaldoko hotel batean
lo ein al dezu sekula?

M. Lujanbio: Abenduaren hamabosta da
oroitu naiz bai askotan.
Lorik ez nuen batere egin
hoteleko ohi txatxu hortan.
Ez lorik egin ta hurrengo egunez
ia ezin egin bertsotan.
Beste zeozer egin nahi nuke
lorik ez egitekotan.

A. Egaña: Seguru aski erantzunokin
gai-jartzailea ase da.
Erantzun dugu hain xuxen ere
galdegin digun klasera.
Eta hendaiar entzule denok
hau bizitzeko aukera...
Karrera baten amaiera zen
maitasun baten hasera.

M. Lujanbio: Pentsatzen nuen nik kantatzea
nola joaten den denbora
eta ze azkar pasatzen geran
lau urtetik urtekora.
Baina Andoni galdezka hasi da
nahiz gainditu dun aproba.
Zure zeharka hau baldin bada
zuzena ze izango da?



Bertso eguna.
(Donostia, 2008-01-26)

Argazkilaria: A. Elosegi

DONOSTIA (2008-01-26)

Bertsolariak: J. Barberena, I. Zubeldia, A. Mendiluze, A. Sarriegi, A. Estiballes, J. Martin, I. Elortza, S. Colina, F. Paia, A.M. Peñagarikano, Loidisaletxe, On. Enbeita, I. Ibarra, O. Perea, A. Egaña, U. Alberdi, J.M. Irazu eta B. Gaztelumendi.

Gai-emaileak: Inaxio Usarralde, Josu Goikoetxea, Naroa Sasieta, Alaitz Rekondo, Zuriñe Iarritu eta Unai Elizasu.

Urtarrilaren azken aldera urtero ospatzen da Bertso Eguna Donostian. Goizean, Donostiako Alde Zaharrean bertsolari gazteak ibili ziren trikitilariekin, eta bertso kalejira egin zuten. Arratsaldean, berriz, erabat bete zen Kursaal jauregia, eta *Bertso Bertsioa* lelo harturik, saio ikusgarria eskaini zuten, hainbat berezitasun izan zituena: distortsionaturiko ahots batek bertsolariak izenez deitu beharrean zenbakiz deitzen zituen, eta gai-emaileak letraz; bertsolariak mikrofonora hurbildu arte jendeak ez zituen ikusten, haien itzalak bakarrik ikusten ziren barra kode erraldoiaren atzean. Logela Multimedia musika taldeak bi kantu eskaini zituen, horietako bat kopiaren eta originalaren arteko auzia islatzen zuena.

A. Sarriegi

Gaia: Datu batzuk emango dizkizut, Aitor. KPIak 4,2 egin du gora 2007an; Euriborra 4,515ean dago; burtsa 13.000 puntu inguruan dago; dolar bat eskuratzeko 0,7 euro behar dira; Espainiako Estatuak % 3ko superabita izan du. Zenbakiak, zenbakiak, zenbakiak...

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Zure eskaerak egia esan*

Zuk batzuk esan ta beste batzuk
etortzen zaizkit burura:
bian dagonak asko baino lehen
igo nahi luke hirura
ta bostekoak ez du jeitsi nahi
laua dagon ingurura.
Egia da bai gure mundu hau
saltsa haundi bihurtu da
ta zenbakiek jartzen diote
gure bizitzari muga. (bis)

Zenbakiekin kontatu arren
urteak eta kondenak
nola kontatu ote daitezke
injustizi ta krimenak?
Pertsona baten ametsak edo
barreneko sentipenak?
Loa kendu ohi diguten gauzak
gure grinak gure penak?
Badira gauzak zenbakiekin
kontatu ezin direnak. (bis)

Baina halere utzi dezadan
bestela nere kalte da.
Kondenatuta dago aro hau
digitala izatera.
Matematika irakasle naiz
ta ausartzen naiz esatera
Informatika ikasi nuen
han daukat nere papera:
ia guztia laburbiltzen da
zerora eta batera. (bis)

S. Colina

Gaia: Kopiak, kopiak eta kopiak. Bertze sumario bat.[3]

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz
Doinua*: Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Epaileen toga beltza
ta fiskalaren kapela
hemen justiziak ez du
deus kantatzen *a capella.*
Badaki bere atzean
Gobernu bat dagoela
dena babesten diona
datorrena datorrela.
Frogako laboratorio
Intxaurrondoko kuartela
ta euskaldunarentzako
kartzela beti kartzela.
Espero dut egun baten
konprenituko dutela
kondenen fotokopiez
kokoteraino gaudela.

PPren Gobernuakin
hartu zuten abiada
ta PSOEk eman dio
berebiziko bultzada.
Geroztik hortxe dabiltza
kopiatik kopiara
errudun zein errugabe
euskaldunak kartzelara.
Jadanik pasa zaizkigu
bost edo sei hamarkada
eta ezin da arindu
euren kontzientziko karga.
Auzitegiak aparte
behar genituzke laga.
Herri honen justizia
hemen erabaki behar da.

(3) Fotokopiagailu bat ekarri zuten oholtzara, eta martxan egon zen Sustraik kantatzen bukatu zuen arte.

Madrilen nagusi dira
eskusak ta aitzakiak.
Honaino eraman gaitu
juezaren erabakiak.
Gu ez izan arren jende
beldurti ta kakatiak
beraientzat soilik gara
terroristak, basatiak.
Baina bidea egiten
laguntzen du utopiak
geuk ebatzi behar ditugu
momentuak ta tokiak.
Izango dira eskasak,
ederrak zein egokiak
geure ametsak ditugu
ez beste inoren kopiak.



Santa Eskea.
(Zumaia, 2008-02-04)

Argazkilaria: G. Zabaleta

MUTILOA (2008-02-01)

Bertsolariak: S. Lizaso, I. Murua, A. Egaña eta A.M. Peñagarikano.

Gai-emailea: U. Elizasu.

Mujika jatetxean urtero egiten den bertso-afaria. Ehun afaltiar baino gehiago elkartu ziren, eta pare bat orduko saioa egin zuten bertsolariek. Hasieran eta amaieran librean kantatu zuten.

A.M. Peñagarikano-A.Egaña-I.Murua-S.Lizaso ♫

Gaia: Ametsei buruz kantatzea nahi dut, zuek dituzuen ametsez.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nere gogoa hegan dijoa*

A.M. Peñagarikano: Oain bezexale txikitan nintzen
igarra eta argala
eta buruan nuen amets bat
eta amets mundiala.
Esaten nuen bertsolaria
noizbait izango nintzala
ta pentsatzen det neurri batean
ametsa bete dedala.

A. Egaña: Neroni ere tokatu izan zait
gaztetxotan amestea.
Peñak bide bat hartu du eta
ez det hartuko bestea.
Neronek ere amestu nun bai
noizbait plazatan hastea
ta orain berriz zera amesten det:
bere garaian uztea.

I. Murua: Ni gutxi nabil erdi utzita
beste gehiagon antzea
ta kostatzen zait batzu-batzutan
mikrofonoa hartzea
baina errexa zuen aurrean
bertso giroan sartzea.
Gaur hemen amets bakarra daukat:
zuei ondo kantatzea.

S. Lizaso: Ametsa lana izan behar du
bizitzai eragitea
nahiz ez dan errez nolako ametsa
egin leiken jakitea.
Nik aitortzen det: barrua daukat
beti ametsez betea
nik amesten dut lehengoak bete
ta berriak egitea.

A.M. Peñagarikano: Gazte denboran beti ametsetan
kurioso-kurioso.
Hogei urteetan amesten nuen
ta gainera gozo-gozo
amesten nuen “Egun batean
ni izango naiz guraso”
eta ametsa bete egin det
nahiz berandu izan oso.

A. Egaña: Hori da hori sentimentua!
Hori da hori bihotza!
Nik dragoiekin amesten det maiz
esateko ez naiz lotsa.
Gero dragoia bilakatzen da
kolpetikan neska motza
ta beti orduntxe iristen zaigu
despertadorean hotsa.

I. Murua: Eta lehenoko neska motz harek
behin zuen tripa itzela.
Seme bat eta gero alaba bat
munduratu zitun bela.
Hogei urtera bat iristear
bestea're badatorrela.
Nik amesten det ni naizen bezain
zoriontsu ditezela!

S. Lizaso: Zer polita den sentitze hori
"Nuen ametsa bete da"
horrek baitakar berriak ere
egin ditzadan aukera.
Taldetik norbait ez egotea
nola dan denon kaltera
nik amesten dut denok biltzea
hemendik urtebetera.

A.M. Peñagarikano-A.Egaña-I.Murua-S.Lizaso ♫

Gaia: Barkatu, baina ez! Bertsolari izatea, ondo kantatzea, hemendik urtebetera denok elkartzea, dragoia... Ez, horiek ez dira nik pentsatzen nituen ametsak. Orain, esan egiatan zein diren zuen ametsak.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso: Barkatu Unai esan dezunaz
oso konforme ez nago.
Hemen bakoitzak geure ametsak
bota ditugu lehenago.
Guk uste gendun ametsak konta
eta horrekin akabo!
Lehengoak bete berriak egin
zer behar dezu gehiago? (bis)

I. Murua: Bertso kontua benetan nion
hasi nintzalako garaiz.
Seme-alabena ere egia
txantxarik ez holako gaiz!
Sermoia egiten ez naiz aritu
ez naiz obispo ta apaiz.
Zuk nahi dezuna pentsa ezazu
ni benetan aritu naiz. (bis)

A. Egaña: Itzal bat nere atzetik bila
nik hanka pare motela...
Kantzontzilotan den-denak bistan
begi asko nituela...
Ureta salto igerin gaixki
hemen gehienak bezela...
Baina *como hay dios* dragoiarena
ere egi hutsa zela! (bis)

A.M. Peñagarikano: Nere denboran ametsak asko
ta ugari nago egina.
Kirolzalea beti izan naiz
kirolzalea jakina.
Amesten nuen Real segundan
hori zen amets ta grina
ta pozik nago igaz bete zan
nere ametsik haundina. (bis)

S. Lizaso: Nere ametsa bertsoa dala
gaur ere ez dut gordeko.
Hemengo afaia martxan jarri zen
hoita hamar lagun tarteko.
Gaurkoan ehun bat edo bagera
jangela dago konpleto
ta amets gutxi betetzen dira
eginda baino hobeto. (bis)

I. Murua: Goizero pozik noa lanera
daukat aitortu beharra.
Hori dala-ta ikasleeri
benetan nere eskarra.
Nahiz eta haiek esaten duten
naizela plasta samarra
goizero sortu nahiko nieke
zorionan irriparra. (bis)

A. Egaña: Ba nei askotan tente jarri zait
ta aitortzen det ondradu.
Hala’re ez da nere errua
sukoszientearen kargu...
Berrogei urtez izan zun maila
Errealak iaz galdu...
Amets haundina hori duenak
problema sexual bat du! (bis)

A.M. Peñagarikano: Sebastian ta Egaña biak
beti bertsotan ta tente.
Konpetentzia zuek zaituztet
ta beti hemen zaudete.
Amesten nuen istripu baten
bik hiltzea derrepente!
Ta pena daukat nere ametsa
oraindik ez dela bete. (bis)

ERRENTERIA (2008-02-09)

Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Egaña, A. Arzallus, M. Lujanbio, U. Iturriaga, J. Maia eta Xamoa.

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Landare Elkarteak antolaturiko jaialdia. Niessen aretoa erabat bete zen, eta jende asko kanpoan geratu zen, barruan lekurik ez-eta. Jon Maia bertsolariak eta Jon Maya dantzariak ordu laurden inguruko emanaldia eskaini zuten bertso saioa hasi aurretik. Bakoitzak berea eginez, bertsoa eta dantza uztartu zituzten, Arkaitz Miner biolin-jotzailearen eta Vanessa Castaños dantzariaren laguntzarekin.

Xamoa-A. Mendiluze-A. Arzallus-A. Egaña

Gaia: Akrostiko bat egitea nahi dut. Zortzi letrako hitz bat emango dizuet, eta bertso-lerro bakoitzaren lehen letra nik emandako hitz horren lehen letra izango da, eta nahi baduzue gaitzat ere har dezakezue hitz hori. Hitza da ilegalak.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Goizean goizik jeiki ninduzun*

A. Mendiluze: Ihesbiderik ez dago hemen
legea bota digute.
Egia esan pasako zela
garbi genekien guk'e.
Hala ta guzti justizi uste bat
lege delakoen truke.
Ai! Baino alperrik dagoeneko
kondena sinatu dute.

A. Egaña: Izenik ere merezi al dute
legeak eta kondenak?
ETA da dena, dena da ETA
grina oso nabarmenak.
Alde hortatik ideiak behintzat
legalak ditugu denak.
Asko barruan daude ordea
kalean behar dutenak.

A. Arzallus: Ihesbidea zaila da hemen
lur hau maite dugu eta.
Egibideak ikusten ditut
galduta eta erreta.
Arnasbideei jarri nahi digu
legeak berak krisketa.
Askabideak estu daude ta
kalabozoak beteta.

Xamoa: Izaera bat nahiz eta egin
litekeen sarri bi zati
egi izena nolatan jarri
gezur hain mingarri bati?
Atera egin nahi gaituzte nonbait
legeak kontra izaki.
Agian hala nahi dute baino
kostako zaie galanki!

M. Lujanbio-A. Egaña ♫

Gaia: Zuek biok berrogeita hamar urteko bi gizon dibortziatu berri zarete. Oinarrizko sukaldaritza ikastaro batean egin duzue topo, eta oraintxe bukatu da lehen klasea.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Dama gazte xarmant bat*

M. Lujanbio: Berrogeita hamar urte
ta hau da hau kinka!
Kursilloa in behar
asko ez nekin-ta.
Kutxare, sarde, laban
hoi da hori pinta!
Tailerrian'e ez dago
hainbeste erraminta! (bis)

A. Egaña: Oso traketsak gera
trakets nabarmenak!
Ezezagun zaizkigu
trastorik gehienak.
Tailerreko kontuak
sukaldeko temak…
Hemen gainera ez gaitu
libratzen sirenak! (bis)

M. Lujanbio: Arraultzak batitzeko
ere ez det balio!
Gero horko patatak
gatz eta olio!
Buelta eman eta
tortillaik ez iyo…
Argiñanoi hobeto
gelditzen zaizkio! (bis)

A. Egaña: Ba nik ia hartu det
Subijanan planta
baina zu bezelaxe
baldarra galanta!
Hobe da zartagia
ta pertzak lagata.
Dibortziatu izatea
hauxe da hau lata! (bis)

M. Lujanbio: Egia da ez zaigu
ez falta problemik!
Hasteko ez dakigu
trasteen izenik.
Andriai denetikan
esan nion lehen nik
gehio ez det esango
txarra dagoenik. (bis)

A. Egaña: Ba nik andreaz eten
egin nuen zirt-zart!
Horri buruz pentsatzen
egondua naiz bart:
lehen ez nuen desio
harreman berri bat
baina aitortzen dizut
orain duda daukat. (bis)

M. Lujanbio: Nik akabo, akabo
pareja gogoa!
Zuk beste batentzako
daukazu asmoa.
Nik kursillotarako
det orain monoa
ta orain fregatzeko
kursillora noa. (bis)

A. Egaña: Nundik lortzen dituzu
holako premiak?
Bittorio entzun itzazu
Antonion egiak:
fregatze kontu hoiek
dira gehiegiak
ehun urte baitauzkate
zure belaun biak. (bis)

BERGARA (2008-02-16)

Bertsolariak: A. Agirre eta Iker Zubeldia.

Gai-emailea: Ainhoa Agirreazaldegi.

Artatse Elkartean urtero egiten duten bertso afaria. Jende multzo polita elkartu zen, eta bertsotan egiteko giro ona izan zuten bertsolariek. Luze jardun ziren kantuan, hasieran librean eta ondoren gai-emaileak gidaturik. Hasieratik beretik ekin zioten elkar zirikatzeari.

A. Agirre-I. Zubeldia

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Andre Madalen andre Madalen*

A. Agirre: Nere lagunak ahots kordeetan
soberan dauka kemena
baina neronek ere ozentzeko
hartu nahi nuke baimena.
Lehen esan dizut saio on asko
joan da urteetan barrena...
Bertsolai ona izate omen da
hemendik pasatzen dena.

I. Zubeldia: Bertsolai ona pasatze omen da
famoso ta ezaguna.
Haien parera ailegatzeko
badegu estuasuna.
Oiloa eta oilarra gatoz
ta nik eztarri leguna
baina oiloak egingo du gaur
kukurrukurik altuna.

A. Agirre: Nik kukurruku egin dezaket
baina hasi naiz xuabe
herri arrotza ez da neretzat
baina hobe da hala’re.
Ni oilanda ta zu zeu oilarra
jarri gera parez pare
baina gaurkoan joan nahi nuke
bat’e lumaik galdu gabe.

I. Zubeldia: Bat’e lumarik ez du galdu nahi
hala egin dit demanda
baina zergatik egiten dezu
gaztearen propaganda?
Ia hoita hamar urte dauzkatzu
leheno zerorrek esanda
ta oilo ia bihurtu zera
lehenago zinen oilanda.

A. Agirre: Nik “lasai hasi” esan det baina
honek maite du burruka
neroni ere erdi harroa
ta erronka ezin uka.
Bai hogeita hamar beteak dauzkat
dezu ondo kontatuta
zuk’e hainbeste ematen dezu
gandorrera beidatuta.

I. Zubeldia: Bertso hori zan elegantea
elkarte o plazakoa
ahal den neurrian nerearekin
eztabaida osako'a.
Ia lumatik gutxi daukat nik
nago kalbo trazakoa
nunbait oilarra izango naiz ni
lepagorri trazakoa.

A. Agirre: Hemen ohiturak badaude Iker
joan gaitezen pausuz pausu.
Oilategia aztoratu da
hori jakin badakizu.
Bapo edan da afaldu degu
ez gera ezeren kexu...
Sukaldariak hor daude eta
ondo afaldu al dezu?

I. Zubeldia: Lehendabiziko platera ona
gero gisaduai arre!
Kafea ona kopa bikaina
atzetik purua erre.
Gerri gaineko mitxelinekin
egiten didate parre...
Sukaldarikin aixkide nago
medikuakin hasarre.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Adixkidia Andoaindikan*

A. Agirre: Hauxe da prenda! Hau fitxajea!
Hau Ikerren abelera!
Duintasunez sukaldarien
gaia nahi nuen atera.
Honek ederki dagola esan
eta egoki ospera!
Baina gehiena gustatzen zaio
honi postretik aurrera.

I. Zubeldia: Postrez aurreko hura ona zan
hori zuk'e bazenekin.
Hamaika mahaitan afaldu degu
guk Amaia alkarrekin.
Sukaldariak lagun ditugu
hori beharko da jakin
ta urrutitik antzematen da
begiratu hutsarekin.

A. Agirre: Arrai zoparen kolorearekin
barazki batzuek bota
marroi kolore punttu bat zeukan
baina ez dio inporta.
Gazta-menbrilloik ez det probatu
dena ondokoei opa
urte osoan bezela gaur'e
regimenean nago-ta!

I. Zubeldia: Ez zazutela inork sinistu
honek esan duen dena!
Arrai zopea jan omen digu
sartu orduko aurrena
ta gisatua kilo ta erdi
patatarekin hurrena...
Nik ere pozik hartuko nuke
horrelako *regimena!*

ALEGIA (2008-03-01)

Bertsolariak: J.M. Irazu eta I. Zubeldia.

Gai-emailea: Iker Iriarte.

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak bigarren urtez jarraian antolaturiko bazkaria. Txintxarri jatetxean izan zen, bazkaltiar koadrila ederra elkartu zen, eta saio polita egin zuten bi bertsolariek; aurrena librean aritu ziren, ondoren gai-emailearen esanetara, eta bukaeran atzera librean.

J.M. Irazu-I. Zubeldia ♫

Gaia: Bi lagun zarete. Bakoitzak zuen bikotearekin utzi berri duzue. Zuk, Jexux Mari, uste duzu prest zaudela beste harreman bat hasteko. Zuk, Iker, denbora pasatzen utzi behar dela pentsatzen duzu.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Mundu honetan holako gauzak

J.M. Irazu:
Lagunarekin sei-zazpi urte
gozoentsunak pasata
ez ginan ondo konpontzen eta
azkenerako aparta.
Etorkizunak lezakeenak
barrua jarri dardarka.
Ni etsipenak ez nau ez joko
nahiz ta utzi bere marka
zaharra ahazteko modu onena
berria hastea da-ta.

I. Zubeldia: Ez dakinantzat zein gauz zaila den
hau dana entenditzea!
Ustegabean sartu ziguten
bihotz erdian iltzea.
Arriskutsua iruditzen zait
horren azkar abitzea
erreza baita maitatzea ta
maiteakin ibiltzea
baina ez da hain erreza noski
maitatua sentitzea.

J.M. Irazu: Zuk'e aukera izan zenduen
bikotean ibiltzeko
ta sensazio polit askoak
haren muxu bakoitzeko.
Hitza eman bai, amodioa
ez baita beti hitzeko
ta maitatua sentitu nahian
kontseju bat oroitzeko:
zuk'e maitatu beharko dezu
maitatua sentitzeko.

I. Zubeldia: Ustekabean heldu gintuen
maitasunan atzaparrak.
Hura utzi ta berritu ditut
aspaldiko lagun zaharrak
sozidadetan zenbait afari
puruak eta patarrak
diskoteka ta argi gorritan
gastatzen ditut indarrak.
Orain parrezka oroitzen ditut
lehen egindako negarrak.

J.M. Irazu: Orain parrezka oroitzen ditu
ta kantatu tiki-taka
aurren berritan iruditua
iyo ezin zan aldapa.
Bestera ere izan leikela
ta kontzientziai saka:
soziedade ta diskoteketan
mutilzaharren entresaka
gero etxera joandakoan
zomorrotxoa bueltaka.

I. Zubeldia: Zomorro horrek ez dit ematen
horrenbesteko ikara
azkenerako denborarekin
guztiak ohitzen baikara.
Orain bizi naiz bizi guztian
nahi izan detan erara.
Itsu-itsuan bila joatea
beti arriskutsua da.
Hala're pozik hartuko nuke
bidera irtetzen bada.

J.M. Irazu-I. Zubeldia

Gaia: Aurten urte bisiestoa da, eta jo dezagun gaur otsailak 29 dela. Gaueko hamabiak laurden gutxi dira. Erditze gelan egin duzue topo. Umea badatorrela sentitzen duzue, baina ez duzue egun honetan jaiotzerik nahi.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Dama gazte xarmant bat*

I. Zubeldia: Maleta hartu eta
etxetik abitu
bidean ezin gendun
ezertan gelditu.
Hilen hoita beatzian
ezin da erditu
bi urtez behin urteak
beteko baititu. (bis)

J.M. Irazu: Bisiestoan rebajak
zeudenik ez nekin!
Ondo portatu zera
zure umeakin.
Nik’e jaiotzerikan
ez det nahi nerekin
bestela hilko baitzait
hogei urterekin. (bis)

I. Zubeldia: Jendek gaizki hartu du
lehen esan detena
errepikatuko det
esandako dena:
bisiestoa bi dala
da gauza zuzena
bestela zergatik du
bisiesto izena? (bis)

J.M. Irazu: Honen kezka ze ote
heldu da burura?
“Bisiesto, bisiesto”
hoi al du ardura?
Bi dala ta bi dala
ez gero egin duda!
Ama in baino leheno
kaskagogortu da. (bis)

I. Zubeldia: Kaskagorran kontukin
ondotik eginda
etxetik atera naiz
hau zer zan jakinda
ta bisiestoakin
jarriko’iot ginda:
umea’re sortu nun
bi siesta eginda. (bis)

J.M. Irazu: Bi siesta egin ta umea
zuk ehiztari sena!
Ondo ibiliko zinan
mantatan barrena…
Bisiesto ta bi siesta
zeuk esana dena
orain jakingo nuke
haurraren izena. (bis)

I. Zubeldia: Pentsatu gabe neukan
egingo det tongo.
Hala’re Jexux Mari
gaur dizut esango:
bi eta bisiesto
bitan nabil ondo
eta jarriko diot
izena Segundo. (bis)

J.M. Irazu: Ta gainera esan du
serio-serio!
Zuek ez gero pentsatu
ez zunik balio!
Honi epiduralak
kalte egin dio:
behera jun behar zuna
bururaino iyo. (bis)

ELIZONDO (2008-03-15)

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Txapeldunaren agurra

J. Zelaieta

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua*: Haizea dator ifarraldetik*

Hodei batean nago orainik
ta sinistu ezinean.
Bajatuko naiz okindegira
hurreratzen naizenean.
Lehenik aipatu behar Manolo
hemen dagona gainean.
Etxekoak ta kuadrilakoak
beti hor aldamenean.
Bertso eskola, bertso-kideak
lagunak azken finean.
Kamiltxo aipatu dut ta gogotan
nuen nere ezinean.
Bereziki hau zuri, Rikardo
hau zure oroimenean
nigan sinistu zenuelako
gehien behar nuenean.

ZUMAIA (2008-03-28)

Bertsolariak: S. Lizaso, I. Zubeldia, A. Sarriegi, S. Colina, A. Egaña eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Jon Maia.

San Telmo jaien hasieran urtero egiten den jaialdia, Zumaiako bertso-eskolak antolatuta. Aita Mari zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Ohi bezala aretoa dena beterik eta bertsotan egiteko giro ona.

I. Zubeldia-A. Egaña

Gaia: Zuek biok Aste Santuan kanpoan ibili zarete, eta itzuleran joaterakoan baino konbentzituago etorri zarete. Zuk, Iker, pentsamendua ekarri duzu Euskal Herrian baino hobeto inon ez dela egoten. Zuk, Andoni, uste duzu hemen baino hobeto edonon egoten dela.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zeru altuan zegoen jaunak*

I. Zubeldia: Aste Santutan Eskoziara
eman det salto bortitza:
jateko gutxi ta hotza latza
bazegon zenbait baldintza...
Eta Andonik etxetik kanpo
eman nahi luke bizitza
nik ere berdin pentsatuko nun
Kubara joan banintza!

A. Egaña: Hamabost egun filme bateko
pertsonaiaren antzera
Iker jardun da ETEren gisa
“Etxera” beti “Etxera”.
Etxezalea ez zera berez
deskuidoa da bai zera!
Eskozia dio gizarajoak
ta Galizin izan gera.

I. Zubeldia: Geografian ez naiz hain ona
baina ez da nere kulpa.
Hamaika pulpo irentsi degu
hamaika pulpo ta pulpa!
Egia esan nahiko aldrebes
eraman degu kondukta:
esan nahi nuen egon naizela
Galizin *eskozituta*.

A. Egaña: Ribeiro puxkat edan degu bai
hori halaxe da tira!
Ondoren Iker han moldatzen zen
soltero baten neurrira:
“Diskotekara joango gaituk
ta bertan ligatu di-da!”.
Besteren gonak ezin lortu-ta
batzuk jantzita ibili da.

I. Zubeldia: Gonak jantzita han ibili naiz
ondo ezin kunplituan.
“Hau ez dek oso paraje ona”
ikusi nun segituan.
Ligatu nahian diskoteketan
txapelduna merituan:
almeja bila joan zan eta
mejilloiak jan zituan.

A. Egaña: Baina kanpoko sentitu naiz ni
ez naiz sentitu etxeko:
beldurrik ez nun nagusi batek
lantokiraino deitzeko
beldurrik ez nun goizean goizik
telefonoak jotzeko
eta inortxok ez digu esan
kantzontziloz aldatzeko.

I. Zubeldia: Jendea asko bildurtuko zan
gu horrela ikusita.
Gabardinea jaztea hobe
kantzontziloak utzita!
Coruñaraino joan ginen ta
zeinen detaile polita:
herriko seme izendau zuten
gaita jotzen badaki-ta!

A. Egaña: Euskal Herria hain ona al da?
Horretxek sortzen dit kezka.
Ardo batekin pagatu gabe
platertxo bat pintxo estra
hurrena berriz hola eginda
inor ez doa iheska
eta gainera autopistarik
pagatu beharrik ez da!

A. Sarriegi-S. Colina ♫

Gaia: Zuek biok sarri joaten zarete hondartzara uda nahiz negu izan. Eta batzuetan topo egiten duzue, baina ez zarete gauza berbera egitera joaten. Aitor pentsatzera, hausnartzera joaten da. Sustrai, berriz, kontrako intentzioarekin: ez pentsatzera, ez hausnartzera.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Lagundurikan danoi I*

S. Colina: Neskakin atzo utzi
nuen eta hara!
Ama gaixorik dago
azkenetan jada.
Pauso erdi dudatiz
nator hondartzara.
Dena ahaztu nahi nuke
dena urrun laga
ta ahazteko modua
ez pentsatzea da.

A. Sarriegi: Bi pertsona ezberdin
elkartu gaurkoan
elkarren parean nahiz
elkarren ondoan.
Hondartzan ibiltzen naiz
etorri ta joan
iragana oroitu
ohi det honakoan
ta etorkizuna ikusi
nahi det harakoan.

S. Colina: Jakin zazu geroa
iragana dala
ez baduzu bizitzen
behar den bezala.
Honera ekarri dut
gaur pauso makala
nere pena guztiak
plaian utziz hala
ta hurrengo mareak
eraman ditzala!

A. Sarriegi: Baina zergatik ahaztu
zertan izan kexu?
Zertan utzi uretan
ideia ta mezu?
Olatuei begira
ipini zaitez zu
arazoei bezela
aurre egiezu
ta nola lehertzen diren
ikusiko dezu.

S. Colina: Nahiz ta gustora eman
plaiako saltoa
nahi bezain azkar ez da
isurtzen malkoa
egoera ez baita
nola-halakoa.
Aitor olatuetan
ez datza gakoa:
bueltan ekartzen dute
eramandakoa.

A. Sarriegi: Baina olatuetan
utzita problemak
urrun joan daitezke
minak eta penak.
Ni pentsatzera ta zu
ahaztera denak.
Ez dira hain ezberdinak
gure ekimenak
asko pentsatzen baitu
ahaztu nahi duenak.

S. Lizaso-A. Mendiluze ♫

Gaia: Sebastianen kezkak pertsonalak dira, berekikoak. Aitorrenak, berriz, bestelakoak dira, bere buruaz gaindikoak. Esaten da adinarekin gertatzen dela prozesu hori.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso: Berrogeita hamar urte beteak
hori ongi dakizuna.
Orain artean ni ez naiz izan
zakarra edo lizuna.
Bi seme sortu ta hazi ditut
bete dut eginkizuna.
Gaurtik aurrera kezkatzen nauna
da nere etorkizuna. (bis)

A. Mendiluze: Zahartzera kezka hori sortzen da
hori da bizilegea.
Ni gaztea naiz ta besteengan
jartzen det neure fedea.
Besteen mundua hobetu nahi det
lortu euren mesedea
gertukoena hobetzen badet
hobetuko det neurea. (bis)

S. Lizaso: Sendia hezi, erakutsia
nere aitak eta amak.
Orain artean bide hortatik
joan dira nere lanak.
Hazi dira ta hoztuaz doaz
fameliko harremanak
eta kalean zer egingo du
etxean sobratzen danak? (bis)

A. Mendiluze: Semeak hazten kezka haundia
izan dezula badakit
baina haztean zeure burua
ez zazu bota etxetik.
Oraindik ere sasoiko zaude
ez zaitez zahartu kolpetik!
Oraindik oso urruti zaude
bi semeek zu zaintzetik. (bis)

S. Lizaso: Bizi naizela izan nahi nuke
neu zaintzeko hainbat kemen
baina betiko jaiotakorik
ez baita izaten hemen
ia lehenbailehen bilobatxon bat
agertzen zaidan bederen!
Argi pixka bat ikusi nahi dut
begiak itxi baino lehen. (bis)

A. Mendiluze: Ba nik besteengan pentsatu nahi det
neronengan baino gehio
zentru bihurtu eta kezkatan
zertan bizi? Ze arraio!
Bizi naizela bizi egin nahi det
ta hiltzen naizenean aio!
Baina atzetik gelditzen denai
zerbait utzi behar zaio. (bis)

S. Lizaso: Arrazoi hori ez da berria
nik ere nuen sinetsi
ta azkenerako neure ametsak
nere barrura irentsi.
Sasoiko denak egiten ditu
bakina bat amets bitxi...
Nik gauza asko geroko utzi
ta orain ezin iritsi. (bis)

A. Mendiluze: Beraz ametsak ugaltzen dira
sasoiaren aitzakian
eta denborak jartzen omen du
bakoitza bere tokian.
Ba nik ametsak gorde nahi ditut
beti leku egokian.
Zeurea galdu zenuenean
zahartu zinen Xebastian! (bis)

GASTEIZ (2008-04-03)

ARABAKO TXAPELKETA

Txapeldunaren agurra

A. Otamendi

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Semaforoak gorri ta berde*

Asteazkenero soziedadean
jarririk hainbat enpeño
beste munduko ezer ez gara
gure apalean ñaño.
Kakiturriko kuadrilatxoak
eman dit hainbat kariño.
Zueri esker ailegatu naiz
orain nagon lekuraino
gutxiagorik ez nizuen zor
txapel dotore hau baino. (bis)

ZEGAMA (2008-04-06)

Bertsolariak: A. Egaña, J.M. Irazu, I. Zubeldia, B. Gaztelumendi, A. Mendiluze, U. Agirre, A. Sarriegi eta J. Martin.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Kasino Elkarteak urtero antolatzen duen jaialdia; azken urteotan bezala, Erlezainen Egunean egin zen, eta egunean eta astean zehar hainbat ekitaldi izan ziren. Pilotalekuan izan zen, arratsaldeko sei eta erdietan, entzule asko, laurehun bat-edo sarrera ordaindu zutenak.

A. Egaña-A. Mendiluze-A. Sarriegi-B. Gaztelumendi

Gaia: Memoria eginez, gogoratuko gara Txapelketa Nagusiaren finalean, BECen, ia hamalau mila entzule izan zirela. Gipuzkoako finalean, Illunben, ia bederatzi mila. Atzo jokatu zen Arabako finala, eta sekula baino jende gehiago izan zen: ia seiehun lagun.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nere gogoa hegan dijoa*

A. Mendiluze: Hamalau mila baziren BECen
final denetan nagusi
Illunben ia beatzi mila
ez zun ematen itsusi
Araban seirehun eta halere
lehen zeuzkaten markak hautsi
baina ez geratu zenbakietan
proportzioak ikusi.

A. Egaña: BEC ta Illunbeko kopuru hori
kopuru haundi-itzela
Arabak ere eskeinia du
rekor omen dan nibela
baina uste det Arabakoa
aukeran gutxitxo dela
oraindik ere sakona baita
San Adriango tunela.

B. Gaztelumendi: Tunela ez baino plazak aspaldi
ondo ditut ezagutu.
Imajinatu bertsolari bat
ta mila entzule mutu
batek bertsoa bukatu eta
frontoia txalotan urtu…
Bertsolaritza ezin delako
zenbaki bidez neurtu.

A. Sarriegi: Esaten dute Gipuzkoa dala
bertsolarien sehaska
eta Araban zazpirehun lagun
ta guk buruari hazka.
Beñatek argi asko esan du
beraz datuekin basta!
Zenbakietan ezin da neurtu
saio baten arraskata.

A. Mendiluze: Izatez ere irudimena
joaten zaigu urrutira
realidadea ez ikusteko
sarri bidea hori da.
Hemen gabiltza zenbat euskaldun
bertsozale den begira
han bertsozale ta euskaldunak
biak sortu behar dira.

A. Egaña: Kopuruetaz hitz egiteko
aukera orain heldu da.
Bertsolaritzak soil-soilik dauka
gure hizkuntzaren muga.
Hazi ta hazi komeni al den
nik'e badet nahiko duda
sarritan lehertu egiten baita
gehiegi puzten den hura.

B. Gaztelumendi: Baino Araban puzten ari da
eta horrek zer du txarrik?
BECen hamahiru mila baziren
ez dago esan beharrik.
Illunben ere zortzi milatik
geunden pasatu samarrik
baino zergatik goatzen gera
txapelketekin bakarrik?

A. Sarriegi: Urtean zehar hainbat herritan
egiten degu pasara
ta badakigu zenbat pertsona
etortzen diren plazara.
Nahiz ametsetan gezur haundiak
sinistu gure kasara
Illunbe ere ez da egia
egia gaurko plaza da.

GETARIA (2008-04-12)

Bertsolariak: N. Gabilondo, A. Agirre, A. Agirreazaldegi, I. Ibarra, U. Alberdi eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Getariako Udalak antolaturik, herriko elizan egindako jaialdia. Jendez erabat bete zen eliza, denera hirurehun lagun inguru. Saioan zehar aipamen asko egin zituzten lekuaren gainean, eliza aldapatsua baitzuen.

M. Lujanbio – A. Agirre ♬

Gaia: Ama-alabak zarete, Amaia ama eta Maialen alaba. Alabari labadora hondatu zitzaion eta amak, borondate on guztiarekin, arropak berak garbituko zizkiola esan zion, eta ekartzeko lasai. Harrezkero hiru aste pasatu dira, eta oraindik alabak amaren etxera bueltaka jarraitzen du.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Agirre: Nik borondate onena jarri
ta ez zenidan ukatu.
Nahiz hiru aste igaro diren
lanak ez zaizkit bukatu.
Zuk aurpegia daukazu latza
alaba maite barkatu!
Garbigailua aldatu dezu
zu ez zera asko aldatu!

M. Lujanbio: Ama ez zaite erritan hasi!
Lasai zaite benga, benga!
Ja hiru aste daramagula
nolatan dezu ba zenba?
Konpondu nula uste nun baino
dago onetik irtenda:
bueltak ematen hasi eiten da
baino gerau egiten da.

A. Agirre: Nunbait ederra iruditua
nik emandako aukera.
Ama guztiak berdinak gera
baina posible ote da?
Buelta ta buelta hemen zabiltza
labadoraren antzera!
Zuk ere buelta egizu baina
nere etxetik zurera.

M. Lujanbio: Dena egiten det zuk esan bezela
kopiatzen badet nahia:
programa laua kurpilan jarri
ta abitu dedin saia
detergentea kutxan bota ta
ni nahiz geratu lasaia
gero ez du izaten zure etxetik
ekartzen duten usaia.

A. Agirre: Beti aitzaki bat badu beregan
beregan dena tipiko:
gureak usai hobea omen
arropak uretan ito...
Ba fregaderan eskuz garbitzen
hasi zaitea ta kito!
Behingoagatik ez baitzaizkizu
azkazalak eroriko!

M. Lujanbio: Neri berdin zait behingoagatik
nahiz ta azkazalak eten
baina badaukat labadora ta
ia ze ein genezakeen...
Zure iguala ez zait irteten
ta ezin meriturik ken.
Gainera nere labadoratik
ez da plantxauta irteten!

N. Gabilondo-A. Agirre-A. Agirreazaldegi-I. Ibarra-U. Alberdi-M. Lujanbio

Gaia: Noizbait kantatu edo egin behar izango zenuten hileta baterako edo hil den bati buruzko bertsoren bat. Eta gaur ere hori eskatuko dizuet, baina pentsatu behar duzue zuen eskuinetara dagoenaren hiletan kantatzeko bertsoa dela.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Santa Barbara zure bizitza II*

M. Lujanbio: Gogoan daukat gaixo Uxue
neska hain jatorra zela
lagun artean moldatzen zana
poztasun punttu bezela.
Idazten eta bertsotan ona
neska artista itzela.
Azken bertso hau duzu zuretzat
hau da hau patu krudela!
Seguru nago kutxa barrutik
parre egingo duela. (bis)

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Hil da Canovas fuera Canovas*

U. Alberdi: Aspaldidanik euki dotsiet
hildakuei beldurra
baina ilusinoz hartuko dau ta
hau da formula ziurra.
Nahiz eta laster izango zaren
soilik hautsa ta hezurra
nik holan egin gura dotsut gaur
eiten dakidan apurra
ta bizkaieraz eman nahi notzun
zure azkenengo agurra.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Saltarina da txepetxa eta*

I. Ibarra: Ezautu neban eskolarteko
txapelketaren unean
bera txikien mailan zebilen
ta ni nagusienean.
Haundia izan da beti Ainhoa
haundia iraganean
ta haundiago bilakatuko
jaku etorkizunean
bere txikitasunean.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

A. Agirreazaldegi: Amaiak beti lagunentzako
gaiztoan zenbat maitasun!
Erdia zinan ironia ta
beste erdi goxotasun.
Bertso eskolatan zenbat ikaslei
guztia eman diezun!
Zure ondokoen negar malkoak
nahi ote dituzu entzun?
Eta mesedez orain ez zazu
hemen bertsotan erantzun! (bis)

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Hamaika aldiz daukazu lehendik*

A. Agirre: Sare jostera egiten zuen
portu ertzerako jira[4]
ta azkenean bere bizitza
heriorekin josi da.
Hilkutxa ezin ordaindu eta
itsasora osoik tira.
Inork ez beza negarrik egin,
inor ez bedi kupira,
azken arnasa eman baitzuen
itsasoari begira.[5]

N. Gabilondo: Maialen nire barruan zauzkat
begiratzean atzera
malkoak ere iritsi zaizkit
laster begien ertzera.
Baina nirea haserrea da
ez nago triste bai zera!
Zor zenizkidan hogei euroak
ordaindu gabe joan zera.

A. Agirreazaldegi

Gaia: Azken urteotan bi edo hiru buelta egin dituzu Kubara, eta badakit gustuko herrialdea duzula. Zer ekarriko zenuke handik Euskal Herrira, eta zer emango zenuke hemendik hara?

Neurria: Hamabiko handia
Doinua*: Abokatuak deitu berri dit*

(4) Gai honen gainean kantatu zuen aurretik Nahikarik: “Portuan sareak josten eman duzu bizitza osoa. Erretiroa hartzeko garaia heldu zaizu”.
(5) Zortziko handiko doinua da, baina puntu bat gehitu zion Amaia Agirrek.

Herri horretan ikus liteke
pasadizoen ilada
bizi nahi duen herri txiki bat
Kuba besterik zer da ba?
Baina azkenaldin ez dute bizi
oso gorako bolada
gazte jendeak gehiegi dauka
Europarantz begirada.
Etorkizuna asmatu ezinik
sentitzen dudan ikara...
Guk beraiengan dugun fedea
eraman nahi dut bertara. (bis)

Kuban badute etxekoentzako
behar duten aina jaki
gutxi horrekin ondo bizitzen
asmatzen dute galanki
eta ez dute zertan goizero
gauza haundirik erabaki.
Ze gauza gehio eskatu leike
horrelako herri bati?
Euren parrea ekarri nahi dut
irripartsu daude beti.
Gu ez ginake horren tristeak
parre egiten bageneki. (bis)

Ez haientzako ez guretzako
ez datoz errex garaiak
etorkizuna asmatu nahian
ez daude barru lasaiak.
Baina oraindik ez dira heldu
agurrak eta amaiak
guztiok gara gure herriko
harri haundien itzaiak.
Elkarrengandik ikasteak'e
gainditu ditzake nahiak:
haiek hegalak behar dituzte
eta guk berriz sustraiak. (bis)

URRETXU (2008-04-19)

Bertsolariak: S. Colina, A. Arzallus, F. Paia, X. Silveira, N. Elustondo eta J.M. Irazu.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

AHTren aurka antolaturiko jaialdia. Urretxuko Pagoeta antzokian izan zen, larunbat arratsaldean. Denera berrogeiren bat entzule, eta aretoa ia hutsik.

S. Colina-A. Arzallus-F. Paia-X. Silveira-N. Elustondo-J.M. Irazu

Gaia: Bi bertso eskatuko dizkizuet. Lehen bertsoan esplikatu noiz erabili beharko litzatekeen abiadura handia, eta bigarren bertsoan noiz joan beharko genukeen mantso.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Kantore berri xarmant batzuek*

S. Colina: Bizitza batek mila momentu
daduzka almazenean
eta ez dago bat geratzerik
bakoitzan bizipenean.
Nere ustetan joan behar da
pausurik azkarrenean
manifa baten mila polizi
atzetik datozenean. (bis)

A. Arzallus: Nahiz ta Sustraiek aipatu duen
beltzak atera ondoren
nere ustetan lehenago ere
jakin behar dute nor garen.
AHTan kontra derrigor
azkar joan behar da zeren
gelditu egin behar delako
berandu izan baino lehen.

F. Paia: Larunbatetan patxadaduna
izaten da bazkaria
ta siesta on bat horren osteko
asteburuko oparia
baina esnatu ta saiorako
erlojuari begia.
Gaur erabili behar izan dut
abiadura haundia. (bis)

X. Silveira: Abiadura haundiarenak
sortzen dit nahiko bertigo
ze izan trena edo bizitza
hobe astiro-astiro.
Nik azkar ez dut inoiz deus egin
ta ez dut inoiz egingo.
Marokon argi esaten zidaten
“La prisa mata amigo”. (bis)

N. Elustondo: Nahiz ta hori ez den kabitzen
herritar denen senetan
ez ote gera sarritan bizi
tristuran eta penetan?
Abiadura haundiz mugitu
beharra dago benetan
gure herrian injustizi bat
gertatzen den guztietan. (bis)

J.M. Irazu: Trenaren kontra azkar joan ezik
konpondu ezin dan arazo
eta herriak bestela ere
badauka hamaika lazo
urte luzeetan bihurtu dana
sufrimenduaren altzo
baino ez dakit nola joan behar dan
azkar edo mantso-mantso. (bis)

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Hasiko al naiz hasiko al naiz*

S. Colina: Abiadura utzi ta mantso
hasiko ote gara ai!
Kotxean mantso joan behar da
ateratakoan *por hay.*
Lana're mantso egin behar da
ahal bada mantso ta lasai.
Siesta ere hobeto mantso
siesta aurrekoa ere bai.

A. Arzallus: Nik normalean abaila fama
izan dut ingurunean
ta batez ere bertso kantuan
lehen abadagunean.
Baina mantsotu egin behar da
hau buruan hutsunean
ta batez ere azken puntuak
aldegiten dizunean.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Garai bateko baserritarra*

F. Paia: Eiffel dorrea edo Big Bena
adibide dira tira!
Ondo beidatuz txinatar hoiek
egin zuten harresira.
Egia esan inurriak be
heltzen dira urrutira.
Mundu hontako gauza gehienak
oso mantso egin dira.

X. Silveira: Egon naiz zuri legazpiarrari
ia erantzutekotan
mila arazori azkar erantzun
behar zaiela zion bertsotan.
Hemen ordea abiadura
saltzen da hamar eurotan:
bi egun azkar pasatzen dira
ta hurrengo bostak lotan.

N. Elustondo: Legazpitikan atera eta
bertan Dia[6] parez pare.
Renfe paretik pasa daiteke
balazta zapaldu gabe
ta Labeagan joan behar da
mantso-mantso, bare-bare
han doble filan dauden kotxeak
ez markatzeko bada're.

J.M. Irazu: Bazkaldu mantso egin behar da
nahiz maiz ezin imajina.
Lo ere mantso egin behar da
nahiz sarri gerta ezina.
Parranda ere mantso behar du
hala ibiliko bagina…
Poliki joanda hartzen delako
belozidade haundina.

F. Paia ♫

Gaia: Zu jaio baino zazpi urte lehenago zerbait pasa zen zure herrian, gaurko egunez. Badakizu zer? Edo gaia jartzen jarraituko dut?

Neurria: Hamabiko handia
Doinua*: Abokatuak deitu berri dit*

(6) Dia supermerkatua.

Memoria egiten hasita
sarri geratzen naiz apal.
Hasieran hauxe pentsatu dut:
“Espabilau zaite *chaval*!”
Heriotza bat Algortan bertan
ta faxista bezain legal.
Batzuk ahaztua izango dute
besteek jakin ez igual.
Halan da ere memoriarik
nola ezin dezakedan sal
gaurko egunez hil zuten Txikia
Eustakio Mendizabal. (bis)

Algortako tren geltoki hartan
txakurrak ziren atzetik.
Han bi gudari ospa in zutenak
bakoitza alde bakoitzetik.
Eustakiok gure etxerantza
salto egin trenbideetatik...
Tiro hotsa, sirenak atzean
berak arin aldatzetik...
Errepidean hamahiru tiro
euren pistola beltzetik
ta gu abertzale sortu ginan
espaloiko odoletik. (bis)

Mural haundi bat bazegoen lehen
kolorez gorri ta baltza.
Gurasoek azaldu ziguten
hori ez zela izan txantxa.
Lurrean ere segi tiroka
amilduaz esperantza
ta gorpu bat hantxe utzi zuten
dana odol ta lokatza.
Baina ez ahaztea dugunez
herri zapalduen martxa
oraindik ere han zutik dago
Txikiaren enparantza. (bis)

MENDEXA (2008-04-20)

Bertsolariak: A. Mendiluze, B. Gaztelumendi, A. Egaña, A. Arzallus, X. Paya eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Iratxe Ibarra.

Mendexako pilotalekua erabat bete zen beste behin bertsolariak entzuteko; guztira bostehun lagun inguru. Mendexako bertsozale talde batek antolatu zuen. Sarrera 8 euro. Arratsaldeko bost eta erdietarako zegoen iragarrita kartelean, baina ia seietan hasi zen, gaizkiulerturen bat zela-medio bertsolari batzuei hitzordua ordu horretan jarri zitzaielako.

A. Arzallus-A. Mendiluze

Gaia: Oihal zati bi zarete, Bilboko Udaletxean- gaur konturatu naiz Mendexako Udaletxean ere badaudela baina-, altuera berean zaudetenak. Mendiluze ikurrina eta Arzallus Espainiako bandera. Zer duzue elkarri esateko?

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Kantore berri xarman batzuek*

A. Mendiluze: Lasai nengoen bakarrik baina
laguna inguratua
eta abegiz hasi nahi nuen
bion arteko tratua.
Hori bai zerbait argi utzita
hortan baitago kontua:
bat borondatez jarria dela
bestea inposatua. (bis)

A. Arzallus: Ni jostun batek josi ninduen
oihal gain ta oihal azpi
ta Azkunak behin zintzilikatu
bere atzamar ta guzti.
Geroztik zenbat pintura pote
Karrasi ta malaosti!
Hain maitatua izateko hemen
zer egin ote dut gaizki? (bis)

A. Mendiluze: Nola nahi dezu esplikatzea?
Halaxe tokatzen zaizu.
Herri honetan pasarte beltz bat
gogora ekartzen dezu.
Baina lagunik ez dezulako
gutxi kezkatu zaite zu
zeuk eta biok pentsatu baino
lagun gehiago daukazu. (bis)

A. Arzallus: Hainbeste lagun ote dauzkat ba
Euskal Herri zabalean?
Nire kontra ere ia egunero
dabiltza eginahalean
ta ze notizi heldu zitzaidan
neri atzo arratsaldean:
lehengusuren bat ba omen daukat
Mendexako Udalean. (bis)

A. Mendiluze: Beraz Mendexan zure lehengusu
delako bat badaukate
hainbat zuretzat pozgarri eta
hainbat beraientzat kalte.
Hala ta guzti jakizu zerbait:
betirako ez zerate.
Gaitzak holaxe zabaltzen dira
botika onak eman arte. (bis)

A. Arzallus: Ez dakit nola iraungo dudan
unea iritsi arte.
Hara! Gazte bat goruntza dator
balkoi zatia bitarte.
Kendu nau eta horrek utzi nau
ia pozez bete-bete.
Pentsa! Guztiek hortik kenduta
etxera eraman nahi naute. (bis)

B. Gaztelumendi-X. Paya ♫

Gaia: Duela zenbait denbora Interneten Beñaten idatzi bat irakurri nuen; zati bat irakurriko dut: "Behin esperimentatzen hasita, polita izango litzateke bertsotan bukaera pentsatu gabe hastea, automatismoak albo batera utzita. Ni ez naiz saiatu inoiz halakoak era kontzientean egiten, eta esperimentu polita izan liteke. Ia subkontzientean daukaguna agertzearen modukoa. Bertsoa pentsatu gabe hastea, bertsoari berari uztea gu behar den tokira eramaten, gu ere harritu egingo ginateke noraino heltzeko gai garen ikusita". Aukera emango dizut, baina ez zaitut bakarrik utziko. Xabik lagunduko dizu. Librean utziko zaituztet, baina igarri dadila bukaera pentsatu gabe ari zaretela.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Haizeak bidali du*

B. Gaztelumendi: Pentsatu gabe hasi naiz
Ai! Ai! Ai! Ai! Ai! Ai!
Hala ematen du baino
ez nago oso lasai.
Nahiz eta aurrekuak
dauden oso alai
ne larruan ez luke
inortxok egon nahi.

X. Paya: Txalorik ez da behar
ez da pentsatuko
hasi beharra dugu
segi eta punto.
Hauxe ez da hain erreza
gero ez egin uko
idatziaz ez al zara
gero damutuko?

B. Gaztelumendi: Damutu egingo naiz
hau da hau abaila!
Gustora hartuko nuke
Xabi Payan maila.
Bukaera okurritu zait[7]

X. Paya: Aizu parkatu Beñat
ezin da pentsatu
hemen egin behar da
hasi ta bukatu.
Eta ez bada kabitzen
ta ezin ohartu
errima bat hartu ta
ahal den gisan sartu.

B. Gaztelumendi: Ez zait ba kolatu orain
gure Xabi Paya!
Iruditzen zait bera
dedala etsaia
baino ailegatu da
zeozeren garaia...
Orain bukaera bat
daukat bota nahia.

(7) Ziztu batean ari ziren kantuan biak hala biak ere; Beñat trabatu trabatu egin zen, eta Xabik txanda kendu zion.

X. Paya: Beitu! Konturatu da
txarto egin zuela.
Horrela ez da lortzen
inongo txapela.
Hasi pentsatu gabe
Jopela! Jopela!
Fijo neska hoiek ere
egiten dutela[8].

B. Gaztelumendi: Hoiek egiten dute
ta ni nabil txarto.
Honek lehen bukaera
pentsatu du bapo!
Hargatik gelditu da
grazioso galako
Xabi Paya tranpetan
onena dalako.

X. Paya: Klaro! Ez badu egiten
bertso eta *fallo*
ezin da ona izan
eta ze arraio!
Ni hasten naiz bertsotan
hortan banaiz iaio
ezin naiz txarra izan
zer egingo zaio!

B. Gaztelumendi: Harrotasuna ona da
harrokeria ez.
Horrela Xabi Paya
hain dabil aldrebes.
Nahiz ta honek bertsotan
egiten dun errez
errespeto pixka bat
nerekin faborez!

(8) Neska talde bat seinalatu zuen eskuarekin, puntu hau kantatzearekin batera.

X. Paya: Puntuka egingo dugu
argi gera dadin.
B. Gaztelumendi: Bueno zuk esan dezu
beharko da egin.
X. Paya: Ezin da pentsatu ta
ezer bota arin.
B. Gaztelumendi: Egia da zurekin
ezer ez da berdin.

B. Gaztelumendi: Hau ez da izan juxtu nik
pentsatzen nuena.
X. Paya: Idatziarengatik
dauka orain pena.
B. Gaztelumendi: Hau da inoiz egin dedan
gauzarik zailena.
X. Paya: Idazten duzun hori
pentsatu hurrena.

X. Paya: Ta paranoia hori
noiz otu zitzaizun?
B. Gaztelumendi: Ostegun gau batean
izango zan entzun.
X. Paya: Ta inork ez al zizun
blogera erantzun?
B. Gaztelumendi: Zer egin behar det zuk
barkatu zaidazun?

B. Gaztelumendi: Baino zu nahiko ondo
ari zera Xabi.
X. Paya: Amamak esaten dit
ez al da nabari?
B. Gaztelumendi: Zu bertso eskolan egon
zinan oso adi
X. Paya: bai eta egon nintzen
urteak ugari.

X. Paya: Horrela ikasten da
bestela ezin da.
B. Gaztelumendi: Egia!. Pastelari
jarri dio ginda.
X. Paya: Inor ez da jaiotzen
bertsotan jakinda.
B. Gaztelumendi: Ni’re harro nengoke
horrela eginda.

B. Gaztelumendi: Hala’re ikasteko
badaukat denbora.
X. Paya: Denbora ez gastatu
ez joan inora!
B. Gaztelumendi: Adinean ta mailan
joan nahi det gora.
X. Paya: Bertsotan denerako
denbora egongo da.

X. Paya: Jada azaldu dugu
geure talentua.
B. Gaztelumendi: Orain nola bukatu?
Hori da kontua!
X. Paya: Amaituko al dugu
esperimentua?
B. Gaztelumendi: Ohore bat izan da
zukin kantatua.

ZALLA (2008-05-23)

Bertsolariak: A. Mendiluze, J. Maia, M. Lujanbio eta S. Lizaso. Gai-emailea: Unai Elizasu.

Bertsoarekin loturiko gero eta ekitaldi gehiago egiten dira Enkarterrian, eta horietako bat dugu bertso jaialdi hau. Zallako antzokian izan zen, ilunabarrean.

S. Lizaso-J. Maia

Gaia: Gaur goizerako zita egin duzue biok, hamar eta erdietan, Lizasoren etxean. Jon iritsi da, Sebastian atean du zain, elkarri eskua eman diozue... Zapatero eta Ibarretxe. Eskua eman ondoren zer pasatu da? Hori jakin nahi dut. Ez dakit politikaz edo zertaz hitz egin behar duzuen. Nahi baduzue elkarri eskutik helduta segitu edo...

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Kantore berri xarmant batzuek*

J. Maia: Bederatzigarrengo aldian
elkartu gera ni ta zu
kazetarien marabunta hau
flash argi artean izu...
Kamara aurrean lotsarik gabe
eskua eman didazu
baina eskatzera etorri naiz ta
gehiago eman behar dezu. (bis)

S. Lizaso: Zure bisita aski izan da
ika-mika hau sortzeko
baina hemendik Euskal Herria
lotua kate motzeko...
Gure etxera etorri zara
baina ezer ez lortzeko.
Beste aitzakirik ez al zeukazun
Madrilera etortzeko? (bis)

J. Maia: Hasieratik hitz egin dezu
nahiko garbi eta gogor.
Moncloan sartu ta otsoa zera
kamaren aurrean jator...
Guztia dago *estankatua*
dena zozo, dena lehor
zure auzokoa naizen ezkero
gatza eskatzera nator. (bis)

S. Lizaso: Hori aurretik jakin ezkero
konpontzea zen errezen.
Dirudienez badadukazu
nik uste nuen hainbat sen.
Nik beste zerbait espero nuen
zuk gatza behar hain zuzen
baina azukrea emango dizut
pixkat gozatu zaitezen. (bis)

J. Maia: Egia da bai hurbiletikan
Mister Bean dirudizula
ta azukrea ematen zatoz
ez zazu egin pilula.
Jakin ezkero hasieratik
bukaera txarra dula
zertan ikusi berriro ere
hain txarra den pelikula? (bis)

S. Lizaso: Zeu ari zara behin ta berriro
lehengo zintai eragiten!
Zurekikoak amaitu dira
ez da hain zaila jakiten.
Nahi ez badezu Lehendakaritzan
oso presaka han irten
aurki joango da Patxi Lopez ta
hasi maletak egiten! (bis)



Gipuzkoako bertso-eskolen eguna.
(Usurbil, 2008-04-20)

Iturria: GBE

DURANGO (2008-06-08)

Bertsolariak: U. Iturriaga, I. Ibarra, A. Mendiluze eta S. Colina

Gai-emailea: Leire Bilbao.

Egunkaria kasuan auzipeturik daudenei elkartasuna erakusteko asmoz antolaturiko jaialdia. Plateruena kafe antzokian izan zen, arratsaldean.

U. Iturriaga-S. Colina

Gaia: Ahozko egunkari bat egingo dugu. Ez al dira bertsolariak hein batean kazetari, plazako kronikak jasotzen? Bertsolariak bertsolaritzaz. Bertsolari asko kontzienteki edo inkontzienteki egiten duten gauza bat eskatuko diegu hauei biei: meta-bertsolaritza egin dezaten. Hau da, bertsolariek bertsolariaren gainean bertsotan egitea. Baina ez da gai berria, ze hauek biek Berrian asteazkenero egiten dute, *Plaza librean*, bata besteari erantzunez.

Neurria: Zortziko nagusia
Doinua*: Zeru altuan zegoen jaunak*

S. Colina: Sarri Berrian idazten dugu
orain hontaz gero hartaz.
Berria dugun espresioari
eman nahi diogu arnas.
Duda batekin nago aspaldian
eta kezkatuta arras:
Unai oraindik ba ote gara
jendea batzeko kapaz?

U. Iturriaga: Zeozertxo bai, ze ikusten da
gaur hemen Durangon bertan
baina ai! Guk zer esango dogu
gure ofizioan bueltan?
Garbia gauza bakarra deukot
gaur nire neurona metan:
ez litzakeela saioik ein behar
domeka arratsaldeetan.

S. Colina: Hori ez nuen inoiz entzungo
zugandik aditu ezik.
Egia da bai zure propuestak
ez du falta interesik.
Bertsolarian anatomia
aztertu dezagun kasik:
zuk ez daukazu neurona meta
neurona bakarra baizik.

U. Iturriaga: Ta problema da bakarra euki
eta sapaia jotea
baina ia zelan erantzun behar
deutsudan errebotea.
Zelan sarritan toketan jakun
egoera hontan egotea
proposamen bat aurkeztu behar dot:
da bertso karaokea.

S. Colina: Ikusten dut bai hasi zarela
buruari eragiten
eta noraino heldu zintezkeen
ez da erreza jakiten.
Karaoke bat egin genzake
eta Canal Sateliten.
Horretarako hasi gaitezen
herri konsulta egiten.

U. Iturriaga: Herri konsultak ez dira egiten
eingo direla esan baizik
baina gu gure bide estutik
aldendu egin gara kasik.
Meta-bertsolaritza ein behar
eta ezer zuzendu ezik...
Galderatxo bat hortik aparte:
zegatik zagoz hain pozik?

S. Colina: Galdera zaila egin didazu
zailegia aidanean
baina erantzun beharko dizut
galdetu ondorenean:
berez bersoak asko pozten nau
baitaramat barrenean
eta oraindik gehio pozten naiz
ondoan zauzkadanean.

U. Iturriaga: Ustez ipini behar nebanean
ataka nahiko larrian
hara besteak ideia onak
buruan ta eztarrian.
Proposamen bat izan da, edo
nago momentu urrian...
Nik erantzuna emongo deutsut
asteazkeneko Berrian!

U. Iturriaga ♫

Gaia: Ez zer, ez nork, ez zelan, bada beste galdera bat: nola? Nola demontre errimatzen dute Egunkariak eta torturak?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

Berba entzunda bakarrik deukot
nire odola berotzen...
Egunkaria eta tortura
bi berbak hor nabil lotzen:
bata da prensa askatasuna
bestea personak jotzen...
Bi berba horrek ezin errimau
beti dabe poto sortzen
baina epaileek ez dabe inoz
poto egitea zigortzen. (bis)

Torturarentzat errima batzuk
topatu leitekez hemen.
Gainera horretan izan dira bai
hamaika artista nabarmen.
Egunkari bat arrisku bako
tresna sinpletxo bat omen
adierazten dau persona historian
hor zelan jantziz joan den
eta torturak erakusten dau
ze animaliak garen. (bis)

Baina aspaldi dakigu zein den
galdeketetan jokoa
ta ez dakienak izan behar dau
guzurtia edo tontoa.
Guretzat ohiko gauza dogu ja
ez da hor zehar kanpokoa.
Pentsatze hutsak ze gogorra dan
kabroi batzuen potoa...
Jaso dabenai samurtasuna
ein dabenai gorrotoa. (bis)

HERNANI (2008-06-26)

Bertsolariak: U. Agirre, U. Iturriaga, I. Zubeldia, X. Legarreta eta J. Maia.

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

Sanjoan biharamunean urtero egiten duten jaialdia. Jende multzo polita elkartu zen Tiloen plazan bertsolariak entzutera.

M. Lujanbio

Gaia: Aurten Hernaniko jaien hasierako txupinazoa Bertso Eskolak bota du. Zu ere han zinen, beste askoren artean. Zer sentitzen du hernaniar batek halako egoera batean.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Hil da Canovas fuera Canovas*

Hogeita zazpi urte badira
ez da broma ez da burla!
Ordutik hona zenbat lan egin
dun jende askok kalkula!
Talde giroa ta herrigintza
bertso eskolan formula.
Balkoiean zer sentitu gendun
ez degu ahaztuko sekula:
taldean ta ondo eindako lana
herriak eskertu dula.

Zenbait proiektu ta zenbait amets

ajatzen ditu denboak
baina guretzat oaindik kolore
ederra dauka geroak.
Errimaz, doinuz eta euskeraz
bete dauzkagu ahoak
bertso eskolan bat eiten dira
ilusio ta gogoak.
Lehengoei esker gaude gu eta
guri esker hurrengoak.

Proiektu onak hola eiten dira
pixkana eta xuabe
protagonismo nahirik ez eta
kriterio haundien jabe.
Maisu handiak izan ditugu
gure ondoan, gure alde
eta gu ere bide horretan
aurrerako gogoz gaude.
Gaurko plaza’re ez da betetzen
inork lanik egin gabe.



Nafarroako bertsolari txapelketa. Finala.
(Elizondo, 2008-03-15)

Argazkilaria: J.Santesteban

ASTEASU (2008-06-26)

Bertsolariak: S. Lizaso, I. Zubeldia, J. Agirre, J.M. Irazu, A. Agirre eta J. Maia.

Gai-emailea: Erika Lagoma.

San Pedro jaietan ohikoa den jaialdia.

S. Lizaso-J.M. Irazu

Gaia: San Pedro jaiak ospatzen dituzue Asteasun, eta gaur hemen daukagu San Pedro bera: Sebastian. Jexux Mariren bizitza aztertzera etorri da, zeruan sartzeko aukerarik ba ote duen ikusteko.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Kantore berri xarmant batzuek*

J.M. Irazu:
Mutil txintxua bizi osuan
ta lanian berriz maisu.
Baldin norabait juan behar banu
beti etxian abisu.
Nere lan eta penitentziak
San Pedro badakizkizu
monagilo’re izandu nintzan
horrek balio badizu! (bis)

S. Lizaso: Laburra izan zen monagilotzan
lortu zenduen dizdira
ta artxiboan hortxe egon naiz
zure izanai begira:
zu lehen okupa joan zinaden
Larrauldikan Hernanira
baina zeruan leiho guztiak
itxita egoten dira. (bis)

J.M. Irazu: Zeruan ez da leihorik eta
zuk ez hitz egin aldrebes
ate haundi bat erdi-erdian
ta zerorri zera juez.
Bertsolariak golfuan fama
izanagatikan berez
Sebastiani utzi zenion
ta neri zergatikan ez? (bis)

S. Lizaso: Nik azterketak egiten ditut
beti ere kasuz kasu.
Sebastian ez zan hain ona baina
oso gaiztoa zera zu:
ezkondu gabe aita egina
omen zaude zu Irazu
eta gainera semea ere
bataiau gabe daukazu! (bis)

J.M. Irazu: Bai halaxe da gezur haundirik
San Pedro ez dezu aipa
nere bizitzan egingo nuen
horrelakua hamaika!
Fedeak hala agindu eta
propio egin nun nahita
Jesukristo ere ezkondu gabe
ez al zan ba egin aita? (bis)

S. Lizaso: Orain ez zazu hemen atera
alperrikako marmarrik
defenditzeko ez dadukazu
Kristo aipatu beharrik!
Harek zun famak ez zuen izan
noski zuretzat indarrik
Kristo aita ona izan genduen
fededunentzat bakarrik. (bis)

J.M. Irazu: Fededunentzat bai aita ona
baina ni ez naiz izan apaiz.
Zerura sartu nahi nuela ta
zure belaun eta garaiz
giltzik ez dezu ematen eta
atea dago zabalkaitz...
Zerun tokirik ez baldin badet
bueltan lurrera juango naiz. (bis)

S. Lizaso: Amets klaseak izaten dira
beti ere arriskuko
eta zuk egindako ametsak
berak eingo dizu uko.
Nik banekien Jainkoarekin
ez zendula sinistuko.
Hala ta guztiz alperrik zabiltz
berriz ez zera piztuko! (bis)

MUXIKA (2008-07-06)

Bertsolariak: U. Iturriaga, I. Elortza, A. Arzallus eta S. Colina.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Euskararen eguna zela-eta antolaturiko jaialdia. Gorozikako plazan izan zen, arratseko zazpietan.

A. Arzallus-U. Iturriaga

Gaia: Krisialdia dago askoren ahotan, baserritarren ahotan, langileen ahotan, etxekoandreen ahotan, bulegarien ahotan... Hipotekak gora, prezioak gora. Zuek biok Gobernuak bidalitako bi propagandista zarete. Eta zuen egitekoa izango da hemen aurrean daukazuen jendea lasaitzea krisi berba aipatu barik.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Dama askoren engainagarri*

A. Arzallus: Esaten dute larri dagola
ekonomia globala
baina eduki behar genuke
guk ikuspegi zabala.
Ez al dakite ekonomia
txikikeritxo bat dala?
Ta adibidez España aurten
txapeldun izana dala.

U. Iturriaga: Ogia gora arrautzak gora
joan dira beharbada
arroza be garestitu egin da
ta jentearen ikara...
Baina ez ahaztu Euskal Herrian
asko adinduak gara
ta astean behin barau eitea
osasunantzat ona da.

A. Arzallus: Beraz gutxio sar ezazue
karroan eta saskitan
eta nahiz diru asko ez den joaten
berotan eta argitan
nahiz Iberdrola horren garesti
ez omen dagon egitan
arren farolak ez berriz piztu
arratsaldeko zazpitan!

U. Iturriaga: Oin ehun urte denak izan ziran
beste inoren maizterrak
oin Gorozikan be eiten dira
masterrak eta klusterrak.
Zer ardura dau babarik gabe
galtzea asteko uzkerrak?
Ez eizu ahaztu ongizatea
zala Españari eskerrak!

A. Arzallus: Goraipatu beharrekoa da
beraz Españaren marka
ta ez gaitezen gu hori kentzen
hemen hasi atzaparka.
Baina hala ere ohiko gastutan
dirurik ez dedin falta
egizue lan urtean bitan
pinudi batzuk botata.

U. Iturriaga: Desazelerazinoa dago
holan esaten da hemen
zelan jenteak konsumitzeko
ohitura galdu egin dauen.
Baina lasai dana konponduko
dogu guk-eta Bizkaijen!
Autobide bat Muxikara ta
Guggenheima Urdaibaien.



Berritxu Saria 2008.
(Berriatua, 2008-06-27)

Iturria: Altzalei

IRUÑEA (2008-07-08)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, E. Lagoma, U. Alberdi, J. Zelaieta eta J. Soto.

Gai-emailea: Fernando Anbustegi.

Iruñeko San Ferminetan urterokoa den saioa. Garai batean Takoneran egiten zen, gero Media Luna parkera pasa zuten eta aurten atzera Takonera parkera. Eguzkiak bete-betean jotzen zuen aulkiak jarritako lekuan, eta beraz, ez zen inor eseri aulkietan. Ehun eta berrogeita hamar lagun inguru egon ziren itzalean bertsoak entzuten.

A. Arzallus-J. Zelaieta

Gaia: Jendeak erraten du San Ferminetan anitz ligatzen dela, baina zuk, Amets, ez duzu zorterik izan. San Ferminak bukatu, eta desesperatuta egunkarian agertzen diren *Relax* iragarki horietako batera deitu duzu. Hara non Julen zure lagunak hartu duen telefonoa!

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Dama gazte xarmant bat*

A. Arzallus: Irakurri dut hemen
ta ez da itsusia:
metro eta larogei
nolako jauzia!
Rubia ile luzea
oso berezia...
Esaidazu ez dela
gezur bat guzia! (bis)

J. Zelaieta: Ez! ez! ez! egia da
dena sinesteko
leitu duzun gisara
ehun euro konpleto.
Zerbait egin behar nun
sakelak tarteko
jaietan gastatua
rekuperatzeko. (bis)

A. Arzallus: Beraz ibili zara
desastre antzean:
gaupasa tabernan ta
lotan baratzean.
Hain ederra zerala
diozu hitzean
deituko dizut baina
rekuperatzean. (bis)

J. Zelaieta: Ba laguna bazara
ez nazazu mindu
ba deitu zaidazu ba
ez soilik agindu.
Nahiz ta inork ez deitu
ta inork ez agindu
Juliok negozio
ederra egin du![9] (bis)

A. Arzallus Ez Juliok ez dauka
negozio ederrik:
festetan saldu zuen
kondoi bat bakarrik.
Nik neuk erosi nion
ta ez jo adarrik!
Bakarra saldu eta
hura ere alperrik! (bis)

(9) Aurreko bertsoaldietako batean Julio eta Uxue saltzaileak izan ziren; Juliok kondoiak saltzen zituen- ez zuen askorik saldu- eta Uxuek bokatak eta edaria.

J. Zelaieta: Juliok saltzen zituen
hemengo ta hango...
Oraindikan postuan
ez al da egongo?
Bakarra ta alferrik
bainan izan klaro
nerekin hoi alferrik
ez zela izango. (bis)



San Ferminetako saioa..
(Iruñea, 2008-07-08)

Iturria: Nafarroako bertsozale elkartea

LEZAMA (2008-07-13)

Bertsolariak: F. Paia, X. Paya, A. Estiballes eta S. Colina.

Gai-emailea: Xabier Amuriza.

Lezamako Goitioltza auzoko paraje ederra eta eguraldi bikaina lagun, saio umoretsu eta entretenigarriaz gozatzeko aukera izan zuten hara gerturatutako bertsozaleek. Arratsaldeko zapi eta erdietan izan zen, Goitioltza auzoko landetan, berrehun bat entzule aurrean zirela.

S. Colina-X. Paya ♫

Gaia: Zuek zarete auzo honetan lehenengo mutil bikotea ausartu dena erromeria bukatu denean elkarri eskutik helduta harantz joaten.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Agur sagar beltzeran*

S. Colina: Ilargi betea da
dena da itzala
txosnatik haratago
joaten gabiltzala.
Goxoa duzu hitza
goxoa azala
heldu nazazu estu
oain arte bezala
ta jendeak nahi duna
pentsatu dezala!

X. Paya: Sustrai amets hori da
sinesgaitz samarra:
denentzat normala ez
senar ta senarra.
Entzuten ete dozu
guztien marmarra?
Begira adi dago
geure abade zaharra...
Hori da inbidiaz
dagoen bakarra.

S. Colina: Inbidiz jota dago
abade lizuna.
Akaso bihar jarri
lezake isuna...
Pozoi jario dabil
gaztetxo hiztuna.
Hango neskatxa harek
ze begirazuna!
Hori da jende honen
naturaltasuna!

X. Paya: Ta bidea emanaz
geure naturari
bat egingo al dira
Sustrai eta Xabi?
Ni jada gertu nago
ez al da nabari?
Zeu aldiz zagoz geldi
edo eta nagi.
Kontau behar deutsazu
zeure nobiari!

S. Colina: Ni egunero ez naiz
joaten aparte
neskalaguna eta
jendea bitarte.
Denak gaizki esaka
dauzkagu jo ta ke
eta neskalagunak
ene ze aldarte...
Sekulako morboa
ematen didate.

X. Paya: Karakolak ta txirlak
ezin batu saltsan
neska ahaztu egizu
oraingo bengantzan!
Zugaz hasi gura dot
orain gerri dantzan
batu gaitezen hantxe
han atzeko sahatsan!
Neure amama Dolores
hara joaten ei zan.

S. Colina: Bale ba sahatsara
beharko dugu joan
zurekin ados nago
Xabi oraingoan.
Galtza hoiek erantzi
itzazu behingoan
eta etzan zaitea
goxo nere ondoan!
Hau egin behar dugu
Dolores gogoan.

X. Paya: Uste duzu nazela
tonto edo meloia?
Baina nahastu dozuz
behea eta goia.
Ni hor ez naz etzango
ez dozu arrazoia.
Berez tratua da-ta
badaukat sasoia
neuk izan nahi nebala
atzeko bagoia.



UEU bertsolantegia.
(Eibar,2008-07-25)

Argazkilaria: A.Mariskal

ALEGIA (2008-07-17)

Bertsolariak: I. Zubeldia, A.Egaña, A. Barandiaran eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Iker Iriarte.

Herriko jaietan antolaturiko saioa. Zinean izan zen, gaueko hamar eta erdietan hasita. Berrehun entzule inguru, aretoa erabat beterik, eta jendea zutik geratu zen atzealdean. Saio bizia eta ederra egin zuten bertsolariek.

I. Zubeldia-M. Lujanbio

Gaia: Zu, Iker, San Juan izango zara, San Juan Bataiatzailea, gure herriko patroia edo zaindaria; eta zu, Maialen, Karmengo ama. Azkenaldian San Juan haserre dabil, festa guztiak eta ohore guztiak Karmengo amak jasotzen dituelako.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Nere senarrarekin I*

M. Lujanbio: Alegri da hau eta
egon behar da alai
baina gure San Juan hau
beti ohore zai
beti protestan eta
beti gehiago nahi...
Festetan gaude eta
egon zaite lasai! (bis)

I. Zubeldia: Honek Alegri zion
ta ematen dit pena
eskuetatik joanda
daukagu Karmena.
Nola izango da ba
hau patroi zuzena
ondo esaten ez duna
herrian izena? (bis)

M. Lujanbio: Honen jenio txarra
oraindik kupida
autosufizientzia
onena hori da.
Ta zure herritarrei
begira! begira!
zure beharrik gabe
bataiatzen dira! (bis)

I. Zubeldia: Kontua atera zait
aurrekoz atzea
ta Karmen jarri zaigu
deabrun antzea.
Alde hontatik hautza
pasatu al zea?
Pena bakarra daukat:
zu bataiatzea. (bis)

M. Lujanbio: Zentzurik ez daukate
orain lehengo penek
bataioa’re egiten
du ja edozeinek!
Eta San Juan, San Juan’e
San Juan dute denek...
beste elegantzi bat
badauka Karmenek. (bis)

I. Zubeldia: Zertan hainbeste buila
ta hainbeste *engaño*?
Zertan jarriko gera
ergel eta ñaño?
Festak egin litezke
ondo egin joño
San Juanetan hasi ta
Karmenetaraino. (bis)



Bertso jazza.
(Donostia, 2008-07-25)

Argazkilaria: J.Kollastch

OTXANDIO (2008-07-18)

Bertsolariak: I. Ibarra, I. Iturriotz, X. Paya, S. Lizaso eta A. Egaña.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Herriko jaien hasieran antolaturiko jaialdia. Plazan izan zen, ilunabarreko zortzietan, hirurehunen bat entzuleren aurrean. Bertso saioaren aurrerik dantzariek eskaini zuten beren saioa.

X. Paya-A. Egaña-I. Ibarra-I. Iturriotz-S. Lizaso

Gaia: Aspaldi honetako berri harrigarri bana aipatu behar duzue.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zeru altuan zegoen Jaunak*

X. Paya: Xelebrekeri bat esateko
orain sentitzen naz murritz.
Ai! Baina kontu xelebre batzuk
hara eta hona dabiltz:
transexual batek haurra izan du
horrela egin dute hitz.
Harritzekoa izango zen hori
sinestezina ez balitz.

A. Egaña: Diario Vascon letu nun atzo
nun izango zen bestela?
UPVko ikastarotan
bat zurrunkei buruz dela.
Lo ta zurrunkak izan liteke
oso titulo itzela
eta txarrena katedradunak
Roke izena duela.

I. Ibarra: Kirol arloan beti ibili naz
pelota eta palagaz
baina oraingoan atrebitu naz
beste deporte bategaz.
Hau Hitzan baino ez da agertu
baina bota behar dot zast:
nire herriko herri krosean
lehenengo neska izan naz.

I. Iturriotz: Egunkarian leidu ahal dira
benetan gauza handiak:
ama zan baltza ta aitek barriz
kolore oso zuriak
bi ume jaio bi koloretan
ene hain kontu larriak
xake taula bat emongo baitau
aurrerantza familiak!

S. Lizaso: Garai honetan tokatzen zaigu
herriz herri ibiltzea
eta normala ikusten dana
bertso gaiera biltzea.
Normala ez al da gaur Otxandixon
etorri ta harritzea
jaialdi bat lehenegoz jarri ta
hainbeste jende biltzea?

DONOSTIA (2008-07-25)

Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Maia, A. Egaña eta A. Arzallus. Musikariak: Bixente Martinez, Asier Ituarte, Julen Izarra, Hasier Oleaga eta Jon Piris.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Donostiako Jazzaldiaren barnean antolaturiko bertso-jazz jaialdia. Victoria Eugenia antzokian izan zen, gaueko hamarretan. Ikusmin handia sortu zen eta jende ugari hurbildu zen jaialdi berezi hau ikustera.

J. Maia- A. Arzallus-A. Egaña-M. Lujanbio

Gaia: Lau senide. Memento onak pasatu dituzue elkarrekin, baina memento on asko ere galdu dituzue. Badira hogei urte zuen jaiotetxera itzuli ez zaretela. Gaur zaudete bertan, baserriko atarian eserita.

Neurria: Laukoa, berdinaren moldekoa, 2 puntuz
Doinua*: No woman don't cray*

J. Maia: Iritsi ta azkar pasa zait
joandako urteen pena:
atari hau da baserriana
eta zorionarena.

A. Arzallus: Bi anaia ta arreba bat
hemen gaude parez pare.
Jo! Ba ez nintzan hain gaizki bizi
bi hauek ikusi gabe!

A. Egaña: Benga zuek egin zazute
Donostiaraino buelta
terreno ta etxe nereak dira
maiorazgoa naiz eta!

M. Lujanbio: Hemen kantuan bizi ginala
joan dira hogei urte.
Triste gaude ta orain guri
paretek kantatzen dute.

J. Maia: Anai zaharra aldatu denik
ez nuke orain esango.
Sasi zu zera bai baina
ez dezu etxea jango!

A. Arzallus: Garai bateko txoriak ere
ez ditut entzuten aizu
hoiek ere herentziakin
eraman ote dituzu?

A. Egaña: Laurok egin genezakeena
da negozio polita
Jaurlaritzaren diru laguntzaz
museo bat ipinita.

M. Lujanbio: Irriparrez baina hasarre
lau senide faltsuak lau
famili onenetan ere izaten da
gorrotozko maitasun hau.

J. Maia: Garai baten gosaltzen gendun
txorixoa ta taloa
gaur falta da baina badago
berriro txorimaloa.

A. Arzallus: Zuek denak egin zazute

berriro zuengana buelta
ni hementxe geldituko naiz
beti okupa bat naiz eta.

A. Egaña: Luxek gezurra esan duela
ez zegon esan beharrik:
horrek taloa ikusi baitu
kalendaiotan bakarrik.

M. Lujanbio: Gure diru nahien biktima
izango gera gero gu:
hilko gera eta usteldu
ta baserriak iraungo du.

J. Maia: Berriz lehengo kantu zaharra
ez da etorriko gaizki:
galdetzen det gu zenbat ginen
bat, hiru, lau edo zazpi[10].

A. Arzallus: Ba hobeto bizi ginen gu
gu hemen sei ginenean
ta bakea egin dezagun
aita ta aman izenean.

A. Egaña: Hormengatikan ez degu egin
ez negar eta ez malko
Maialenek bai pixka-pixkat bai
emakumea dalako.

M. Lujanbio: Ba, bai negar egin behar det
egingo det beharbada...
Malko gabeko beneno hori
negargarriagoa da!

(10) Musikaren bidez kantu hori jarri zieten gaitzat Egañari eta Maiari aurreko bertsoaldi batean.

ARANO (2008-07-26)

Bertsolariak: I. Lazkano eta J. Agirre.

Santiago jaiak zirela-eta antolaturiko bertso bazkaria. Aranoko Elkartean izan zen, eta hogeita hamarren bat bazkaltiar elkartu ziren. Joxe Agirre eta Imanol Lazkano aurrez aurre izatea beti da gozagarri. Kasu honetan sexuaz aritu ziren, adinak ematen duen pikardia eta lasaitasuna dosi egokietan eskainiz.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Erreguetan ari nintzela*

I. Lazkano: Ume giroan pasatu nuen
gaztedi edo sasoia
ta noizbait gizon eingo ote ginen
gendun gure arrazoia
bainan oraingo bizibide hau
jarri zaigu ia doi-doia.
Azkenerako bihurtua naiz
seme alaben morroia.

J. Agirre: Beraz gaztetan izan zenduen
gizon egiteko plana
ta adinera iritsi ginan
pittin bana, pittin bana
baina gauza bat esango dizut
nere Lazkano laztana:
andreak ez du gizon egiten
berez gizona ez dana.

I. Lazkano: Arrazoi igual izango dezu
baina ez naiz sartuko hortan.
Nik ekin diot gaurko egunez
zer dena esatekotan
gure gisara ikusi ohi det
gaur egun etxe askotan:
haurrak ekartzen dituzte baina
zaharrak hazteko asmotan.

J. Agirre: Bejondaizula lagun zahar maite
gauza hortan ondo zaude!
Oraingo guraso gazteak noski
benetan bizkorrak daude.
Egina nago aspalditxotik
zazpi bilobaren jabe
baina haiek laister juaten dira
aitonaren beharrik gabe.

I. Lazkano: Guk baina askoz urte gehiago
pasa dituzte ikasten
eta noraino helduko diran
guk eskas ta buru hausten...
Nolabait ere zer lezioak
hoiek hartuak dituzten:
txortan bai baina haurrak hazitzen
ia inork ez du ikasten.

J. Agirre: Aizu Lazkano! Pentsatzen nago
aurrera joan ote zean
eta nik ere hitz egingo det
beharbada zure klasean.
Disputa hontan ez leike jardun
hemen denbora luzean:
haurrikan ere ez zan sortuko
txortan asmatu ezean.

I. Lazkano: Nolabait ere etorkizuna
txortatik behar da hasi.
Horretarako dagoenari
zertarako galerazi?
Baina nik nere bertso hauetan
nahi nieke adierazi:
haurrak egin nahi baldin badira
hazitzen ere ikasi.

J. Agirre: Egin ta hazi denak egiten
ez da gauza erosua.
Pixkat mudatu behar det orain
ari degun arazua.
Garai batean ez zan besterik:
dena infernua ta sua...
Nahi ordurako ez gendun probatu
holako gauza gozua!

I. Lazkano: Beraz nik nuen arazo bera
izana zenduen zuk'e.
Zer gaztaroa pasa genduen
sermoi triste batzun truke!
Oraindik ere jesukristonak
hortan egingo nituzke
garai haietan ahorratuak
orain balio balute.

J. Agirre: Baina Lazkano ez du balio
hori geroko uzteak.
Orduko apaiz zahar haiek ziran
gure etsai ta trasteak:
berak neskame bana etxean
ahal baldin bazan gazteak...
Hala're haiek santuak ziran
pekatariak besteak.

I. Lazkano: Eta guk berriz tonto-tontoan
haiek esna sinetsi.
Horregatikan gu ez ginaden
gozatutzera iritsi.
Nere partetik gaurko gazteei
nahi nieke erakutsi:
gaur egin leiken gauza politik
biharko inork ez utzi.

J. Agirre: Guk ere ez gendun gaztetan falta
sasoirikan eta grinik:
nik'e banuen elemento bat
beti errenditu ezinik!
Esaten zidan "Hi tonto horrek
neretzat ez al duk lanik?".
Aspaldi hontan ez da mogitzen
ez det uste bizi danik.

I. Lazkano: Uste det denok jasan degula
Agirrek hainbat pekatu.
Garai bateko amets guziak
zaizkigu korapilatu.
Nahiz eta leheno beti goian zen
sapaia edo teilatu
orduan gorde ezinik eta
oin berriz ezin bilatu.

J. Agirre: Lazkano eta ni ari gera
gauzak garbi hitz eginez
behar baldin bada zenbaiten ustez
aiko gera huts eginez.
Lehengo bertso hortan egia esan du
aitortzen dizutet zinez:
nun dan seguru jakinda ere
hala're bila ezinez.

I. Lazkano: Era hortako aldakuntza asko
eskeintzen baitigu lurrak
beti ez dira arkitu ezin
oso terreno samurrak.
Garai batean luzeegi eta
gaur berriz nahiko laburrak...
Erdi brometan ai gera baina
denak ez dira gezurrak.

Elkar zirikatzen jardun ondoren bazkaltiarrak tentatzen hasi ziren, tortilla lehiaketa irabazi zutenengandik hasita.



Leitzako Jaiak.
(Leitza,2008-08-13)

Argazkilaria: N. Erkiaga

AIA (2008-08-07)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, A. Arzallus, A. Egaña, X. Paya, A. Mendiluze eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Unai Manterola.

Jaietan urtero egiten duten jaialdia. Dema plazan izan zen, gaueko hamaiketan. Ohi bezala, entzule ugari.

A.M. Peñagarikano-A. Arzallus ♫

Gaia: Urteetan haserre egon zarete. Aitonduta, goizero-goizero, parke berean, metro gutxitara dauden banku banatan egoten zarete zuen bilobak zaintzen. Gaur, bi txikiak eskutik helduta datoz, lagunak direla esanez.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Arzallus: Ene! Bilobak eskutik datoz.
Ze polita! Ze sasoia!
Baina alperrik gailenduko da
umetxoen arrazoia.
Nik esan nion “Zure lagunan
aitona hori kabroia!”.
Ja ahaztu zaio apustu hartan
nork kendu zidan milioia.

A.M. Peñagarikano: Urteak azkartxo joan dira
munduan halabeharrez.
Denbora gutxi bizitzeko ta
gu biok jenio txarrez...
Gure ilobak zein adiskide...
ulertzea dago errez.
Hoiek elkarren lagunak dira
ta gu biok zergatik ez?

A. Arzallus: Gure artean zer gertatu zen
garbi kontatu det aurrez:
dirurik gabe utzi ninduzun
zu estali zinen urrez.
Zure galdera erantzungo dut
nere galdera bakarrez:
zergatik dauka zureak paga
eta nereak ezer ez?

A.M. Peñagarikano: Hoi hola bada emango diet
nik bieri euro bana.
Bestela ere ongi konpontzen
badegu-ta aski lana!
Postura horretan ez hitz egin
ene adiskide laztana!
Adiskidetasuna da hemen
diruz ordaintzen ez dana.

A. Arzallus: Milioi bat gendun eta denbora
dijoa hogei urtera.
Hori bankuko interesekin
ai! Zenbat hazi ote da?
Gutxienean lau bat milioi bai
dizkidazunak atera.
Zure pisua emaidazu ta
adiskidetuko gera.

A.M. Peñagarikano: Nik herrian badaukat piso bat
eta beste bat Ibizan.
Gure artean diferentziak
haundiak dira bizitzan
baina umeei erreparatu
zeinen kontentu dabiltzan.
Zu ere izan zaite holakoa
hain eoskorra ez izan!

A. Arzallus: Gainera ni naiz egoskorra ta
zu gizon noblea zera!
Berriz bidali beharko zaitut
aizu haizea hartzera.
Baina lagunak bilobak dira
ta joan bitez parkera.
Ni banijoa ta ordubetera
igo zaidazu etxera.

A.M. Peñagarikano: Hobeto jakin behar zenuke
gure bi biloben berri.
Zu ere ez zera hain aingeru
ni ez naiz hortaino zerri
ta badakizu nola eleizan
gu izaten geran sarri
ta igandero entzuten degu
“Eman pakea alkarri”.

A.M. Peñagarikano-S. Lizaso

Gaia: Ez dakit jakingo duzuen, baina Peña kafe makinak jartzen ibiltzen da lantoki eta toki publikoetan. Lizaso medikua da, entzule asko dituen irratsaio batean hitz egiten duena. Gaur esan du kafea, bereziki makinakoa, txarra dela osasunerako. Peña autoan doa lantegi batera, kafe makina konpontzera. Autoa geratu eta irratira deitu du haserre.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Dama gazte xarmant bat*

A.M. Peñagarikano: Hasarre jarri naiz ni
gaurko albistian.
Irratitik esan ta
entzun Donostian.
Jarri naiz letxe txar ta
hain malaostian...
Ze kristo esan didazu
zuk don Sebastian? (bis)

S. Lizaso: Galdetu didate ta
esan behar nuan.
Nere hitzak zugana
irratitik juan...
Kafe hori txarra da
lehen nion moduan:
makina danak daude
komunan onduan. (bis)

A.M. Peñagarikano: Kafe saltzen daramat
makina bat urte.
Zenbat propiedade
ta zenbat bertute!
Komonaren ondoan
entzun diozute...
Kafe eta komonak
taza behar dute. (bis)

S. Lizaso: Justifikatzen honek
hamaika bertute!
Kafe antzeko zerbait
euro baten truke.
“Kafeak taza behar du”
entzuna dezute...
Plastikozko baso bat
juxtu jartzen dute! (bis)

A.M. Peñagarikano: Alperrik ez det eiten
nere *biajea*:
kafeak du indarra
eta korajea.
Zuk ere badaukazu
halako ajea
hartu bildurrik gabe
Peñaren kafea! (bis)

S. Lizaso: Peñak kafe onikan
ez du aterako
nahiz ta agintzen duen
beti gerorako.
Ur garbia balu’re
ez zun kalterako!
Eta kilo bat kafe
urte guztirako! (bis)

A.M. Peñagarikano: Ez du askorik behar
mediku izateko!
Sastrerekin hitz ein det
hoi dut esateko.
Ziklistak hartzen zuten
lehen nahikoa EPO
eta orain gailetak
ta kafea lepo. (bis)

S. Lizaso: Lehenago ere sarri
gauz hoiek entzunak
zabalduaz kafeak
ditun oihartzunak
baina ez ditu bereizten
Peñaren zentzunak:
kafeinarik ez du
zuk saltzen dezunak. (bis)

A.M. Peñagarikano: Alper-alperrik zabiltz
azalpen hoiekin!
Kafetikan badago
nahikoa etekin.
Laroita hamar urtekin
nik attona Joakin
hark kafea hartzen du
anis ttanttarekin. (bis)

S. Lizaso: Aitona Joakin ta
amona Joakiña
bizitzari kenduaz
beren etekina
bainan zure kafea
ez degu berdina
aitonak hartzen baitu
amonak egina. (bis)



EHU uda ikastaroak
(Donostia, 2008-08-28)

Iturria: EHU

GABIRIA (2008-08-14)

Bertsolariak: A. Mendiluze, U. Alberdi, M. Lujanbio, A. Sarriegi, I. Zubeldia eta J. Soto.

Gai-emailea: Gorka Maiz

Gabiriako jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Gauean izan zen.

A. Mendiluze-U. Alberdi-M. Lujanbio-A. Sarriegi-I. Zubeldia-J. Soto.

Gaia: Duela egun batzuk Berria egunkarian Pako Aristik honako hau idatzi zuen: "Munduan hainbat gerra, gosez hildako, miseria bada, eta gu arazoaren zuztarrak aztertu ordez hostoak ureztatzen ari gara".

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Uso zuri bat inguratu zait I*

A. Mendiluze: Gerrak badira nonahi ta noiznahi
gogoan degu hartua.
Barkatu Pako aztertzen hasi
ta hostotan geratua
bainan sustraien kontua degu
aspalditik ulertua:
sustraia beti patrikan du ta
han ematen du frutua.

U. Alberdi: Hamar hatzekin ezin kontatu
dagon injustizi jasa
eta edonork izan nahi luke
antzemateko kapaza.
Aristirena nahiz egia den
gauza bat dauka eskasa:
sustraia zein dan detektatzea
beti ez dela erraza.

M. Lujanbio: Sustraia zein den detektatzea
herri hau den baratzean
Euskal Herriko aferak igual
sustraiak dauzka atzean.
Iraganean ta hostoei beira
gaude itsutu antzean...
beranduegi izan liteke
hostoak eroritzean.

A. Sarriegi: Euskal Herrian zenbat iritzi,
zenbat uste, zenbat jende,
Batzuek “Hiru” beste batzuk “Lau”
besteek “Zazpi bageunde...”.
Etorkizuna nik oso ondo
ezin ikus alafede
ezin bagera ados ipini
adarrak kontatzen ere!

I. Zubeldia: Sustraiak gora sustraiak behera
hor gabiltza egunero
pakerik ere ezin etorri
hala nahi izan ezkero.
Adarrei ura botatze hori
alperrik da honezkero.
Sustraiei ere zergatik bota
behin ihartu eta gero?

J. Soto: Dena nahi dugu gure etxe kanpo
eta etxe barrenean
ta “Ai ze pena!” Nairobin haur bat
goseak hiltzen denean.
Gose gutxio, gerra gutxio
eongo dira azkenean
gure buruakin daukagun gerra
irabazten dugunean.

A. Mendiluze ♫

Gaia: “Txapela buruan eta ibili munduan” dio esaerak. Horrenbesteko balioa edo babesa al du txapel batek?

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz
Doinua*: Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Aldaketa izan al da
horretaraino sakona?
Hori al da txapelari
beretik dagokiona?
Egia da bai lortzea
ez dela izaten broma
baina zenbat aldatu naiz
ni Ilunbetikan hona?
Agian irriparretan
igertzen zait zoriona
agian plazara joanda
badaukat ezinegona
baina txapela ez da berez
hain haundia ta hain ona
beste hainbeste ez bada
bere azpian dagona.

Janzteko momentuan bai
galtzatan ezin kabitu
ezin beteko nituen
zabalagoak banitu.
Saltoka ez nintzen hasi
baina ez zaitezte larritu
ez nuen egin jenderik
ez zedin nitaz harritu.
Gerora plazara joanda
hamaika gauza aditu...
Badakizue jendeak
maizegi epaitzen gaitu.
Hortan da txapela ona
halaxe zait iruditu:
ate batzuk zabaldu ta
aho batzuk ixten ditu.

Baina ez gaitu bihurtzen
ez izar ta ez jenio
hori ez luke emango
eskatuko bagenio.
Horren azpitik lanean
segi behar da serio
lehengo bide berdinetik
ia ze erremedio!
Nik ez det txapelagatik
aldaketarik desio
ez det amets bihurtuko
ez det nere obsesio.
Txapela berez nork nahi du?
Ez du gehiegi balio.
Txapel bati balioa
denborak ematen dio.

BILBO (2008-08-17)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, S. Colina, A. Arzallus eta A. Egaña.

Gai-emailea: Urtzi Urrutikoetxea.

Santutxuko bertso-eskolak Bilboko Aste Nagusian egunero antolatu ohi dituen jaialdietako bat. Santiago plazan izan zen, 13:00etan.

A.M. Peñagarikano-A. Arzallus

Gaia: Atletak zarete. Urte osoan elkarrekin entrenatu zarete; orain Olinpiadak datoz eta kamiseta desberdinekin hartuko duzue parte: batak Frantziakoarekin eta besteak Espainiakoarekin.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Gure herriko bikariuak*

A.M. Peñagarikano: Kirolaria beti ibiltzen da
izerdia dariola
badakizue horren ordainez
soldatapean dagola.
Irabaztean entzun dezaket
nik himnoa española.
Eun bategatik hala izateak
ez dit batere ajola.

A. Arzallus: Ba neretzako postu onena
litzateke laugarrena
ze Marsellesa aditu behar
horrek ematen dit pena.
Eta Sarkozyk ere eskua
luzatuko dit hurrena
ta Carla Brunik gero bi muxu
Tira! Hori da onena.

A.M. Peñagarikano: Ta neri berriz mutil haundi bat
esku ematen berehala
iruditzen zait izango dala
ridikulo mundiala.
Gero entzungo det "Español zikin
lapur edo anormala".
Kobratu eingo det eta nahi dunak
nahi duna esan dezala!

A. Arzallus: Baina etxean nere etxean
emango didate leña
ta egia esan hori ez da ba
nik bilatzen nuen heina.
Kazetariak zuk garaitzean
baietz gogotik enpeña!
Marcan titular jarriko dute
"¡Mira que grande es Peña!"

A.M. Peñagarikano: Titularretan *"¡Que grande Peña!"*
ta argazkia atzean
ta esamesa ugari berriz
une hortara heltzean
baina badakit ze berba izan
nere mingainan ertzean
ta ikurrina eramango det
baina nere bihotzean.

A. Arzallus: Ai ene Peña! Zai zenbat jendek
eman behar dizun muxu
ta ikurrina ta holakoak
zuk barrurako dituzu.
Baina engaino bat ez al da hori?
Kargu hartzen dizut aizu!
Hain bihotzean baldin baduzu
agerian behar duzu.

A.M. Peñagarikano

Gaia: Anjel Marik Bertsozale Elkartearen azken buletinean zutabe bat idatzi zuen bertsotan ibili den urteotan gertatu zaizkion bitxikeriez eta anekdotez. Santiago plazaren bueltan ere entzun ditugu hainbat kontu. Zer esaten dizute herri txikietan Bilbora bertsotara etortzeaz eta abarrez? Kontatu anekdota batzuk.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Mundu honetan holako gauzak*

Bilbon kantatu nuen behin baten
ez dut oroitzen egunik.
Gero galdera egin zidaten
nere herrira joanik:
“Nundikan hator?” Ta nik “Bilbotik”
egi osoa izanik.
Egia esan ez nun espero
nik halako erantzunik:
“Zer esaten dek? Bilbon kantari?
Han ba al dago euskaldunik?”.

Beste batean telefonotik
nituen nobedadeak
herri hartako gazteak nunbait
hain ziran lotsagabeak.
Bertsolariak nahi zituela
herri hartako jendeak
eta baldintza ipini zidan
neri festa batzordeak:
bertsolariak lau izatea
belarritako gabeak.

Gazte nintzala han joan nintzan
behin herri txiki batera
nonbait Basarrik ibiltzen zuen
euskaldunaren jazkera.
Bi emakume hurbildu ziran
eta ipini harrera.
Haitako batek hala esan zidan
begira goitik behera:
“Galtza bakero zapatilekin...
zu bertsolaria ez zera!”.

BILBO (2008-08-22)

Bertsolariak: A. Sarriegi, J. Martin, A. Agirre eta I. Ibarra.

Gai-emailea: Arkaitz Estiballes.

Bilboko Aste Nagusian egunero izaten diren saioetako bat. Santiago plazan, eguerdian, ehun eta berrogeita hamar bat entzule, gehienak aterkipean, euria zarra-zarra egin zuen-eta.

J. Martin-A. Agirre-I. Ibarra ♫

Gaia: Hemen dauzkagu Bilboko neska gazte bi, egunero-egunero txosnetan ibiltzen direnak. Hau, ordea, Bilbora urtean behin etortzen da, El Fandi toreroa. Urtero-urtero etortzen da, Ercilla hotelean egoten da, eta zezenketa egin ondoren, hara erretiratu izan da. Baina aurten erabaki du txosnetan zer giro dagoen ikustea. Han elkartu da txosna batean, oraindik ere toreroz jantzita, Amaia eta Iratxerekin. Biengana hurbildu eta esan die "¡Que guapá que etaid quilla!". Amaiak toreroa dela uste du; Iratxek, aldiz, despedida de soltero horietako batean dabilela.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Kantatzera nijoa*

A. Agirre: “Aupa! *¿Que tal chiquillas?”*
lehenengo kolpea
baina hobe izango du
geldi egotea!
Ustez famoso baina
mutil arlotea
neretzat ez da aski
zure kapotea! (bis)

I. Ibarra: Despedidaren baten
dabil antza bapo
eta hurreratu da
adar jotzerako.
Torero traza dauka
lerden eta guapo
baina gu ez gaitu hain
erraz toreauko! (bis)

J. Martin: Hurbilduko zinake
emeki-emeki
benetan banaizela
baldin bazeneki.
Baina toreroentzat
gauero ederki
soltero despedida
izaten da beti. (bis)

A. Agirre: Hau broma bat ote dan
nahiko nuke jakin
guri erdera garbian
ekin eta ekin!
Zezenaren aurrean
omen zabiltza fin...
Baina nola jardungo’a
ahuntz bixar horrekin? (bis)

I. Ibarra: Batzuk toreauko dauz
honek errez-errez
berbarako gaitasun
nahiko dauka berez.
Baina bat birentzako
gitxi izan leikenez
zure koadrilakoak
aurkeztu gitxinez! (bis)

J. Martin: Iratxe egin zazu
mila zati mila
kopuru hortakoa
da nere koadrila.
Ta ez zera egongo
zu horren isila
probatzen dezunean
nere banderila. (bis)

A. Agirre: Ligatzeko bota behar
dezu izerdia.
Iratxerekin nahi du
hau da miseria!
Banderila eskasa
hori da egia
atera hanka tartean
dezun galtzerdia! (bis)

I. Ibarra: Beraz hortik doaz gaur
mutil honen kezkak
banderila eskatzen
barruko orkestak.
Beste zeozer eskatzen
deusku guri festak:
ezpaten bila dabiz
txosnetako neskak. (bis)

J. Martin: Ez, ez da galtzerdia
ezin dut atera
traje de luces hauek
estu eta zera...
Poltsiko gabe egiten
dituzte gainera
eta nunbait'e sartu
behar dut kartera. (bis)

A. Agirre: Joño! Joño! Beraz da
dezuna kartera
ikusteko ez degu
eskura aukera
baina ez zaitez joan
keba, keba, keba!
Sartu eskua eta
pote bat atera! (bis)

I. Ibarra: Beraz kartera dozu
hor jarrita txarto
soluzino txiki bat
daukat horrentzako:
pasau geuri kartera
dana geuretzako
propina ona izango da
gure kajarako! (bis)

J. Martin: Dirua behintzat sobran
dugu toreroek
eta zuen potea
pagatu dezaket.
Nazka ematen didate
kartera gogorrek
sartu eskua eta
atera zerorrek! (bis)

ATAUN (2008-08-30)

Bertsolariak: A. Barandiaran, E. Lagoma, U. Alberdi, A. Arzallus, A. Egaña eta A. Mendiluze.

Gai-jartzailea: Talde bat.
Gai-emailea: Jon Lasa.

San Gregorio auzoko Jai Batzordeak antolaturiko jaialdia. Gaueko hamaiketan izan zen, pilotalekuan. Jende asko elkartu zen bertsoak entzutera.

A. Barandiaran-A.Egaña

Gaia: Duela hilabete batzuk Aitzolen baserriaren ondoan eraikitako ehun milioiko txalet batean bizi zara, Andoni. Gaur, Aitzolek bere baratzean tomateak lapurtzen ikusi zaitu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Dama gazte xarmant bat*

A. Barandiaran: Ondo ezagutzen det
horroko kopeta!
Baratzara sartu zait
indarrez beteta.
Mekaguen la letxe
kaguen la puñeta!
Martitxu esnau eta
ekarri eskupeta! (bis)

A. Egaña: Ehun milioi eskeiniak
nere txaletari.
Tomateak nahi nitun
orain bat edo bi.
Aitzol haserrealdian
ez zaitez erori
ona gustatzen zaidan
seinale da hori. (bis)

A. Barandiaran: Haseratik honekin
ni ez nintzen fio
ta harrapatu zaitut
ene Antonio.
Enpresan zu lapurtzen
zabiltza serio
baina horrek Ataunen
ez dizu balio. (bis)

A. Egaña: Enpresako kontuak
hobe degu laga
CAFen izaten ditut
majina bat karga!
Maritxu esan dezu
jatorra da hara!
Eta txakurra berriz
txikiegia da. (bis)

A. Barandiaran: Txakur txikia baina
ari da hazitzen
lapurrak harrapatzen
ez baita ibiltzen.
Andoni aberastu
poltsikoa gizen...
Mario Conde ere
horrela hasi zen. (bis)

A. Egaña: Tira egiten zidan
ondoko baratzak:
tomateak zeuzkaten
ederrak ta latzak.
Orain hartuak dizkit
Mario Conden antzak...
Gominaik ba al daukazu
nire ileantzat? (bis)

A. Barandiaran: Azkar asko pasa du
baserriko langa.
Maritxu hor zegoen
pakean etzanda.
Nahiz eta harrapatu
lapurretan danba!
Gorritu den bakarra
tomatea izan da. (bis)

A. Egaña: Hesola eskuan hartu
ta hurbildu di-da!
Baina haserraldia
joan zaio tira!
Lehen eskura nuena
oraintxe saskira
bota lau-bost tomate
gorritu badira. (bis)

AIZARNAZABAL (2008-09-20)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, S. Lizaso eta I. Zubeldia.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Sanmigel jaiak zirela-eta Adiskide bertso eskolak antolaturiko jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gauean, eta entzule asko.

A. Egaña-S. Lizaso

Gaia: Elkarrizketa arraro bat egingo dugu orain; beraz, presta zaitezte. Hemen daukagu San Migel santua, Lizaso, eta San Migel botila, Egaña.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nere gogoa hegan dijoa*

A. Egaña: Diferenteak gera gu biok
garbi geratu dadila!
Garai batean santu zu zinen
fededunen *marabilla*
baina garaiak aldatu dira
nagusitu da botila:
zuk aldare bat bakarra dezu
ta nik mostradore pila.

S. Lizaso: Azken boladan nahiz aldakuntzak
ikusten diran nabarmen,
Aizu botila! Zuk ez daukazu
santuak hainbeste kemen.
Horren lekuko zenbait igande
edota zenbait astelehen:
askok nerekin sinesten dute
zurekin ase ondoren.

A. Egaña: Bat burumakur etortzen bada
alaitu leike zeharo
isila ere botilai esker
hiztun bihurtzen da klaro
benetan alai ipintzen det nik
triste zegona lehenago...
Nik milagroak egiten dakit
santuak baino gehiago.

S. Lizaso: Zure milagro bakarra degu
pixa-larri behartua
nolabait ere bota behar da
botilatikan hartua.
Aizernazabalen gaude eta
proposa zazu tratua:
bat kentzekotan nor kentzen duten
botila edo santua.

A. Egaña: Botila eta santuak biok
behar genuke hitz egin.
Azkenerako konpainia hau
bilakatu zait atsegin.
Herri honetan festa egiten da
gugatikan ta hau jakin:
zure omenez egiten dute
ta nere laguntzarekin.

S. Lizaso: Fedea dena galdu zen eta
tragoak hartu indarra.
Ez ote dago gauzak lehenera
noizbait itzuli beharra?
Aldaretikan begira nago
ta hau da martxa kaxkarra
Sanmigeletan San Migel baita
edaten ez dun bakarra.



Arabako Bertsolari Txapelketa
(Gasteiz, 2008-04-05)

Iturria: E. Sanz

USURBIL (2008-09-26)

Bertsolariak: X. Amuriza eta J. Agirre.

Gai-emailea: Iñaki Agirresarobe *Tola*.

Usurbileko Olarrondo jatetxean egindako bertso afaria. Berrogeita hamar bat lagun elkartu ziren, eta denak adi-adi egon ziren saioa entzuten. Hasieran bertsolariak librean aritu ziren, batik bat elkarri zirika, eta ondoren gai-emailearen esanetara. Lehenbiziko jardunaren zati bat jaso dugu hemen.

X. Amuriza, J.Agirre

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

X. Amuriza: Gu biok ere badugu hemen
noski zeintxobait edade
igual denetan zaharrenak gara
biok Joxe duda gabe.
Gazteak ere ikusten ditut
mahai hortan alderik alde
ez dute asko behar gurekin
dibertitzeko badaude!

J. Agirre: Txaloa jotzen hasiak daude
albotik eta aurretik
ta entzuleak dauzkagu hemen
gainera oso hurretik.
Bertsolai zaharrak behar baziran
ni osatzen naiz zaharretik
bertsoak ere izango dira
onetik eta txarretik.

X. Amuriza: Onetik eta txarretik ere
dena izan litekeela
baina, ai Joxe! ezagutzen det
nik ondo zure *nibela*.
Asko pozten naiz ikustean zu
gizon freskoa zaudela
ez dut esango lore bat baina
bai frutu on bat bezela.

J. Agirre: Hamaika esan ta entzun egin det
bateko eta besteko
ez dakit zer motibo zenduan
hoiek esaten hasteko.
Ni edozer moduz engainatzerik
zuk ez duzu ba usteko?
Nik gauza gutxi behar det orain
berotzeko ta hozteko.

X. Amuriza: Hozberoaren tenperatura
zuk ondo har dezakezu
hainbeste urtean zabaldu dezu
munduan hainbeste mezu.
Ia larogei urte gainean
berdin, langile zaude zu.
Martxa horretan Barandiaran
ere pasa behar dezu.

J. Agirre: Senti bezela hitz egingo'izut
ni ez naiz hasiko tranpan!
Hontaz aurrera izango degu
zerbait buru edo hankan
urteak dauzkat pilo galanta
eta gauza onak bakan...
Sinistu zazu oraintxe nabil
ia azkenengo txanpan.

X. Amuriza: Hitz serioak ziran horiek
utzi mesedez aparte!
Baina hala ere aitortzen dizut
badituzu hainbat urte
ta ez zaitea gaur ikaratu
azken txanpa hori bitarte
gutxienean iraun ezazu
saio hau bukatu arte!

J. Agirre: Ez zazula uste daukadanikan
golpez hiltzeko antsirik
ta esan dezun arrazoi horrek
bai al dauka garrantzirik?
Hemen gizonak egonak arren
sasoi betean jantzirik
bizi dan batek sekula santan
ez dauka segurantzirik.

Bide horretan luze ibili ziren, eta Amuriza apaiz izan zeneko garaiak ekarri zituzten gogora.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Txoriak eta txoriburuak*

X. Amuriza: Apaiz kontuak berriro ere
atera dira argira
ni ari nintzen Joxe Agirreren
bizimoduan harira:
gizona gordin ta argi dago
bestela berai begira.
Nik uste zure dietetikan
bizioak falta dira. (bis)

J. Agirre: Neri aspaldi joan zitzaizkidan
bizioaren afanak
hoiek dirade berak etorri
ta berak juaten diranak.
Egia esan galduak dauzkat
beste gainontzeko danak
tentsiua ta intentziua
dira ondo dauzkadanak. (bis)

X. Amuriza: Apaiz kontuak lehen ipini nau
berriz otoizka elizan
baina une hartan Agirrerekin
solasean ari nintzan.
Tentsioa ta intentzioa
dabiltz elkarren gerizan
Sintrona martxan dabilen arte
ez horren beldurrik izan! (bis)

J. Agirre: Ni naiz benetan ezjakina ta
zu oso asko dakizuna
bainan oraintxe esan nahi dizut
ondo merezi dezuna:
ez dakit nola betetzen dezun
etxeko eginkizuna.
Hau da gizon bat Jainkua saldu
ta andrea erosi zuna. (bis)

X. Amuriza: Ezingo dut ba hori ukatu
gertatu baitzen horrela
badakizue apaiz gogoak
dirudiela orbela.
Jainkoa saldu andrea hartu
zuk esan duzun bezela...
Esazu orain kapaz bazera
tratu txarra egin nuela! (bis)



Bertsozale Elkartearegn egoitza berriaren inaugurazioa.
(Villabona, 2008-10-16)

Arg. Alberto Elosegi

URNIETA (2008-09-27)

Bertsolariak: U. Alberdi, B. Gaztelumendi, J. Maia, A. Egaña.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Urnietako Sanmieletako jaialdia. Gauean izan zen, Sarobe aretoa guztiz beterik zela.

B. Gaztelumendi-A. Egaña-U. Alberdi-J. Maia

Gaia: Urnietako jaietan, aurten, odol-emaileak omenduko dituzte. Zuek laurok odola ematera joan zarete, eta odola ematen ari zarete une honetan.

Neurria: Lauko handia
Doinua*: Kontu barri bat suzedidu da II*

B. Gaztelumendi: Nere onduan nolako poltsa
jarri duten alajaina!
Nere zainetan ez da egongo
hori betetzeko aina!

A. Egaña: Nere odola hartzen duena
bildurtu liteke errez:
maiz positibo eman behar du
nahiz eta berak edan ez.

U. Alberdi: Neri orratza sartu didate
baina ez da irteten bela!
Zerbaitegatik dio amonak
xinxangre hutsa naizela!

J. Maia: Bai ba nik asko dadukat baina
ez da izango hobea
susmagarria ez al da daukan
kalimotxo kolorea?

B. Gaztelumendi: Ohartzerako sartu didate
neri orratza barrena
dena *borroso* ikusten ai naiz
eta ez da festarena.

A. Egaña: Erizain batek zera esan dit
espero nuen antzera:
“Bokadiloa hartu zak eta
Egaña joan hai etxera!”

U. Alberdi: Nik ipuinetan ez nun sinisten
baina hau ezuste itzela!
Konturatu naiz Andoni Egañak
odol urdina duela.

J. Maia: Gai hau ta beste lehengo gai batek
lotura dute honela:
positiboa eman zulako
galdu zun honek txapela.

B.Gaztelumendi: Positiboa eman edo ez
hurbildu natzaio garaiz.
Zure odola hartu ezkero
txapelduna izango naiz.

A. Egaña: Ezkerretako kamilla hortan
etzanda Jon Maia daukat
ta belarrira xuxurlatu dit
“Emaiak nei ere pixkat!”.

U. Alberdi: Nere erizainak ez du asmatzen
itxuraz dago urduri.
Barkatu baina nere besoak
koladorea dirudi.

J. Maia: Mikroskopioaz fijatu gera
honen globuluen trazan:
denek zeukaten txapel bana ta
bat behintzat burusoila zan.

B. Gaztelumendi: Hola egin ta egin ari naiz
ta ze txuri alafede!
Ia indarrik ez zait gelditzen
firma botatzeko ere!

A. Egaña: Konduzitzeko moxkorra naiz ni
ta odol emateko txarra
akaso kendu eingo didate
nedukan karnet bakarra!

U. Alberdi: Irtendakoan hiru hauei
botako diet epela
neu bakarrikan portatu bainaiz
hemen gizona bezela!

J. Maia: Jaietan eta plaza erdian
izan da kontu hau dena
ta azkenean hau bihurtu da
aktorik *festivo*ena.

OÑATI (2008-10-03)

Bertsolariak: J.M. Irazu, J. Agirre, I. Zubeldia, X. Paya, B. Gaztelumendi eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Sanmigeletan urtero antolatzen duten jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan, Zubikoa kiroldegian, ohi bezala entzule asko. Bi orduko jarduna egin zuten; giroa lehertzeko moduko bertsoaldirik ez zen izan, baina bertsoaldi txukunak eta biziak ugari. Saioaren hasieran, Bertso Eskolaren 25. urteurrena ospatzen zutela-eta, atzean eserita zeuden bitartean bertsolariei bertso bana idazteko eskatu zien gai-emaileak, kopiak egin eta irteeran entzuleei oparitzeko.

B. Gaztelumendi-J. Agirre

Gaia: Beñat eta Joxeren arteko adin diferentzia ez da izango plazan aurkitu dezakegun handiena, baina bai handienetakoa: 55-60 urte inguruko aldea izango dute. Elkarri begiratu eta izango duzue elkarren inbidiaren bat, ezta?

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zeru altuan zegoen jaunak*

B. Gaztelumendi: Dirudienez hau omen degu
gai on bat jartzeko era
ta konparatzen hasi beharko
badegu-eta aukera.
Ximurren batzuk eduki arren
gazte dezu izakera
zure begitan ikusten baitet
nere ilusio bera.

J. Agirre: Nahiko dotore eman dezu zuk
zeure esplikazioa
zaharran ondoan azaldu dezu
nahiko edukazioa.
Urteetan gora juan naizela
hau da nere azioa
zure adina edukitzea
hau da nere desioa.

B. Gaztelumendi: Baino hogei urte zenitunetik
aurrera joan da bizia
nik ez dakidan hamaika gauza
hola dezu ikasia.
Zaharra zaudela esanez nahiz ta
bertsoa dezun hasia
nik ere pozik hartuko nuke
zuk daukazun malizia!

J. Agirre: Malizitikan ni bezin ondo
ez ote zaude jantzia?
Askoz gehiago dakizula zuk
badaukat segurantzia.
Eskola ere oso gazterik
nola nuen nik utzia
gutxi ikasita ahaztu egin zait
ikasi nuen gutxia.

B. Gaztelumendi: Baino alperrik umildadean
ezin zera hasi tira!
Zuk bizitzaren eskolan asko
ikasi dezu guztira.
Gure aurreko publikoa're
adi daukazu begira
nik zure adina dedanerako
aspertu egingo dira.

J. Agirre: Hau da gazteak aldamenetik
ilea ondo hartzea!
Komeni da hemen gauza guztiak
beren tokian jartzea.
Nahiko milagro gertatzen da bai
ni zuekin elkartzea
neu're harrituta gelditutzen naiz
nerekin ez aspertzea.

B. Gaztelumendi: Zuk kontrakoa esanda ere
txalotan dago egia
eta guztiak daude gustora
zuzenduz gero begia.
Mikro aurrera harro azaldu
dezakegu aurpegia
baldin ikasten baldin badegu
dakizunaren erdia.

J. Agirre: Lehen esan dizut ahaztu zaidala
lehen ikasia gutxi-ta
hontaz aurrera ibili behar
inora ezin iritsita.
Ez det esango juango naizenik
denak pozikan utzita
baina seguru alde egingo det
dedana erakutsita.

B. Gaztelumendi

Gaia: Semearen ikastetxean ezohiko bilera duzu gaur. Zu eta zure emaztea alde batetik, irakasle mordo bat bestetik. Gaurko bileran zure semearen kasua aztertuko dute.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Aita izena kanta beharrak*

Lagunik eza ez da izaten
ume batentzat ukendu.
Hiperaktibo daukat semea
ezin omen da zuzendu
ezin omen du aprobatu ta
ezin arreta mantendu.
Ze errexa den eskolan bronka
ta gero burutik kendu!
Baina seme bat maite duenak
berak aina sufritzen du. (bis)

Gu izan ginen gatazka hontaz
ohartu ginen lehenak
ikusi ondoren kendu zitula
lagunen argazki denak.
Ezin ditzaket entzun ordea
irakasleen ordenak.
Esaten dute soluzio bat
behar duela problemak
ohartu gabe eurak direla
arazo bat daukatenak. (bis)

Bere errua ez da besteek
egiten badute burla
adierazten du-eta soilik
hezkuntza arazo mardula.
Etxean bere gelara joan ta
zer esan ondo kalkula.
Hala esan diot nahiz ta malkorik
ezin nuen disimula:
“Jakin ezazu aita ta ama
oso harro dauzkazula”. (bis)

GASTEIZ (2008-10-09)

Bertsolariak: U. Iturriaga, E. Lekue, J. Barberena, M. Agirre, M. Artetxe eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Irati Mendiguren.

Arabako Bertsozale Elkarteak antolaturiko saioa. Beñat Etxepare aretoan izan zen, ilunabarreko zortzietan, ehunen bat lagunen aurrean.

B. Gaztelumendi-M. Agirre

Gaia: Astero bezala, amonari ogia eta mermelada eramatera joan da Beñat, Txanogorritxu. Etxera heldu da, atea ireki du, baina ohean ez du ez amona eta ez otsoa ikusi, Manex, Popeye, baizik.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Dama gazte xarmant bat*

B. Gaztelumendi: Amona beti gaixo
eta beti kexu
ta gaur a ze sorpresa
sinets dezakezu!
Ze besoak! Nahikoa
indartsu zaude zu...
amonak baino ogi
gehiago jan dezu! (bis)

M. Agirre: Dotore nagoela
ez al da nabari?
Beso potoloak ta
burua dut argi.
Ez begiratu honi
begiratu neri
esan zerbait polita
marineruari! (bis)

B. Gaztelumendi: Marinerua nahiko
dotore hor zaude
ni saski eta guzti
ez nentorren grabe.
Zuk ere badaukazu
nahiko abilidade:
ogia jaten dezu
pipa utzi gabe. (bis)

M. Agirre: Espinakak jateko
nik pipa utzi ohi dut
hortan fijatzeko ere
aukera duzu zuk.
Maitatzen zaitudala
demostrau nahi dizut:
espinakak utzi ta
zu probau nahi zaitut. (bis)

B. Gaztelumendi: Otsoa bezelaxe
beti haragira
baino zuk andregai bat
badaukazu tira!
Eta kanpoko oihu
horiek zer dira?
Olivia laguntza
eskatzen ari da. (bis)

M. Agirre: Agian komeni zait
bera salbatzea
baina ez nahiago dut
zu zeu probatzea.
Hobe da Olivia
pakean uztea
askoz nahiago dut zu
aliviatzea. (bis)

B. Gaztelumendi: Beraz egin nahi dezu
buelta eta buelta
Oliviaz aspertu
baitzera tarteka
baino ez zaitut gustoko
ez jarri erreta
otsoakin ezkondu
berria naiz eta! (bis)

M. Agirre: Otsoa probau duzu
nik zu zeu bezela
Txanogorritxo ez izan
halako krudela!
Utz dezagun guztia
horrelaxe bela
ta ez ahaztu dena
ipuin on bat zela. (bis)

E. Lekue

Gaia: Data bat emango dizut: urriaren 25a.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Hamaika aldiz daukazu lehendik*

Hasieran zen Estrasburgora
abiatzea bueltaka.
Gero apaldu egin zitzaien
hasierako zarata:
Gernikan hasi ta Gasteizera
errepideetako lata
ta azkenean egingo dute
pailazokeri galanta!

Erakutsi nahi izango zuten
barruan duten indarra.
Nik neuk jadanik ez dait zer egin
barrea edo negarra.
Nire ustez dute denek etxera
erretiratu beharra
horixe bada euren buruan
daukaten gauza bakarra.

Dirudienez denok ez dugu
behar beste kategori.
Konsulta gora konsulta behera
ai ene zenbat histori!
Egia esan zalantzik ez dut
nik argi dut kontu hori:
nik galdetzea ondo ikusten dut
baina beti ta denori.

DURANGO (2008-10-17)

Bertsolariak: I. Elortza, A. Mendiluze, A. Egaña eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Unai Iturriaga.

San Fausto jaietan, azken urteotan, ohikoa den jaialdia. Udalak eta Euskara Elkarteak antolatzen dute. Gaueko hamar eta erdietan izan zen, San Agustin aretoan. Berrehun entzule inguru, eta saio polita.

I. Elortza-A. Mendiluze

Gaia: Igor amama, Aitor iloba. Amamak ez du etxean inoiz gerrari buruzko konturik aipatu. Durangon, datorren astean, Durango 1936 Elkarteak antolatuta omenaldia egingo dieten gerran faxistek hil eta zauritu zituztenei. Eta orain, amamak egunero eskatzen dizu, mesedez, hara eramateko.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Lagundurikan danoi I*

A. Mendiluze: Urteetan ta urteetan
galdezka jo ta su
amona barrenean
zuk zer daramazu?
Ta zu erantzun gabe
kontatzeko izu
urte luzeetan mutu
mantendu zera zu
ta orain hitzik gabe
erantzun didazu.

I. Elortza: Beraz nik bape berba
barik zuri erantzun.
Ai iloba gaztea
zenbat buru dozun!
Ondino hainbat gauza
behar dozu entzun
eta ia gero zer
iruditzen jatzun:
esan ezin dodana
nahi dot entzun daizun.

A. Mendiluze: Memoriak hitzetan
dauka bere muga
baina orain erantzun bat
irudi modura
eta zuri distira
begi ingurura.
Haurtzaroko irudiak
datozkit burura:
aitona al zen argazki
zaharretako hura?

I. Elortza: Ez zan zure aitita
neure anaia zen
baina bardin-bardin da
nago ni pentsatzen.
Baina zelan hitzak zeuk
aitatu dozuzen
horixe jakin daizun
gura dot hain zuzen
amaman haurtzaroa
noz joan zan amaitzen.

A. Mendiluze: Agian zoriontsu
zinen aurrenean
gerra etorri arte
bere txarrenean.
Gertatu zena hemen
gertatu zenean
haurtzaroa lapurtu
zuri azkenean
eta zer gelditu zen
zure barrenean?

I. Elortza: Galdera ez da errez
erantzutekoa:
berrogei urte gerrai
emonaz lepoa
beste hogeta hamar eta
gogoratzekoa
ta esperantza bat da
hor barrenekoa
zuk zeozer hobea
ezagutzekoa.

A. Mendiluze: Urteetan horixe zen
zuen ahalegina
ojala gu hobeto
biziko bagina!
Beti gogoan joan zen
denbora gordina.
Beraz arren barkatu
nahi gabe egina
mingarri bazitzaizun
nere jakin-mina.

I. Elortza: Pozgarria da hori
ta ez esan, barka!
Baina bakarrik kontau
ahal neban zeharka.
Han izango da oroimen
bertso eta kanta
horrek ezagutzea
baino ez dozu falta
zeu ere gerra horren
iloba zara-ta.

A. Mendiluze-A. Egaña

Gaia: Aitor, zu, umezurtza zinen. Kontua da bizitza ez zaizula batere txarto joan. Egia esan, gaur, aberatsa zara, oso aberatsa, lar aberatsa. Gaur, zure zerbitzari Sebastianek gizon hau ekarri dizu bulegora; zure anaia bikotxa dela dio.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

A. Egaña: Argi ta garbi hona bisita
berri onentzat zioa.
Orain artean bakarra nintzen
a ze madarikazioa!
Azkenerako bete egin da
nere barne desioa.
Kaixo anaia besarkada bat
hau da hau emozioa!

A. Mendiluze: Ze besarkada! Ze emozio!
Ze begiekin jatea!
Nahi zenukeena: posible balitz
zeozer eramatea.
Bai al dakizu ze pozgarria
zaidan anaia maitea
aste honetan hamalau anai
ezagutu izatea?

A. Egaña: Ze mesfidati azaldu zeran
errezelo ta susmoa
ilerik eza aipatze hori
ez nuen nere asmoa.
Zure aurrean ispilutxo bat
orain ipintzera noa...
Hamabosgarren pretendienteak
horrek lortu du plenoa!

A. Mendiluze: Ze pretendiente eta ze pleno
zertan hainbeste istori?
Nik bezelaxe daukazulako
ile bakar bat edo bi.
Ze ajola du baldin bazaigu
bioi ilea erori?
Horrena ez da gene kontua
degeneratzea da hori.

A. Egaña: Era hortako zorakeririk
anaia ez zazu kanta!
Dudarik bat'e sortzen ez duna
ez ote da gure planta?
Parenteskorik ez gero uka
gu bi ur tanta gera-ta!
Nahio badezu ni pattar ttantta
ta zu berriz whiski ttantta.

A. Mendiluze: Egia, bale! Onartzen dizut
zera antzeko xamarra.
Lehen esan dizut: hala ere ez zera
daukadan anai bakarra.
Zeure burua zeuk saldu dezu
daukat aitortu beharra
ez direlako ondo ezkontzen
whiskia eta pattarra.

A. Egaña: Aizu anaia bene-benetan
elkarren anaiak gara.
Hala're pelma ez det izan nahi
pakean nahi zaitut laga.
Txeke txiki bat egin zaidazu
eta joango naiz hara!
Eta zifrarik ez zazu jarri
sinadura nahikoa da.

A. Mendiluze: Ez zera oso originala
berdina entzun det sarri
baina pertsonak lagundu egin
behar diogu elkarri.
Nola uko egin txekea emanda
zifrak ez jartzeko horri?
Koma jarriko det ezkerrean
eta zifrak zuk zeuk jarri.

A. Egaña: Dirudienez jefazo hori
benetan xuhurra da-eta...
Txekea ez bada emaizkidazu
eraztuna ta txaketa.
Originala ez omen naiz ni
eta belztu dit kopeta.
Originala nola izango naiz
zure bixkia naiz-eta!

A. Mendiluze: Bixkia nola bistan badago
bitan zerala zaharrena?
Hobe kalera joaten bazera
imitatzaile txarrena!
Beste hogei bat egongo dira
zai, pasilloan barrena.
Ene Xebastian bihotzekoa
deitu hamaseigarrena!



Xalbador Eguna.
(Urepele, 2008-10-26)

Argazkilaria: N. Erkiaga

UREPELE (2008-10-26)

Bertsolariak: T. Ezponda, J. Enbeita, A. Egaña eta U. Alberdi.

Gai-emailea: Joxe Mari Iriondo.

Deiadarra Elkarteak *Xalbador*ren omenez antolaturiko asteburua, aurten *Xabaldor eta orain ehun urteko Urepele*. Goizean, mezaren ostean, Xalbadorren bertsoak kantatu zituen Erramun Martikorenak haren hilobiaren aurrean. Berrehun bazkaltiar inguru elkartu ziren, eta bazkalondoan jende gehiago etorri zen saioa entzutera. Oholtza txikia zen, eta bertsolariak une oro zutik egon ziren.

T. Ezponda-J. Enbeita

Gaia: Xabaldor egunak urtero lelo bat izaten du, aurten *Xalbador eta orain ehun urteko Urepele*. Nola irudikatzen duzue orain ehun urteko Urepele?

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Elizan sartu ziradenian I*

T. Ezponda: Duela mendeko istorioa
azaldu behar gogora.
Geroztik hunat pasatu zaigu
izugarrizko denbora.
Kanbiamena asko izan da
ordukotikan gaurkora
bainan gaur ere naski ez gera
uste degun bezein gora

J. Enbeita: Hegoaldetik nola azaldu
Iparraldeko bizitza?
Eta Urepel orain ehun urte
nahiko lanbidetza gaitza.
Xalbador oindik sortu gabea
odolik ote zen mintza?
Argi dagona beraiei esker
gaur giro huntan gabiltza.

T. Ezponda: Orduan nola bizi zen hemen
ez da errexa asmatzen
baina ondoko urte batzuek
ondo ditut ezagutzen:
gaur gauden baino askoz ere ba
jendea hurbilago zen
elgar maitatzen bazakiten ta
baita ere ondo laguntzen.

J. Enbeita: Begiak itxi eta hasi naiz
amesten garai haietan:
gaur hainbesteko aukerarik ez
baina poza bihotzetan
gaztainak eta taloak janez
artzaiak mendi maldetan
eta euskara ederra dantzan
etxe eta karriketan.

T. Ezponda: Duela mende bat epe hoi ez da
guretzat ere laburra
ta Urepele dugu Xalbador
sortu izan duen lurra.
Dagon lekurat igor dezagun
guk bihotzeko agurra
ta beste Xalbador sor dezakeenik
hori ez dugu segurra.

J. Enbeita: Orain ehun urte errana daukat
euskara zela nagusi
oraindik ere artzaintza eta
euskara da hemen bizi.
Giro honetan beste Xalbador
bizitzen daiteke hasi.
Hemendik beste ehun bat urtera
hala nahi zaitut ikusi.

U. Alberdi- A. Egaña

Gaia: Nola irudikatzen duzue Urepele hemendik ehun urtera?
Nolakoa izango ote da? Zer izango ote da?

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nafarroako mendi gainetan*

A. Egaña: Urepele zer izan litekeen
hemendik urte askora?
Igual mugarik ez da izango
hemendik Elizondora
akaso tren bat Larrunen gisan
mendi hegaletan gora...
Baina apaiza seguru nago
oraingoa izango da! (bis)

U. Alberdi: Etorkizunaz hizketan hasiz
maiz jartzen gara penetan
baina pozteko arrazoi pranko
izan liteke benetan.
Jada begia jarrita daukat
bertsolari txapelketan
ta emakumeak egon litezke
omenduen paretetan. (bis)

A. Egaña: Urepele zer ehun urte barru?
Irudimena mugitu...
Baietz orduan herri sarreran
pizzeria bat aurkitu!
Eta eleizan gibelaldean
hiru-lau McDonald’s bitu
ta Xalbadorrek berpiztu eta
bertsoak jarriko ditu. (bis)

U. Alberdi: Nahiago nuke nahiago nuke
hala egingo baluke!
Zerutik jetsi ta txarrak jarri
behar ditunik ez uste!
Hemen jendeak gure aldean
badu hamaika bertute
ehun urte barru ere guk baino
hobeto abestuko dute. (bis)

A. Egaña: Ai, Urepele herri polita
horren berde horren txiki!
Beste ehun urtez orain daukazun
neurri berbera atxiki.
Adi ibili zuen herri hau
zuzen zazute egoki!
Bihur liteke Paris aldeko
aberatsen udatoki. (bis)

U. Alberdi: Ez litzateke hain arraroa
ikusiz duen distira
baina berriro ere jarri naiz
ehun urtera begira.
Garai horretan egun honetan
berriro biltzen badira
gero Zarautza joango dira
Egañan omenaldira. (bis)

A. Egaña- U. Alberdi ♫

Gaia: Gaur bazetozen Uxue eta Andoni Baigorri aldetik honantz, eta Andonik zerbait esan nahi omen zion Uxueri, eta nahiko larri zegoen. “Aizan!” Andonik, eta “Zer duk?” Uxuek, eta Andoni isilik; handik pixka batera berriro “Aizan! Gauza bat esan behar dinat ” Andonik, eta “Zer duk, esan ezak?” Uxuek, eta Andonik “Ba al dakin armairutik irtetera noala”. Uxue, sorpresa eman al dizu?

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nere gogoa hegan dijoa*

U. Alberdi: Bazuen nahiko zalantza honek
niri zerbait esateko.
Duda ta muda hor ibili da
beldur haundi bat tarteko.
Azkenerako esan dit eta
horrela askoz hobeto:
txikiegia da armairua
norbait bertan kabitzeko.

A. Egaña: Orain arteko egoera zen
erosoa ta zabala.
Familiari eta lagunei
esan behar nola hala.
Pentsa Uxue bertsolaritzan
ere mugarria dala:
historiako lehendabiziko
txapeldun homosexuala.

U. Alberdi: Egon agian egongo ziren
baina aitortu ez apika.
Etorkizuna aldatu behar
genuke baina zatika.
Erabakia erabaki da
nago ondo iritzita
mundua bihur liteke armairu
gezur batean bizita.

A. Egaña: Hain xuxen ere gaurko bidaian
zu zauzkat aldamenean
ta armairutik ateratzera
ausartu naiz azkenean.
Erabakian berri eman zuk
sektore gazteenean
Xebastiani neuk esango diot
atrebitzen naizenean!

U. Alberdi: Akabo beraz gezur guztiak
akabo autokontrola!
Askatu zazu zure burua
askatu zazu odola!
Eta nahiz eta zuk hala uste
bakarra ez zera inola
esan didate Xebaxtian ere
irtetekotan dagola.

A. Egaña: Jesus, Maria eta Jose ai
ia egin det aitaren!
Azkenerako sekretu denak
bistatu zaizkigu hemen.
Xebaxtian'e armairutikan
irteteko asmoz omen...
Orain badakit azken urteetan
zergatikan argaldu den.

U. Alberdi: Egaña zuk zeuk esan zenuen
"Patua beti da patu!".
Orain garaia iritsi da-ta
ez zazu disimulatu!
Hainbeste urte kotxe berean
badezue nahiko tratu
ez zazu esan orain artean
ez zaretela liatu!

A. Egaña: Bertsota joanda lotan geratu
ez degu egina usu
nik bertsotatik ez dut lapurtu
ez laztan eta ez muxu.
Homosexuala deklaratzen naiz
baina ez oraintxe aizu!
Aparkaleku txiki bat da hor
azken aukera daukazu.



Iparraldeko Bertsularien Xapelgoa. Finala.
(Donibane Lohizune, 2008-11-15)

Argazkilaria: A. Elosegi

IRUÑEA (2008-10-30)

Bertsolariak: S. Colina, J. Zelaieta, X. Paya, I. Elortza, J. Barberena eta A. Egaña.

Gai-emailea: Fernando Anbustegi.

Jendetza elkartu zen ostegun gauean, Gurutze plazako Institutuan, Bertso Aroaren barnean antolaturiko jaialdi honetan.

S. Colina-J. Barberena

Gaia: Zu, Jon, eguzkia izanen zara, eta zu, Sustrai, farola.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Hamalau heriotzena*

S. Colina: Kale ixkin batean
ninduten ipini
argi ditzadan heldu
gazte eta nini
baina guztiei ezin
argirik eskeini
biok baitabilkigu
nahiko zeremoni.
Irtetzen zarenean
alferrik nago ni.

J. Barberena: Ez zaite gutxietsi
oraindikan aizu!
Eta nere aurrean
ez zaite jarri zu!
Ni nauzu hori-hori
ta garretan sutsu
nere hortan baditut
hainbertzeko luxu
zuk mozkorrak eusteko
soilik balio duzu!

S. Colina: Nahiz entretenigarri
naizen mozkorrentzat
beste funtzioak dauzkat
horrela deritzat.
Beroa izan neike
eskale batentzat
aterpea ez bada
euskarri bat behintzat
etxerik ez daukaten
maiteminduentzat.

J. Barberena: Ni naiz alderdi hori
eta zeru urdin
ni naiz maiteminduen
zorion eta min
ni naiz landarearen
indar urrezko fin
ta zu berriz hor zaude
altzairutan gordin
farolaz poesia
ezin leike egin!

S. Colina: Farola baita gauza
Ohikoa, arrunta
bizi izan dituena
hamaika burruka
aguantatzen duena
mozkorra, zurruta
zu zeinen zeurekoia
ta ankerra puta
begiratu ezkero
itsutzen duzu-ta!

J. Barberena: Zenbat poesi eta
aipu eta osti!
Hitzak aldatu eta
beharko naiz busti.
Probetxuzkoa zara
altzairu ta guzti
ta estimatzen zaitut
bihotzetik noski
iluntasunean zu
baitzara eguzki.

S. Colina: Garai batean zena
naturan profeta
nola bilakatu den
farolan poeta.
Baina epeldu egin da
zure beroketa
atsaldeko seiretan
pizten naute-eta
neure kalte izan da
ordu aldaketa[11].

(11) Aurreko larunbatean aldatu zuten ordua, ordubete atzera.

ATAUN (2008-11-07)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, J. Munduate, A. Barandiaran, I. Urdangarin, I. Zubeldia eta A. Arzallus.

Gai-jartzailea: Talde bat.
Gai-emailea: Martin Aramendi.

San Martin jaietan urtero egiten den jaialdia. Herriko antzokian izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Berrehun lagun inguru elkartu ziren bertsolariak entzutera. Sarrera 5 euro. Saio umoretsua izan zen, oro har.

A.M. Peñagarikano- I. Urdangarin

Gaia: Emozio fuerteak modan daude gaur egun, eta, zu, Anjel Mari, emozio fuerte zalea zara. Urteetan aurrera zoaz, eta bizitzaren monotonia hauste aldera erabaki duzu Euskal Herriko zubirik altuenetik salto egitea, puenting egitea, alegia. Badaezpada, ordea, zure mediku Iban eraman duzu. Zubi gainean zaudete biok.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

A.M. Peñagarikano: Inoiz edo behin beidatu izan det
behera mendi tontorretik
baina gaurkoa inpresioa
haundigoa horregatik!
Eta gaitzerdi sendagile bat
hemen dut aldamenetik.
Hiru pastilla emaizkidazu
saltoa egin aurretik. (bis)

I. Urdangarin: Ai Anjel Mari! Begira zazu
petrilan ondotik behera!
Gerrian bueltan sokea estu
lotuta dezu gainera.
Gaurkoan dezu bizi berriai
aurre egiteko aukera
gaurkoan bizik atera ezkero
ehun urte biziko zera. (bis)

A.M. Peñagarikano: Monotonia hautsi nahi nuen
alde batera normala
nahiz ta jendeak esaten zidan
“Moteil hi ez haiz kabala!”.
Benga pastilla eman zaidazu
ez zaite izan petrala!
Bestela ere ziur dago-ta
kaka egingo dedala. (bis)

I. Urdangarin: Nahiz petrilera hurbildu zaren
aurpegiz ez zaude alai.
Mediku jauna ondoan dezu
eta egon zaite lasai!
Izango al zera hemendik behera
gorputza botatzeko gai?
Monotonia hautsiko dezu
ta igoal lepoa ere bai! (bis)

A.M. Peñagarikano: Lepahezurrik ez det hautsiko
eta egon zaite lasai!
Zuk azkarregi hartu nahi dezu
paraplegikoen usai.
Honek petrila eta zubia
nahastu egin ditu ai!
Sendagilea zeran ez dakit
despistatu galanta bai! (bis)

I. Urdangarin: Ni medikua naizen aldetik
azaldu nahi dizut zera:
saltoarena aipatu orduko
pultsua zaizu altera
eta berriro ez zazu beitu
zubi-petriletik behera!
Bihotzekon bat hartu aurretik
alde egin zazu etxera! (bis)

A.M. Peñagarikano: "Aldatu hadi!" neure buruai
esaten nion jo ta su
izanez ere gauza askotan
ni beti izan naiz maisu.
Eta zuk dezun postura horrekin
nerbioso jartzen nauzu[12]
sendagilea ona izateko
tankera txarra daukazu. (bis)

I. Urdangarin: Gerrian dantza hoiekin Peña
hasi zaitea xuabe
gaurkon alturan gaude-ta biok
ikusi zaitzaket grabe.
Nahi'zun erara saltatu zaitez
nerekin seguru zaude
nahi baldin ba'ezu sokarekin ta
nahi badezu sokaik gabe. (bis)

(12) Eskuak gerrian jarri eta gorputza alde batetik bestera mugitu zuen.

A. Arzallus ♫

Gaia: Azaroak zazpi ditu gaur, eta egun seinalatua da: 32 urte Xalbador hil zela. Aste honetan, Arantzazuko egutegian topatu dut ondoko pasarte hau: "1960 aldera Uztapide eta Xalbador bertsolariek Ataungo San Martin festetan egin zuten saio batean jasotako bertsoa da hau. Gai hau jarri zieten: "Zu, Uztapide, hemen, Espainian bizi zara; zu, Xalbador, han, Frantzian". Entzuleek ez zioten bertso honi txalorik jo, euskalkiaren arazoa nonbait. Zutik jarrita otoika nago ene jauna zerura. / Handien mende dagon ttipiak beti badu arrenkura. / Eskatzen dautzut izan zazula herri ttipien ardura / eta xukatu mendien negar den Bidasoako ura".

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Lurraren pean sar nindaiteke*

Bidasoan han doa erreka
harria eta hondarra.
Oraindik ez da guztiz aldatu
Xalbador zenan oharra
bitan zatitzen bitan puskatzen
baitu gure herri zaharra.
Ta gaur erreka ikusi dut nik
haundia eta azkarra
mendiek ez ezik geronek ere
egiten degu negarra. (bis)

Nun den ez dakit baina mezu bat
nahiko nioke igorri
bere bertsoa izan delako
bertso berrien jatorri.
Indar eskean ibilia zen
goi zeruko gizon horri.
Egia esan nola aurre egin
hainbeste malko lehorri?
Gu askatzera oraindik ez da
zerutik inor etorri. (bis)

Eta lurretik egin beharko da
hemen egin behar dena!
Iruditzen zait ordua dela
iritsi dela orena
gure asmoa bihurtu dedin
egi denetan gorena
hego ta ipar gorputz bakar bat
bilakatu dadin dena.
Orduan lasai esango degu
gure erreken izena. (bis)

A. Barandiaran

Gaia: Eskuei sarri-sarri begiratzen diezu. Oraintxe ere hala zaude. Zer duzu edo zer dabilkizu esku artean?

Neurria: Hamabiko berdina 6 puntuz
Doinua*: Laurogeita hamar urte*

Eskua da besoaren
muturrean dan laguna
sarri eman sarri heldu
hori da bere jarduna
merezi baino gutxigo
estimatu ohi deguna.
Begira jarriz hor dago
bai bizitza, maitasuna...
Sarri zabal eukitzen det
eta bilduta hurruna
eskuetan irakurtzen
delako etorkizuna. (bis)

Zerbaiti heldu nahi horrek
badauka nahiko balore
batzutan dena da polit
batzutan dena dotore
baino ez det nahiko ausardi
ni saiatu ohi naiz orde.
Nere eskuak badauka
nahiko balio, ohore...
Zerbaitez seguru banaiz
zergatik bestea gorde?
Zerbait benetan nahi badet
biekin heltzea hobe. (bis)

Azkenen esku bat zer da?
Hezurra eta azala.
Eskumutur bat fin-fina
ta soberan azkazala
baina badu balio bat
beste gauz asko bezala
alde batetik argia
eta bestetik itzala.
Nik luze-luze jarrita
hortxe utziko det hala
eta norbaitek nahi badu
bertatik hartu dezala. (bis)

DONIBANE-LOHIZUNE (2008-11-15)

Iparraldeko Bertsulari Xapelketa

Txapeldunaren agurra

A. Arzallus

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua*: Haizea dator ifarraldetik*

Presoak, Xanti, lagun guziak
denak kabituak daude
baina ezin naiz urrutira joan
Zumaian gelditu gabe.
Berak bertsoaz gutxi zekien
zoriontsu zen seinale.
Plazan Luixitak esango zion
“Atzo, zuen Amets bale!”
ta Xabinitak “ Maialenek'e
bota din majina ale!”
eta amona ibiliko zen
gustora kalerik kale.
Bihar plazara jeitsiko zara
haizea bezain xuabe
esan lagunei egin zarela
txapel txiki baten jabe.

DONOSTIA (2008-11-28)

Bertsolariak: A. Egaña, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi eta I. Elortza.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Donostia bertsotan ekimenaren barnean urtero izaten diren jaialdietako bat. Lugaritz kultur etxean izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Azken urteetan bezala, oraingoan ere aretoa erabat bete zen. Saio ona egin zuten, oro har. Egañari lan gehigarri bat eman zion Elizasuk: gai bat eman zion, eserita zegoen bitartean bertso batzuk idatz zitzan. Hiru bertso idatzi zituen Egañak, eta bertso horien kopia bana jaso zuten entzuleek irteeran.

A. Egaña-M. Lujanbio-B. Gaztelumendi-I. Elortza

Gaia: Orain dela gutxiko notizia da fusiorik ez dagoela Kutxa eta BBKren artean. Lehen bertsoan kontatu behar duzue zuek egiatan zer fusionatuko zenuketen, eta bigarrenean zer ez zenuketen sekula fusionatuko.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Erreguetan ari nintzela*

M. Lujanbio: Bertsolaritzak mila maitale
baditu bere kantuan:
aritu izan da antzerkiakin
eta musika kontuan
edozerekin jarri litezke
hitz ta doinuan batuan
edozer gauza fusiona leike
bi ausardi dauden lekuan.

B. Gaztelumendi: Esaterako lehen bertsoa
baserriakin zen lotzen
gero menditik kalera jetsi
ta tabladura igo zen.
Nundik gatozen dakigulako
dakigu nora goazen
ta ekonomia eta bertsoa
ez dira ondo kopontzen.

I. Elortza: Baina zergatik ibili Beñat
beti kejan beti eske?
Ekonomistei jarriagatik
hainbat teknokrata ospe
dirua ariman inbertitzea
dugu onena nik uste:
ekonomia eta kultura
fusionatuko nituzke.

A. Egaña: Bertsolaritzan ez da idatzi
saio bikainaren gida.
Ehun ta hogei lagun begi zabalik
lau mozolori begira.
Fusionatuko nituzke pozik
egia osoa hori da
gure indarra gure ahalmena
ta zuen espektatiba.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Basatxoritxu moko luzia*

M. Lujanbio: Bertsoak maite ditu musika
antzerki ta gainontzeko
badu aukera: moldaerreza
da arteetan gailentzeko
baina fusio batzuk gertatzen
dira merke-zuhur antzeko...
infusioa behar da gero
tripako mina kentzeko!

B. Gaztelumendi: Baino sarritan zein ote jabe
eta zein ote bezero?
Nahiz ta Igorrek lehen bertsoa
kantatua digun bero
kultura eta ekonomia
lotu behar direla-edo
baino industria huts bihurtzen da
gehiegi uztartu ezkero.

I. Elortza: Bata omen da olio beraz
eta ura beste bata
baina bertsotan kobratzen dugu
geronek ere soldata.
Beraz alperrik da fusioen
kontra egitea zarata
aspaldi daude fusionaturik
txapela eta gorbata!

A. Egaña: Nik neska bati gaur goizaldera
esango diot pikaro
“Ez al dirazu antzik ematen
nik zaitudala nahiago
ai! marinelak gau ilunean
izarra baino gehiago”[13]
Baina aurpegi hau ta letra hori
fusionatzerik ez dago.

(13) Oholtzaren atzealdean *Bilintx*en irudi handi bat zegoen, eta irudiaren alboan *Bilintx*en bertso zati hau idatzita: “Ez al dirazu antzik ematen /nik zaitudala naiago/ ai! mariñelak gau illunian /izarra baino geiago...” .

I. Elortza- M. Lujanbio ♫

Gaia: Bikotea zarete. Hilabete honetan ez duzue etxean erratza pasatu. Ez dakit zenbat urte dituen sofa zaharrean zaudete eserita. Ostirala, gaueko hamabi eta erdiak, eta hautsita dagoen telebistari begira. Eta atzetik Imanolen kantu bat entzuten da: "Parke isileko banku txurian / ezpain beroen lankide..."

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Ilun ikarak azken argia*

I. Elortza: Jada zikina gaur kasi-kasi
sartu liteke barrura.
Non ote dago lehen urteetan
bizi izandako lilura?
Orain dena da aspertzea ta
etsipena edo tristura...
Lehen maitasun huts genuen hura
maitasun hauts bihurtu da.

M. Lujanbio: Ia pizteko indar gutxitxo
ta mugitzeko berandu
gure harremanan metaforak hor
etxea hausten dihardu.
Maitasuna ta etxea bera
hartu gendun bion kargu
baina erratza pasatzeko're
ilusioa behar du!

I. Elortza: Neretzat jada berba arrotz bat
bihurtu da ilusio
gure etxean ez dugulako
behar lain motibazio
ta gu bionak ere ez du ja
ez arrazoi ta ez zio:
benetan asko maitatzen zaitut
baina ez zaitut desio.

M. Lujanbio: Sofa batean eta desio
zahar bat berpiztu nahian
armiarma-sare luxe mehe bat
tilin-talanka sabaian
gure lau hankak kruzatuta ta
kafe kikara bat mahaian...
Gu betirako gelditu ginan
estudiante garaian.

I. Elortza: Negar tanta bat hor erori zait
gaur hauts pilaren erdira
sentimentu bat badagoela
esan nahi du horrek begira.
Agian hobe dugu onartu
hauxe dela despedida...
Bi ilusio hil ziren baina
beste bi jaioko dira.

M. Lujanbio: Baina maitemin hura izan zan
bizi guzirako lege
denbora joanak eta hautsak ez,
ez digu egin mesede.
Eutsi dezagun! Eutsi dezagun!
Aguantatzea det xede
ta elkarrekin hil gaitezen gu
asperduraz bada ere!

I. Elortza: Baina zergatik egin behar da
bihotzen kontra borroka
baldin barrua baldin badugu
guk biok jadanik oka?
Nik gurago dut despeditzea
ta onartzea porrota
asperduratan hiltzea baino
nahiago zu faltan bota.

M. Lujanbio: Telebistari begira beti
nahiz ta ez ezer ageri
lehen egoten zen Carta de ajuste
bukatzen zen eta geldi.
Gaur egunean segi egiten du
hoita lau orduz gehiegi...
Gu're hola gabiltz, zentzurik gabe
segi, segi eta segi.

A. Egaña- B. Gaztelumendi

Gaia: Gebreselassie izeneko atleta batek behin esan zuen adina zela bere aurkaririk handiena. Zuek ere gauza bera uste duzue, zuen aurkari handiena adina duzuela. Beñatek uste du bere gaztetasuna dela bere aurkaririk handiena, eta Andonik uste du bere... Hori uste du berak ere.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Nere gogoa hegan dijoa*

A. Egaña: "Aupa Marino! Aupa Marino!"
lehen kirol arloko moda
Atxagak ere Obabakoak
gazte sortu zun gustora.
Bertso arloan ejenplu gisa
Amuriza egongo da...
Inork hobera ez du egiten
berrogei urtetik gora.

B. Gaztelumendi: Baino ardoa ere hobetu
ohi da zahartzen den garaian
eta ez daukat zuk bezelako
okurrentziarik mahaian
ez ditut jartzen zuk adinako
hainbat aurpegi alai han.
Zure mitoa handituz zoaz
ni txiki ez izan nahian.

A. Egaña: Dekadentzia ez da sumatzen
horretxek jartzen nau sutan.
Gainera azkena igual norbera
konturatzen da batzutan.
Miopiak'e eragiten du
autokritikaren lupan
eta mitoak lokartzen dira
prestigioaren kulunkan.

B. Gaztelumendi: Umilkeria faltsurik hemen
ez zazu azaldu faborez!
Nahiz ta gaztea izan ni ere
miopea banaizenez.
Lugaritzen'e hauen jarreran
ikusi zitekeen errez:
zu karteleko burua zinen
ni inkognita baino ez.

A. Egaña: Hara noraino iritsi geran
karteletikan irtenda!
Horren mingarri gertatu al zaizu
osatu duten zerrenda?
Bata zahartzean bihur liteke
mito edota leienda
buru askotan izandakoan
burua bera galtzen da.

B. Gaztelumendi: Saiorik saio ibili zera
zure denbora luzean
ta gaitasuna nabaritzen da
hor gaineko dizdizean.
Nahiz ta burua gal omen leiken
burutik kendu ezean
zuk kontrakoa frogatzen dezu
bertso saio bakoitzean.

A. Egaña: Hori ez degu horrela Beñat
nahiz ta zuri iruditu.
Noizbait linterna galduko nuen
eta ezin dut aurkitu:
munduan nere kokagunerik
ez, ta ezin dut kabitu.
Bihar gosaitan jan eingo nukeen
hoita bi urte banitu!

B. Gaztelumendi: Oraindik ere gaztea zaude
nahiz ta aldatu tankera
nahiz irribarre egiten dezun
nere atzetik kolpera.
Gaurkoan ere etorri zera
honuntza disfrutatzera
oraindik zera lehenago zinen
ume bihurri berbera.

M. Lujanbio ♫

Gaia: Doinuaren izena da zuretzat gaia eta doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua*: Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Zertan jarriko dut begirada
Ibarretxeren planean
edo herri honen gure herriaren
etorkizun ilunean?
Negu gorriko egun hotzetan
konturik nereenean?
Den-dena ilun ikusten baita
norbera ilun denean.
Baina aspaldi ikasi bainun
Xabier Leten esanean
argia ondoen ikusten dela
ilunen dagoenean.

Lau urtaroen gisan bizitzak
ditu mila gorabehera:
batzutan gaude lorez beteta
sarri hostoak galbera.
Burua makur ibiltzen gera
sarri batetik bestera
gutxi batzutan ardatza tinko
ta aurpegi alegera.
Nahiz ta sarritan pentsatu leiken
uztea bizi karrera
instintu batek esaten digu
“Aurrera! Beti aurrera!”.

Badakit: ez da osasungarri
umore dena galtzea
gertatzen baita realidade
guzia eraldatzea.
Baina batzutan burua ezin
zut jarri ta ze trantzea!
Ordu ilunetan ahalegina da
begirada argitzea.
Nahiz eta jakin beti aurrera
ta sekula ez atzea
holakoetan zeinen zaila dan
begirada aldatzea!

MARKINA-XEMEIN (2008-12-08)

Bertsolariak: J. Uria, I. Ibarra, A. Agirre, M. Arzallus, On. Enbeita eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Zuriñe Iarritu.

Kontsesio eguneko jaialdia. Markinako pilotalekuan izan zen, arratsaldeko bost eta erdietan.

J. Uria-A. Agirre ♫

Gaia: Aspaldiko urteetan modan dago egutegiak egitea, batzuk exotikoak, besteak pornoagoak. Bertsozale Elkarteak agindu txiki bat eman dizue: 2009ko egutegia egitea.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Nere senarrarekin I*

A. Agirre: Begiradak atzera
egiten dit ihes
hauek izan litezke
gozamenan juez
baina hortik ez zazu
hautatu mesedez!
Exotikotik gutxi
ta pornotik batez! (bis)

J. Uria: Maialen bikoteak
azelako sua!
Ta Onintza Iratxeri
emanez musua...
Baina agertu nahi dut
nik nire kasua:
abendurako gorde
nahi dut Sarasua. (bis)

A. Amaia: Nahiz eta Sarasua
dezun zuk nagusi
eman nahi dizkiozu
hamaika igurtzi.
Baina hori aspaldi zen
gazteen kutizi
Sarasua ez dezu
aspaldi ikusi! (bis)

J. Uria: Baina hainbeste neska
behar gara batu
Andoni ikusteko
sukaldean altu
eta berak dezala
ondo aukeratu
txapel beltzarekin zer
nahi duen tapatu. (bis)

A. Agirre: Egaña ikusi nahi du
paretan barrena
txapeldunak erretzen
lehen bazun kemena.
Ez dauka zer tapatu
horixe da pena!
Hori da sutarako
aitzaki onena. (bis)

J. Uria: Aukeratzea zaila
odola borborka
bertsotan jeneroa
ederra dago-ta!
Baina hautatu dezagun
kanpora nor bota:
deskartatu Lizaso
eta Mañukorta. (bis)

A. Agirre: Ia nere bixki bat
badaukat aurrean
indarra baduena
bere apurrean.
Onintza eta biok
gatoz indarrean
baina ez gera kabitzen
orri bakarrean! (bis)

J. Uria: Beraz egutegian
ez zara abila
posterra egin ezazu
handi borobila
ta beste ideia batzuk
zenbat iskanbila...
gaiak jartzen Zuriñe
agertu dadila! (bis)

M. Arzallus-J. Uria-I. Ibarra-A. Agirre-On. Enbeita-M. Lujanbio

Gaia: Lehengoan lagun batek kontatu zidan animaliak maitemintzean loditu egiten direla, elefanteak laurehun bat kilo hartzen ei ditu. Begiratu atzekoei, eta ea maitasun aldetik nola ikusten dituzun.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Eguna pasa nekean eta /Andre txarraren bentajak*

M. Arzallus: Jone Uriak bere garaian
pasa ditu mila prenda
besteei ere han ibiltzen zen
gomenda eta gomenda!
Nahiz ta haundia eta zabala
izaten zuen zerrenda
azkenaldian flaka dabil ta
flojo samar ikusten da. (bis)

J. Uria: Bai egia da lehen nenbilen
ni mutilen aldarrian
ta azkenaldian kilo hain gutxi
ikusten zaizkit gerrian.
Baina ez pentsa ni nagoenik
hain egoera larrian
maitasuna ta jatea onak
baitira baina neurrian. (bis)

M. Arzallus: Eta Iratxe ikusi dut nik
nahiko zurbil ta serio
nola ligatze kontutarako
ez duen asko balio.
Hau ere nahiko flojo dabil ta
ene ze erremedio!
Honi kiloak galtzeaz gain, ileak
ere erori zaizkio. (bis)

I. Ibarra: Bihotz kontuan ez nabil ondo
igarri deustazu erraz
nigaz bakarrik egiten dabe
gaba baterako jolas.
Fibra ugari galtzen nabil ta
aspaldian ez naz kapaz.
Horrexegatik ia egunero
gimnasiora joaten naz. (bis)

M. Arzallus: Eta ondoren pozik jarri naiz
ni Amaiari begira
nahiz ta aspaldi eduki zuen
bere fama ta dizdira
ehun ta hogei bat kilo galduta
hortxe ibili zen di-da
ta aber norbait engainatzen dun
oso guapa etorri da. (bis)

A. Agirre: Ehun ta hogei jetsi jetsi nituen
hala’re grasaz beteta
masa muskular ederra degu
nere gerriaren buelta!
Baina ohean ez det asmatzen
eta ez da berriketa
frantsesak eta espainolekin
zurrunkan hasten naiz eta! (bis)

M. Arzallus: Onintzarekin era berean
jada ez dakit zer egin
beti ibili baita flojo ta
horren ahul mutilekin.
Hala ta guztiz lasai bizi da
nahi baduzue jakin
askoz hobeto pasatzen baitu
besteen *cotilleo*kin. (bis)

On. Enbeita: Bakarrik joan ohi naiz ogera
hemen aitortzera noa
soltera nago baina horregatik
ez det itxiko agoa.
Ez dot sekula ondo ulertu
zein dan mutilen jokoa
ta horregatik ikusi ohi dot
Telebilbaoko pornoa. (bis)

M. Arzallus: Maialen berriz gustora dabil
nahiz ta ez esan inori
benetan ondo ibiltzen da hau
orain eman orain tori.
Maiteminduta dago aspaldi
ondo igertzen da hori
orain bi urte maitemindu zan
ta ordutik dago lodi. (bis)

M. Lujanbio: Tripa aspaldi heldu zitzaidan
galtzaren botoietaino
oain aurrera ta aurrera noa
badaukat nahiko enpeño.
Elefantean antza izatea
ez da izango ederra, ño!
Hala’re larehun kilo nahiago
maitasunik eza baino. (bis)

I. Ibarra

Gaia: Durangon izan zara gaur, eta handik bueltan, irratian, abesti hau entzun duzu: “Izarren hautsa egun batean...”.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Agur sagar beltzeran*

Ez dago zalantzarik
Izarren hautsa da
Mikel galdu dogula
ezaguna jada.
Ez neban ezagutu
bertatik bertara.
Orain heltzean uda
argietan gaba
Mikel izarren hautsa
zeu izango zara.

Notizia entzutean
bihotzak eztanda
ta orain irratian
kantuak emanda
ez da alperrik egingo
zure propaganda
danok gagoz zugandik
gauza asko janda
nire umezaroko
zatia hor joan da.

Euskal kulturgiletan
sortzaile galanta
itxi deuskuz gutzako
makina bat kanta!
Pertsona lez aparta
dinoe, xarmanta.
Ez zara inoiz joango
maisu on aparta
zure kantuen bidez
biziko zara-ta!



Gextoarte.
(Getxo, 2008-12-06)

Argazkilaria: O. Aranburu

ZARAUTZ (2008-12-12)

Bertsolariak: I. Lazkano, I. Elortza, R. Gzl. de Durana, F. Zubia, J.J. Zubieta "Etxabe", M. Verlarde, M. Arzallus, I. Zubeldia, J. Sorozabal, J.M. Irazu, U. Alberdi eta I. Manzisidor "Mantxi"

Gai-emaileak: Imanol Epelde eta Xabi Aizpurua.

Putzuzulo Gaztetxeak bigarren urtez jarraian antolatu duen kopla txapelketa. Gaztetxean bertan izan zen, aretoa erabat beterik zela. Giro polita, beroa, izan zuten bertsolariek, eta saio ederra atera zen. Hiru minutukoak izan ziren bertsoaldiak, eta kanpaitxoarekin adierazten zuten hasiera zein bukaera.

I. Lazkano-I. Elortza

Gaia: Gainerako bikote guztiek bezala, hiru minutu izango dituzue librean nor baino nor aritzeko.

Neurria: Lauko handia
Doinua*: Bedeinkatua izan dadila I*

I. Lazkano: Ring-eko etsaia jarri didate
luxea eta iharra
hau muturrean jotzen duenak
ez du apunteri txarra!

I. Elortza: Neroni ere urduri nago
hoixe behar duzu jakin:
peso pluma bat ipini dute
peso pesado batekin.

I. Lazkano: Esan bezela mutil hau degu
txorrotxa eta ttenttea
begiratuta ez al du ematen
telegrama urgentea?

I. Elortza: Niri txorrotxa esaten nola
zara Lazkano ausartu?
Zerorri ere begiratuta
benetan badut non sartu.

I. Lazkano: Nik horrelako jendearekin
sarri sentitzen det grazi:
sardina zaharrik antiajukin
ez nun sekula ikusi.

I. Elortza: Sardina zaharra omen naizela
bilatu duzu hainbat ertz.
Kontuz ibili! Ni irenstean
enpatxua egin baietz!

I. Lazkano: Bizkai aldean zer egin diok
hire gorputz kaskar horri?
Gizon itxura hartu nahi badek
Gipuzkuara etorri.

I. Elortza: Bizkaian ere lasai jateko
badugu nahiko ganora
probetxuzkoak aprobetxatu
eta besteak zulora.

I. Lazkano: Ikusten danez gure mutilak
alperrik jaten du gutxi
gorputza hola izatekotan
hobe besterentzat utzi!

I .Elortza: Egia esan gaur ere ez dut
ona aurkitu laguna:
justu-justuan jan behar izan dut
zuri sobratu zaizuna!

I. Lazkano: Kontuak kontu gure mutila
degu benetan bizkorra
gorputza ez du haundia baina
arpegia bai gogorra!

I. Elortza-U. Alberdi ♫

Gaia: Bi poeta zarete. Uxuek uste du egoera zoriontsuek asko laguntzen dutela poesia ekartzen; Igorrek, aldiz, pentsatzen du zoritxarrek askoz aukera gehiago ematen dutela poesia sortzeko.

Nuerria: Kopla handia
Doinua*: Oihaneko pagoak blai*

U. Alberdi: Ez da egoera txarrik
ta ez da esan beharrik
tristura behar izaten dute
poeta txarrek bakarrik. (bis)

I. Elortza: Zu zara neska bat fina
baina dut gauza jakina
zoriontsuek maite dutela
desgraziatuaren mina. (bis)

U. Alberdi: Ni nabil festarik festa
alaia baitegu neska.
Poeta ona baldin badegu
egoera txarrik ez da! (bis)

I. Elortza: Zu festarik festa artez
zoriontsu izan zaitez.
Hortik poemak sortu litezke
baina poesiarik ez. (bis)

U. Alberdi: Nahiz eta ez degun errez
ta lortzen den oso nekez
negar malkoak sortu nahi ditut
zorionan zorionez. (bis)

I. Elortza: Behin pasa nintzen barrendik
eta horrek esaten dit:
poztasunetik ezin da sortu
tontakeriak besterik. (bis)

U. Alberdi: Bai arrazoia dezuna
ni oso naiz jakituna
tontakeria zoragarri bat
baita zoriontasuna. (bis)

I. Elortza: Zuk poematan jarria
egiaren oinarria
nik egiarik ez daukat baina
pose erakargarria. (bis)

U. Alberdi: Zaude *apoyo* beharrez
negarrez lortzen da errez.
Nik gaur festa bat egin nahi nuke
zuk segi zazu negarrez.

I. Elortza: Hain zara ondo hezia
argia ta berezia
zugatik pozik alda dezaket
pozik nire poesia. (bis)

U. Alberdi: Badaki izaten makarra
ta horretan ez da baldarra...
Poesiarik ederrena da
Elortzaren irriparra. (bis)

AZPEITIA (2008-12-19)

Bertsolariak: N. Zinkunegi, M. Lujanbio, I. Zubeldia, I. Lazkano, A. Egaña eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Jokin Uranga.

Txapelen omenez urtero antolatzen duten jaialdia. Izarraitz pilota-lekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

S. Lizaso

Gaia: Sebastian erdikalean bizi den azpeitiar bat da. Santo Tomas goizeko ordu bietan, lorik egin ezinda, balkoira atera da.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Anai-arrebak hementxe nator*

Gazteak juergan zaharrak balkoian
zer-nolako komeriak!
Eta eskerrak sasoi garaian
egin nituen neuriak!
Birikak eta gibela dauzkat
aspalditikan eriak...
Lorikan ezak ez nau erretzen (bis)
baizik eta inbidiak.

Inbidiakin begira nago
kalean den panoramai.
Ai neu banintza hoiek bezela
parrandan ibiltzeko gai!
Begira nago aurreko etxetik
builan ari dan aitonai:
gazteak ondo zebiltzak eta (bis)
German isilik egon hai!

Nahi ta ezinak zer atsekabe
sortzen duen bihotzera.!
Nere kexarik ez da helduko
inon belarri ertzera.
Balkoia itxi eta ohean
sartu behar dut atzera
begiak itxi ta ametsetan (bis)
iragana oroitzera.



Bizkaiko Txapelketa.Finala.
(Barakaldo, 2008-12-20)
Argazkilaria: N. Moreno

BARAKALDO (2008-12-20)

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Txapeldunaren agurra

I. Elortza

Neurria: Hamalaukoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua*: Gregario edo laguntzaile naiz*

Hementxe gagoz oin berrogeita
hamar urteko erara.
Lehen txalokada ordukoentzat
ohore bat Azpillaga!
Eskerrik asko Beñat ta Esturo
eta Unai Iturriaga.
Mosu bat kartzeletara
ilunetik argitara
behar dogu urten ta atara.
Zuri zer esan bertsozalea?
Hemen onena zeu zara.
Txapel bat txapel bat baino ez da
baina aitzaki ederra da
danok elkartzen bagara.

ARRASATE (2008-12-21)

Bertsolariak: M. Amuriza, M. Lujanbio, S. Colina, A. Egaña eta J. Maia.

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

AEDk Santamasetan aspaldidanik antolatzen duen jaialdia. Amaia antzokian izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

J. Maia

Gaia: Preso politikoa zara. Atzo Bizkaiko finala jokatu zen BECen, eta bertsolariek agurretan mila animo, mila besarkada, mila musu... bidali zituzten kartzeletara. Iristen al dira? Zelan iristen dira?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Lurraren pean sar nindaiteke*

Zulo honetan hitz bihurtuak
ditugu itxaropenak
final horretan entzun ditugu
aldarrikapen ozenak.
Esan zituzten nere kideen
izen eta abizenak
espetxearen izenak eta
jarri diguten kondenak.
Gaur egunean ez dira asko
hortara ausartzen direnak! (bis)

Zulo honetan bizi ditugu
amildegiaren ertzak.
Egunak ere izan litezke
gauak diren bezain beltzak.
Hitz bakar batek duen mezua
guk nola ez hartu aintzat?
Ez dira asko gure loetan
piztu litezkeen ametsak
hiruzpalau hitz mundu bat dira
ezer ez duen batentzat! (bis)

Nere hautua egin nuen nik
eta zigorra opari
erabakirik bizi zati bat
ematea herriari.
Nik interesik ez daukat bat'e
zertan izan lehendakari.
Burruka hortan sartu ginen gu
ta gu bezela ugari
besteak beste segi dezagun
bertsoz ta libre kantari. (bis)

M. Amuriza ♫

Gaia: Urte askotan, zuen etxera Txernobildik ume bat etortzen zen udan. Gaur gutun bat jaso duzu, non umeak dioen osasunez ondo dagoela eta zuenera ezingo dela berriro etorri.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Zure eskaerak egia esan*

Lehen urtean denok geneukan
hortako bildur itzela.
Mutikotxo bat ailegatu zen
pelikuletan bezela:
argal-argala umil-umila
ta ez batere ergela.
Ezin omen da berriz itzuli
baina pentsatuz bestela
gustora nago jakinik orain
osasuntsu dagoela. (bis)

Hona etorri ta eraman gendun
hainbeste medikutara!
Azkenerako poz bihurtu zen
hasierako ikara.
Gaur postal baten nabaritzen dut
haren penaren islada.
Kilometrotan urruti baina
gogoz hurbileko gara
eta bisitan geu joango gara
bera etorri ezin bada. (bis)

Mutiko hura izan dadila
beste askoren eredu.
Sinesgaitza da hain urrunetik
nora daitekeen heldu.
Txernobileko haur guztientzat
beso zabalik gaude gu.
Beraz hemendik aurrera ere
nahi balute, hona erdu!
pentsa ez arren maitasunagaz
asko lortu dezakegu. (bis)



Bertxoko sariketa
(Aramaio, 2008-11-28)

Argazkilaria: ABE

LARRABETZU (2008-12-25)

Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Estiballes, On. Enbeita, A. Egaña.

Gai-emailea: Gotzon Barandiaran.

Abenduaren hogeita bostarekin aspaldidanik antolatzen dute jaialdia Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean. Arratseko zazpietan izan zen, eta entzule asko hurbildu ziren bertsolariak entzutera.

U. Iturriaga

Gaia: Aita zara. Zure alaba lehenengoz irten da parrandan. Asteburu guztian ez da agertu, eta agertu denean kontu eske hasi zara. Berak erantzun bakarra eman dizu, eta zu aho zabalik geratu zara. Zer esan dizu, bada?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Mundu honetan holako gauzak*

Asteburua hor joan jata
erlojuari begira
eta begiak ez jataz ohitu
ilunera ez argira.
Etorri da-ta nire galderan
erantzun soila hori da:
bera izteko bakean eta
ez sartzeko holan erdira.
Baina txotxola hori ondino
nire kontura bizi da!

Bere erara gobernau gura
dabela bere mundua
ni ez sartzeko badeukola-ta
etxera nork lagundua...
Ez dau ulertu nire ardura
ezta nire apurua
ta harro-harro bere gelara
atea itxita segundua.
Bai heldu baten gorputza deuko
baina ume baten burua!

Ta hamentxe nago aztoratuta
neure kanpo, neure barren
nire alabak harpa jo deusta
gaur aurpegira nabarmen.
Ez naz hasiko "Gauzak ez ziran
holakoak izaten lehen..."
baina ordena apur bat jarri
beharko da nonoz hemen
eta ez naiten lerdoa izan
karka ez izatearren!

On. Enbeita-U. Iturriaga

Gaia: Denok ikusi zenuten nola kazetari batek Bushi zapatak bota zizkion, bada zapata horiek patentatu egin ditu batek eta aberastu egin da. Zuek biok enpresa bat sortu guran zabiltzaten gazte bi zarete; hori jakin eta esan duzue: "Jode! Antzeko zer edo zer egin behar dugu Euskal Herrian".

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Nere senarrarekin I*

U. Iturriaga: Dinoe oso ona
nazela ideetan
baina ez nabil pentsetan
orain zapatetan
baizik gallumbo eta
kuleroen bueltan:
bertsolariei bota
gero txapelketan. (bis)

On. Enbeita: Kuleroak patentau
geinkez Unai hainbat
horren inguruan nik
idea bat daukat:
nire argazkiren bat
han ipini behintzat[14]
letrerotxu batekaz
"Eingo'tsut poto bat" (bis)

U. Iturriaga: Idea onak dekozuz
ta zugaz pakeak
egin gurako dauz gaur
hemengo jenteak.
Fuera gure kulero
suak eta keak!
Igual egokienak
dira tomateak. (bis)

On. Enbeita: Bueno baina ez gagoz
produkzinorako.
Panpinetan-edo zuk
pentsa eizu edarto!
Estiballesito bat
ez legoke txarto
Josune Ariztondori
erregaletako. (bis)

(14) Trabatu egin zen Onintza puntu hau kantatzean.

U. Iturriaga: Kriston idea euki
dozu hemen beraz
neuronaren bat joan
jatzu zuri hegaz.
Estiballesito bat...
ni neu ez naz kapaz
ezin dot imajinau
diminutiboagaz[15]. (bis)

On. Enbeita: Diminutiboagaz
ez zabiz edarto
baina guk panpinak ein
geinkez bere asko
baina Igor Elortzana
baztertu beharko
guapoa da-ta inok be
ez ei dau botako. (bis)

U. Iturriaga Danena ein behar dala
hori da arazoa!
Onintzarena deuku
oso kuriosoa:
polit-polita eta
dana esponjosoa
ogera eruteko
bero ta goxoa. (bis)

On. Enbeita: Zure idea hori
ezin hartu aintzat
pentsau egizuz Unai
hemen beste hainbat.
Ogera nogaz eta
noz joan badaukat!
Hoba patentetea
boltsa beroren bat. (bis)

(15) Kostatu egin zitzaion Unairi hitz hau ahoskatzea.

A. Estiballes

Gaia: Bilboko metroko sarrera batean eskusoinua jotzen duzun kaleko musikaria zara. Debaldeko periodiko horietako batean irakurri duzu musikari bati dirutza bat eman diotela.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua*: Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Ardilanazko txapel batekin
ondo estali burua
aurten inoizko hotzen baitator
kalekoentzat negua.
Ta gizon batek gaur luzatu deust
eskura periodikua:
“Zazpirehun mila euro Kepari”
zelan dagoan mundua!
Ta etorkinen kanpaina ei da
diru horren helburua.
Hemen gitxien behar dauanak
eroaten dau dirua.

Behar dauanak jaso daiala
ez al litzake hori hoba?
Periodikua irakurteko
hartu dot neure ganora.
Hainbat musiko ezberdinegaz
egingo dauz hainbat froga
Nueva Yorkera doa grabatzen
beraz etxetik kanpora.
Gero Londresen edo Parisen
ibiliko da gustora...
Ta ni betiko moduan noa
BBK-ko kajerora.

Mundu honetan inor ez dago
tentazinoetatik salbu.
Ez dakit bera aurkeztuko zan
edo ein doutsien enkargu
baina nik pozik hartuko neutsen
parean baneuko kargu
bere moduko musiko onak
ere bagarelako gu.
Nik neuk hementxe jarraituko dot
txanpon batzuekaz ondradu
diru askorik ez dogu baina
duintasuna daukagu. (bis)



Bertso-trama
(Larrea, 2008-12-05)

Argazkilaria: ABE

HERNANI (2008-12-27)

Bertsolariak: U. Gaztelumendi, S. Colina, A. Egaña, U. Agirre, I. Elortza

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

Hernanin aspaldidanik antolatzen dute Gabonen bueltan Bertsolata. Hainbat ekitaldi izaten dira, eta horien artean jaialdia. Sandiusterrin izan zen eta entzule asko hurbildu ziren.

U. Agirre-I. Elortza

Gaia: Zuek biok aita-semeak izango zarete, Unai aita eta Igor semea; familia musulman bateko aita-semeak. Gaur Igor etxera etorri da, eta aitari Olentzero etxean ikusi nahi duela eskatu dio.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Ari naizela ari naizela*

U. Agirre: Semia joan zait seko burutik
eta oraintxe akabo!
Nundik gatozen aizu maitia
nik esan dizut lehenago.
Arrautz paria harek jateko
da gutxitxo ta arraro
ta gure etxean horri jartzeko
txorixorikan ez dago.

I. Elortza: Aita betiko errietekin
arren ez zazu segitu!
Gizon haundi horren balentriak nik
kalean ditut aditu.
Nahi ez-ta ere etorriko da
eta ez zaitez harritu
dena omen du emateko ta
berak ekarriko ditu!

U. Agirre: Kontu berdina dute buruan
bai udara ta bai negu
hartzeko gauzak matte dituzu
hargatik mila erregu...
Etxe txikia da guk deguna
probre ta xume gaude gu
ta Olentzero hona sartzeko
tximinirikan ez degu.

I. Elortza: Beti kapritxoz omen nabil ni
eskari eta abusu
ekar ezazu eskilara ta
gorantza eman bi pausu
jo tetxuari ta zulo batzuk
laister egingo dituzu!
Nik Olentzero hartuko dut ta
zuk Ala ikusiko duzu.

U. Agirre: Gure semia seme da eta
ez det triste ikusi nahi
Olentzerorik ez dala izango
ez naiz esplikatzeko gai.
Hala nahi ba'zu etorriko da
eta egon zaite lasai!
Opari onak ekartzen ditu
baina ikatza ere bai.

I. Elortza: Lehengo egunean gelakide bat
han etorri zen trabeska
ta "Olentzero neure aita dela"
esaten zidan parrezka.
Nik telefonoz deituko diot
ta esango diot "Neska!
Ba zeure aitak izan beharko du
ze nirea behintzat ez da!".

BAT-BATEKO SARIKETAK

ABRA SARIA

GETXO (2008-02-23)

Bertsolariak: A. Karrika, A. Untxalo, K. Mitxelena, I. Paia, E. Uruburu eta G. Hiribarren.

Gai-emailea: Miren Loizaga.

VII. Abra Saria, Algortako Bertsolari Eskolak antolatua. Andres Isasi musika eskolan, berrogeiren bat entzule. Zazpietarako zegoen iragarrita, baina zazpiak eta hogeian hasi zen, epaile bat eta bertsolari bat berandu heldu zirelako.

K. Mitxelena-G. Hiribarren

Gaia: Aspaldi elkarrekin zabiltzaten bikotea. Gillenen etxean zaudete, bero-bero jarri eta elkarri musuka eta laztanka hasi zarete. Orduan zu, Karmele, ohartu zara kamera bat dagoela martxan armairuaren gainean.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua*: Aresoarren bandera/ Aizak hi mutil mainontzi*

K. Mitxelena: Jarri zara horren guapo
eta biak bapo-bapo
bidea hartu dugu maitea
gure etxerako.
Hau grabatu zertarako?
Ene zenbat mila kako!
Pentsatu nahi dut soilik dela hau
oroimenerako. (bis)

G. Hiribarren: Isildu eta gozatu
maitasunetik jastatu
bien artean goxotasuna
dadien geratu.
Ez zaitezela trabatu
bideo kamara ahaztu
maitasunaren goxotasun hau
ez dain ezabatu. (bis)

K. Mitxelena: Baina begira hau zer den
hoztu bainaiz hoztu hemen
zure iruzurra ikusi baitut
aurrean nabarmen.
Gozatu nahi nuen zeren
nik zu maite zaitut gehien
ahaztezina izatea behintzat
lortu duzu Gillen. (bis)

G. Hiribarren: Nahiz ta nere miseria
bihurtu den zailegia
gezur batentzat ezin da gorde
gu bien egia.
Bota zagun izerdia
hori ez da gehiegia
maitasunaren lansari hortan
zuretzat erdia. (bis)

K. Mitxelena: Hasi gara muxuz muxu
ta bihurtu dugu luxu
negozioa egin nahi duzu
ta harritu nauzu.
Beste bat bilatu aizu!
Ze, hori tokatzen zaizu
gure harremana pelikula bat
dela uste baduzu! (bis)

G. Hiribarren: Aberastasun gordina
antzua eta zikina
bien artean segi dezagun
gure ahalegina.
Nahiz ta eman dizun mina
bizian untsa egina
maitasun denek izaten dute
beren etekina. (bis)



Osinalde Saria,
(Gabiria, 2008-04-26)

Iturria: XDZ

ERNIARRAITZ SARIKETA

AZPEITIA (2008-02-29)

Bertsolariak: A. Urbieta, A. Martin, U. Gaztelumendi, H. Iruretagoiena, M. Velarde eta A. Lasarte.

Gai-emailea: Idoia Alberdi.

IV. Erniarraitz sariketaran finala Azpeitiko Gaztetxean jokatu zen, gaueko hamarretan hasita. Jende asko elkartu zen bertsolariak entzutera, eta azpimarratzekoa da han sortu zen giro beroa. Finalean zein bertsolari izango ziren erabakitzeko hiru kanporaketa jokatu ziren.

A. Martin-B. Gaztelumendi

Gaia: Larunbata da. Gaueko hamarretan bukatu duzu lana, eta kalean topo egin duzu oraintxe festara irten den Unai zure lagunarekin. Elkarrekin joateko gonbita egin dizu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zeru altuan zegoen jaunak*

A. Martin: Gazteok beti izaten dugu
parranda nahi eta amets
baina patrikak maiz ez du ematen
behar dugun beste babes.
Zurekin joan nadin ez zazu
berriz eskatu mesedez!
Parrandarako dirua badut
baina indarrik jada ez.

U. Gaztelumendi: Zure egoera entenditzen det
egiya garbi esanda
baino eman dezun arrazoi hori
triste xamarra izan da.
Indarrikan ez daukazulako
zertako utzi parranda?
Indarrak bela etortzen dira
hiru kubata edanda!

A. Martin: Ez duzu asko behar zuk Unai
umore onez jartzeko
ta gutxiago zuk ez daukazun
diru hori eskatzeko.
Estuasunean ipini nauzu
egi dena aipatzeko.
Egia esan ez dut indarrik
zu mozkorra aguantatzeko.

U. Gaztelumendi: Ordun ez dezu nekin juan nahi
mozkortuko naizelako
ta nagusiyak zuri patrikak
utzi omen dizkizu plako.
Parrandarako gogoa dezu
beraz atera beharko
nere moduko nagusirikan
ez dago parrandarako!

A. Martin: Hortan arrazoi pixkat baduzu
behintzat Unai beharbada
baina mozkortu ta mingainean
baduzu hainbeste traba.
Nagusi gisa jarduten zara
esaten duzun erara
bere burua esplotatzen dun
nagusi bakarra zara.

U. Gaztelumendi: Parrandarako ez baitet galtzen
tokatzen bada aukera
eta parrandan juan nahi bada
ateratzea hobe da.
Nahi baldin ba'ezu geratu etxean
baino ikusiko gera:
bai, zu lanera zuazenian
juango naiz ni etxera.

A. Urbieta-A. Martin ♫

Gaia: Adineko gizona zara zu, Aitor. Zure etxebizitza konpartitzeko asmoz, iragarkia jarri duzu egunkarian, eta Alaia gaztea etorri zaizu arraro samar jantzita.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Orioko balearena*

A. Urbieta: Hara zer egiten den
zahartuta gero!
Pisukidea dator
gaur nere bezero.
Neskatxa bat nahi nuen
dagoena bero
baina horrelakorik
ez nuen espero! (bis)

A. Martin: Ezpain zaina puztuta
zaude grabe-grabe
entzuten nauzu ondo
behintzat hala ere.
Jartzen banaiz agian
hola parez pare
altxa egingo zaizu
Viagrarik gabe! (bis)

A. Urbieta: Neska honi begira
zein pozik nagoen!
Nik, ustez, zera hori
neukan oso herren
baina begiratuta
tentetu nabarmen.
Gainetik abrigo bat
jantzi zazu arren! (bis)

A. Martin: Kanpin denda horrekin
harritu egin nauzu
kantzontzilotan jada
dauzkazu bi putzu.
Ez dut inoiz probatu
proba'zagun aizu!
Kendu dentadura ta
muxu emaidazu. (bis)

A. Urbieta: Zaharrak gaztetzeko
hauxe da xixtima!
Eta ustekabean
hurrera arrima...
Lehen penetan zegona
ederki anima!
Kontratua hemen det
bota zazu firma! (bis)

A. Martin: Igual kobratuko dut
zure herentzia.
Gainera izango da
ondo merezia.
Gazteek sexuan dute
maiz abilezia
baina haiek ez dute
zure esperientzia! (bis)

A. Urbieta

Gaia: Zeure etxeko leihotik begira zaude. Gazte bat egurtzen ari dira errukirik gabe.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua*: Semaforoak gorri ta berde*

Neure leihotik begira nago
ta ez da horren atsegina:
bospasei lagun ikusten ditut
hau kuadrila kaxkarina!
Hura jipoitzen hura egurtzen
emanez kristoren mina.
Banoa behera derrepentean!
Egingo det ahalegina
laguntze'z duna errundun baita
egiten duna adina. (bis)

Behin eta berriz pentsatua dut
ea zer egin nezakeen
bertaratu ta tartean sartu
ta nola gelditu nauten.
"Ez zazute jo! Ez zazute jo!"
ari naiz sarri esaten
gelditutzeko intentziorik
dutenik ez du ematen.
Gainera mobil batez grabatu
gehiok ikusi dezaten. (bis)

Guk zenbat multa zenbat kastigu
eta zenbat atsekabe!
Ekintza txar hau juzga nezake
injustiziaren pare.
Baina goikoak nunbait ez daude
hau gelditzearen alde.
Bat erdi hilda utzi dute ta
ez al da nahikoa grabe?
Gehiena behar ditugunean
polizi hoiek non daude? (bis)

BETERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

ASTEASU (2008-03-01)

Bertsolariak: A. Agirreazaldegi, I. Apalategi, I. Izagirre, N. Gabilondo, I. Zubeldia eta U. Muñoa.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Beterriko I. Bertsolari Txapelketaren finala. Iturri-Ondo jatetxean izan zen. Ehundik gora afaltiar elkartu ziren eta sekulako giroa sortu zen. Aurreko bi kanporaketak Andoainen eta Amasan jokatu ziren, eta Zillarriturri eta Ttonttolondegi taldeak sailkatu ziren azken saio honetarako.

I. Izagirre ♫

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Orain hasi bihagu*

I. Zubeldia: Iñigo Izagirre
ze muz bizi zera?

I. Izagirre: Pena ez naizela bizi
nahi nukeen antzera
baina pausorik zertan
eman gaur atzera?
Berriz irabaztera
hurbildu baikera.

I. Zubeldia: Ze preziotan dago
Araban patata?

I. Izagirre: Aurten hogeita hamar
pezeta pasata.
Ateratzeak sortzen
die nahiko lata...
Segi haiei laguntzera
tailerra lagata!

I. Zubeldia: Askotan jate‘al dek
patata tortilla?

I. Izagirre: Nahiko merke dago-ta
bai jaten det pila
piper bat laguntzeko
ere egon dadila.
Zeozegatik egin naiz
holako mutila!

I. Izagirre-A. Agirreazaldegi

Gaia: Zu, Iñigo, herriko putetxera haragia eramaten duen harakina zara. Zure emazte Ainhoaren belarrietara iritsi da noizean behin putetxetik ateratzen ikusten zaituztela.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Adixkidia Andoaindikan*

A. Agirreazaldegi: Maiteminduta ezkondu ginan
gu biok lehengo urtean
baina nekatzen hasita nago
gizon zure bertutean.
Ez dakit baina ez naiz harritu
zugatik hau entzutean:
zuk haragia saltzen dezula
haragiaren trukean.

I. Izagirre: Eskaini orduko pentsatu nuen
izango nula problema
baina izkutuan gorde nun dena
ta orain hartzen det pena.
Egia da bai putetxera doa
nere haragirik gehiena
baina bakizu zeinentzako dan
nere txorixo onena.

A. Agirreazaldegi: Lehen gustora sentitzen nintzan
zure haragia jatean
konpartitua izan liteke
eta neretzat kaltean.
Maleterora begiratuta
harritu naiz bapatean:
zergatik dezu behia bilduta
kamisoi gorri batean?

I. Izagirre: Halaxe da bai kamisoi gorriz
estalita daukat txahala
ze ixkutatu beharra neukan
tokatzen zaidan bezala.
Baina jakizu putetxe hori
kliente bat ona dala
eta banatu beharra dauzkat
lana eta pertsonala.

A. Agirreazaldegi: Putetxea da kliente ona
zure hitzei egin kasu
ta zuregatik ere berdina
esate'omen dute aizu!
Haragi gordin zalea naiz ni
lehendik ere badakizu
baina klasiko samarra ere bai
gordinegia zera zu!

I. Izagirre: Putetxe hortan nahiz ta aukeran
daukadan zer erosia
egia esan ez zait gustatzen
leku hortan ikusia.
Etxean daukat nere plazerra
ta gozamen nagusia...
Hartu ezazu gordin-gordina
prejitu edo egosia.

N. Gabilondo

Gaia: Aste honetan Ezker Batua alderdi politikoak honako hau salatu du PSOEri eta PPri begira: "Egun bakar batean genero indarkeriak lau hildako utzi ditu, ETAk 2003. urteko ekainetik hona eragindako biktima kopuru berbera. Eta zuek, PSOE eta PP, beti ETAri begira soilik zaudete".

Neurria: Hamabiko handia
Doinua*: Arratsalde on eta muxu bat*

"ETAk berriro jendea hil du"
entzutean zer zirrara!
Izan liteke bizkarzain edo
militar baten alaba.
Kazetarien tinta errekak
politikoen ikara.
Euskal Herria ez da aske izango
berak nahi duen erara
helburu orok ez du balio
sarritan entzunak gara
helburu hori lortzeko egin den
bidea ona ez bada. (bis)

Ta bitartean etxera bortitz
iritsiko da senarra.
Gaur ere ez ditu urrun izango
iraina eta marmarra.
Ukabil kolpe bakoitzarekin
beldurra eta negarra
sortuko ditu igaro arte
heriotzerako marra.
Terrorismoa den edo ez den
dago aztertu beharra
azken batean zergatia da
desberdina den bakarra. (bis)

Baina zergati onik ez duen
ekintza denez hilketa
ahaztu borroka politikoak
eta piztu gogoeta.
Hiltzaile izan senar kabroi bat
emaztea edo ETA
ta hildakoa zinegotzi bat
Maitane edo Rebeka.
Hasi lanean lotsak ahaztuta
ta gorrotoa gordeta
izenak izen bizitza orok
balio bera du-eta! (bis)

BBK SARIKETA

BILBO (2008-03-14)

Bertsolariak:

Ipar-Uribe:
Txikiak: I. Uria, M. Markaida, J. Uria.
Handiak: A. Illaro, P. Vidal, I. Paia.

Bilbo:
Txikiak: E. Larrea, P. Ormazabal, I. Erkizia.
Handiak: A. Zipitria, E. Piedra, O. Bartra.

Bilboko Kafe Antzokian izan zen, arratsaldeko zazpietan. Bilboko taldea izan zen txapeldun, parte hartzaile gazteenaren saria Imanol Uriak jaso zuen, eta Amaia Uribek irabazi zuen bizkaiera ondoen erabili duenaren saria.

A. Zipitria-A. Illaro

Gaia: Neba-arrebak zarete. Zuen ahizpa nagusiak umetxo bat eduki du eta gaur jagoteko eskatu dizue. Negarrez hasi da txikitxoa, eta zuek elkarri begira geratu zarete.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Zipitria: Gure arrebak gaurko honetan
jarri digu kriston tranpa
ta bapatean gure iloba
hasi zaigu zarataka.
Hobe zenuke zuk hurbiltzea
eta nigandik pasata
biharko egunean toki berean
Arrate egon ahal zara-ta.

A. Illaro: Umeak berdin jarraituko du
zure berba bakoitzeko
eta mesedez eskatzen dizut
zure ahoa ixteko!
Ahoan peta ta inguruan
kea dragoien antzeko...
Nik banekien gazteegia
zela mamuek zaintzeko.

A. Zipitria: Gure iloba guk geuk zaintzeak
sortzen zidan bai zirrara
baina gu orain bakar-bakarrik
etxean gelditu gara
ta umetxoa negarrez dabil,
Jode! zelako dardara!
Ahal dudanean egin behar dut
nik hemendik eskapada.

A. Illaro: Ahizpak semea eduki zuen
eta guk zaindu beharko.
Arkaitz izena pentsatu zuen
bere neba zarelako.
Agian tripak ez ditu izango
guk uste bezain edarto
edo agian negarrez dago
zure izena duelako.

A. Zipitria: Eskatu zigun mesedez arren
gure iloba zaintzeko
ta pentsatzen dut hau ikusita
“Gu tontoak gara konpleto!”.
Soluzio bat oin topatzea
Arrate ez duzu usteko?
Koadrilarekin taberna baten
nengoke askoz hobeto.

A. Illaro: Beti parrandan ta azkenean
oiloak izan du txita.
Arrazoi duzu azken finean
nago gaizki iritzita.
Ama bihurtu baldin bazaigu
etorri dadila ti-ta!
Berriro ez da parrandan joango
Arkaitz gurekin utzita!

O. Bartra

Gaia: Domekero legez familia guztia batu zarete. Gaur bai, gaur esan egin behar diezu.

Neurria: Hamabiko berdina 6 puntuz
Doinua*: Gure herri ttiki hau da*

Sendiari disgustoak
sarri emoten deutsodaz
baina azkena zelan esan
pentsatu neban denboraz.
Hau esateko hain urduri
ez naz ipini inogaz
ta beraz berba guztiak
ondo neurtu nahi dodaz.
Zeozer esan behar deutsuet
lasaitasun ta ganoraz:
familia kantzerra daukat
ta hile barru ni hilko naz. (bis)

Ama susto aurpegiaz
geratu jata begira
ta aitari malkotxo bat
etorri jako begira.
Esan deustie egin nahi
deustiela despedida
ta guztiengan igarri
dot sekulako kupida.
Keba! keba! broma bat zan
broma baino ez zan tira!
“Haurdun nago” esan ta
oso pozik jarri dira. (bis)

OSINALDE SARIA

GABIRIA (2008-04-26)

Bertsolariak: J. Soto, A. Martin, U. Alberdi, O. Aizpurua, M. Velarde eta U. Gaztelumendi

Gai-emailea: Jokin Murua.

Osinalde sariaren finala, Osinalde Elkartean. Elkartea erabat beterik, entzuleak alde guztietan eta giro ederra. Ohi bezala, aurreko asteetan Argi Berri, Axari eta Aztiri sariak jokatu ziren eta haietan erabaki zen finalean kantatuko zuen seikotea.

M. Velarde-U. Alberdi

Gaia: Zuek lehen bikotea izan zineten. Badira bi hilabete elkar ikusten ez zenutela. Gaur parrandan elkar ikusi eta Maialen inguratu zaio Uxueri.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Goizean goizik jeiki ninduzun I*

M. Velarde: Ikusi eta noraezean
hasi da nere brujula.
Begirada bat irrifarre bat
erraz bainau manipula.
Orain denbora esaten zenun
asko maite ninduzula
baina ikusten dut uste baino’re
azkarrago ahaztu nauzula.

U. Alberdi: Nahiz ez igerri hain sentitu naiz
koldarra eta ahula
nire bihotzen taupen ritmoa
buruz ezin dut kalkula.
Zeinen polita zauden Maialen
halakorikan sekula!
Nabaritzen da bakardadeak
mesede egin dizula.

M. Velarde: Bakardadeak penaz aparte
ene zenbat maravilla!
Baina oraindik ez dut aurkitu
behar nuen maratila.
Horko neska ta hango mutila
gero bestalde mutila...
Maitasun bila arrimatu naiz
eta ez erruki bila.

U. Alberdi: Errukirikan ez dut sentitzen
sentitzen dut kriston lotsa!
Hau nerbioen pasada eta
hauxe da izerdi hotza!
Ikuste al duzu patxaran hontan
igeri dagon izotza?
Modu berean urtzen duzu zuk
Maialen nire bihotza.

M. Velarde: Zure hitzak dira hain freskagarri
egarri den bihotzean.
Orain banoa zain egongo naiz
hango barraren ertzean.
Txorakeriak egiteko prest
zu zaudela aitortzean
elkar urtuko gara elkarrekin
egunsentia heltzean.

U. Alberdi: Berriro ere elkar ikusiz
jarri nauzu txora-txora...
Gure artean pasatu dira
distantzia ta denbora
baina ez zaitez ihesi joan!
Nora joango zara nora?
Hartu dezagun trago bat orain
ta gero ikusiko da!

U. Alberdi-J. Soto

Gaia: Gaur astelehen goiza da. Zu, Uxue, granoz beteta esnatu zara. Julio arkakusoa, berriz, burukoan lo geratu da.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua*: Nere senarrarekin I*

U. Alberdi: Hau zer da? Nere kontra
indako konplota?
Ispilua hautsi dut
harrikada jota.
Aurpegian baditut
ehun bat pinporta...
Ea akatzen zaren
enpatxuak jota! (bis)

J. Soto: Neri tokatu zait ta
ikusi behar hau're!
Izter aldera juan naiz
xuabe-xuabe
ipurdi aldeak ere
eder-eder daude.
Zakur azala baino
goxoagoa zaude! (bis)

U. Alberdi: Itxuraz aritu da
odol onan bila
hontarako behar da
arkakuso pila.
Bakarra ezin zan izan
gutxienez mila!
Esan zazu nun sartu
duzu zuk kuadrila? (bis)

J. Soto: Arkakusoak bakarrik
gabiltzanez beti
gaua bero pasa dut
emeki-emeki.
Lotsatuta, ez zinake
egongo ederki
granorik haundina non
duzun bazeneki! (bis)

U. Alberdi: Arkakusoek dute
katxondoen sona
ziria sartuz dabil
broma eta broma.
Insektizidarekin
orain nator hona...
Ea mantentzen duzun
hain umore ona! (bis)

J. Soto: Hori ez botatzea
zuretzat hobe da
gustora egon zarela
hartu dut tankera.
Gauero izan nahi dut
holako egoera...
Goseak nago eta
etorri ohera! (bis)

J. Soto-U. Alberdi ♫

Gaia: Gaztetan eta ez hain gaztetan ere konplexuak izaten ditugu gure irudi fisikoaz, izaeraz edo beste ezaugarriez. Zuk, Julio, ez diezu gauza horiei kasurik egiten; zuk, berriz, Uxue ezin dituzu ahaztu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Lagundurikan danoi II*

J. Soto: Jendeak dio dudala
nik sudur itzela
kankailu bat naizela
naizela motela.
Zertako kasu egin
gehienak bezela?
Nahiz ta jendea dagon
hala ta honela
amak beti esaten dit
polita naizela.

U. Alberdi: Niri esaten didate
"Hain zara polita"
baina nire barnean
gertatzen da kinka
autoestima baitut
oinpean jarrita.
Ispilueri egin
nahi diet kritika
politagoa bainaiz
begiak itxita.

J. Soto: Neskik ez zen tokian
nik nuen ikasten
holako neskarikan
ez ziaten uzten.
Begiratu dizut nik
goi ta beheko parten
ta polita bazara
soilik begiak ixten
Barkatu zazu baino
ez du ongi ikusten!

U. Alberdi: Telebista piztuta
dinbi eta danda
ikusi pantailetan
dagon propaganda.
Neurriekin daukagu
kristoren demanda.
Zu oso lasai zaude
egia esanda
baina errezago da
mutila izanda.

J. Soto: Hortan ez zaite hasi
aizu neskatila!
Emakumeak zoazte
beti horren bila.
Ni naiz mutiko altu bat
jatorra, trankila
batzuntzat motza eta
neretzat abila
ta gustatze ez zaiona
izorra dadila!

U. Alberdi: Nere diskurtsoa zen
izua, epela...
Barruan sentipenez
egin dut koktela
baina aldatuko naiz
behar den bezela
goizero esanaz “Hara
zu neska itzela!”
sinistu arte oso
polita naizela.

LIZARDI SARIA

ZARAUTZ (2008-09-05)

Bertsolariak: A. Martin, A. Barandiaran, U. Alberdi, U. Gaztelumendi, A. Rezola eta J. Labayen.

Gai-emailea: Imanol Epelde.

Zarauzko Zinema pilotalekuan jokatu zen Lizardi sariaren finala, gaueko hamar eta erdietan, berrehun eta berrogeita hamarren bat entzuleren aurrean. Alaia Martin izan zen txapeldun, eta bigarren izan zen Aitzol Barandiarani hamar punturen aldea atera zion. Bertso onenaren saria Unai Gaztelumendirentzat izan zen, zortziko txikian botatako bertso bati esker.

A. Barandiaran-A. Martin

Gaia: Ama-semeak zarete, Aitzol semea eta Alaia ama. Zuen etxean ez da sekula diru premiarik izan. Gaur, polizia etorri da zuen etxera, amaren bila, lapurretan ibili dela-eta.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Haurtxo txikia negarrez dago*

A. Barandiaran: Zortzi polizi atea joka
han ez zen falta kolperik!
Ohetik jeiki ta pentsatu det
“ Ze kristo egin diet nik?”
Amak ez nuen uste nik, inoiz
lapurreta egiterik
behar bazendun ez zeneukan-ta
neri eskatu besterik.

A. Martin: Zin egin nuen ez zitzaizula
sekula ezer faltako.
Lapurtzen nuen zerbait baikorra
izan zenezan biharko
lapurtzen nuen zugatik eta
baita ere zuretzako
lapurtzen nuen zure geroa
erosi nahi nuelako.

A. Barandiaran: Geroz ta hobe bizi ginen gu
denboraren joanean
ni txukun-txukun ikasketetan
ta zu horren fin lanean.
Neretzat dena nahi omen zendun
dena emateko planean
ta orain ezer ere ez daukat
ama daramatenean.

A. Martin: Zaila da hau eskatzea baina
ulertu zazu mesedez
bi modutara etorkizuna
bilakatuko zela beltz!
Nahiz eredua ez den onena
ta nahiz badakidan berez
egin dudanaz ez naiz harrotzen
baina damutu ere ez.

A. Barandiaran: Etxean gora etxean behera
poliziak barra-barra
eraman dute salan zegoen
koadro eder eta zaharra.
Hartu ezazu muxu pare bat
ta besarkada azkarra
zu zeralako nere bihotza
lapurtu duen bakarra.

A. Martin: Irrifar batez gordetzen ditut
zuk emandako bi muxu
eskertzen dizut heldu izana
hain goxo ta hain amultsu.
Beso artean egunen baten
berriz izango zaitut zu
orain ez duzu egingo baina
noizbait ulertuko duzu.

A. Martin-U. Gaztelumendi

Gaia: Zu, Alaia, museo bat ikustera joan zara, eta aurreko paretan dagoen koadro zuri-zuri bat ulertu nahian zabiltza. Alboan daukazu Unai, koadroaren egilea.

Neurria: Zortziko handia
Doinua*: Kantatzera nijoa*

A. Martin: Museoan barrena
nire pasioa
koadro honek faltan du
igual akzioa.
Eman zazu mesedez
zure lezioa.
Holako zerbait al da
inspirazioa? (bis)

U. Gaztelumendi: Zuri esplikatzea
da nere asmoa.
Elur paisaje bat da
azaltzera noa:
ez dezula ulertzen
da nere susmoa
oraingo eskimalen
inpresionismoa. (bis)

A. Martin: Nahiz arretaz aditu
Unai zure hitzak
abstraktuak dira-ta
ezin hartu aintzat.
Hobeto bereizteko
horko elur printzak
elur panpin bat jarri
iezaiozu behintzat! (bis)

U. Gaztelumendi: Horrela al zabiltza
museora helduta?
Ezjakintasun hori
ezin dezu ixkuta.
Ridikuloan zaude
ez da nere kulpa
kuadroak ere parra
egiten dizu-ta! (bis)

A. Martin: Ausardia behar da
hona ekartzeko
ausardia lan latz hau
sakrifikatzeko.
Falta al zaizu puntu
zu konturatzeko?
Ez dela horren zaila
faltsifikatzeko. (bis)

U. Gaztelumendi: Bale! Marrazki huts bat da
ezin zan bestela.
Jakin zazu artista
alfer bat naizela
baino ez izan tontoa
ez izan ergela
buruakin hola ein
guztiek bezela.[16] (bis)

(16) Gora eta behera mugitu zuen burua Gaztelumendik, puntu hori kantatu ahala.

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	Herria	Bertsolariak	or.
2008-01-06	Oiartzun	A.Mendiluze, X. Silveira, X. Paya, A. Egaña, J. Maia, M. Lujanbio, J. Martin, E. Lagoma	63
2008-01-19	Zeanuri	U. Iturriaga, E. Intxaurraga, A. Egaña, A. Arzallus, J. Maia, M. Lujanbio	73
2008-01-25	Hendaia	A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña, M. Lujanbio, X. Murua, E. Zabaleta	76
2008-01-26	Donostia	A. Sarriegi, S. Colina	83
2008-02-01	Mutiloa	A.M. Peñagarikano, A. Egaña, I. Murua, S. Lizaso	87
2008-02-09	Errenteria	A. Mendiluze, A. Egaña, A. Arzallus, *Xamoa*, M. Lujanbio	92
2008-02-16	Bergara	A. Agirre, I. Zubeldia	96
2008-03-01	Alegia	J.M. Irazu, I. Zubeldia	100
2008-03-15	Elizondo	J. Zelaieta	105
2008-03-28	Zumaia	I. Zubeldia, A. Egaña, A. Sarriegi, S. Colina, S. Lizaso, A. Mendiluze	106
2008-04-03	Gasteiz	A. Otamendi	113
2008-04-06	Zegama	A. Egaña, A. Mendiluze, A. Sarriegi, B. Gaztelumendi	114
2008-04-12	Getaria	M. Lujanbio, A. Agirre, N. Gabilondo, A. Agirreazaldegi, I. Ibarra, U. Alberdi	117
2008-04-19	Urretxu	S. Colina, A. Arzallus, F. Paia, X. Silveira, N. Elustondo, J.M. Irazu	123
2008-04-20	Mendexa	A. Arzallus, A. Mendiluze, B. Gaztelumendi, X. Paya	128
2008-05-23	Zalla	S. Lizaso, J. Maia	135
2008-06-08	Durango	U. Iurriaga, S. Colina	138
2008-06-26	Hernani	M. Lujanbio	142
2008-06-26	Asteasu	J.M. Irazu, S. Lizaso	144
2008-07-06	Muxika	A. Arzallus, U. Iturriaga	147
2008-07-08	Iruñea	A. Arzallus, J. Zelaieta	150
2008-07-13	Lezama	S. Colina, X. Paya	153
2008-07-17	Alegia	I. Zubeldia, M. Lujanbio	157

2008-07-18	Otxandio	X. Paya, A. Egaña	160
2008-07-25	Donostia	J. Maia, A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio	162
2008-07-26	Arano	I. Lazkano, J. Agirre	165
2008-08-07	Aia	A. Arzallus, A.M. Peñagarikano, S. Lizaso	170
2008-08-14	Gabiria	A. Mendiluze, U. Alberdi, J. Soto, M. Lujanbio, A. Sarriegi, I. Zubeldia	176
2008-08-17	Bilbo	A.M. Peñagarikano, A. Arzallus	180
2008-08-22	Bilbo	J. Martin, A. Agirre, I. Ibarra	184
2008-08-30	Ataun	A. Barandiaran, A. Egaña	188
2008-09-20	Aizarnazabal	A. Egaña, S. Lizaso	191
2008-09-26	Usurbil	X. Amuriza, J. Agirre	194
2008-09-27	Urnieta	B. Gaztelumendi, A. Egaña, U. Alberdi, J. Maia	199
2008-10-03	Oñati	B. Gaztelumendi, J. Agirre	202
2008-10-09	Gasteiz	B. Gaztelumendi, M. Agirre, E.Lekue	206
2008-10-17	Durango	I. Elortza, A. Mendiluze, A. Egaña	210
2008-10-26	Urepele	T. Ezponda, J. Enbeita, U. Alberdi, A. Egaña	217
2008-10-30	Iruñea	S. Colina, J. Barberena	224
2008-11-07	Ataun	A.M. Peñagarikano, I. Urdangarin, A. Arzallus, A. Barandiaran	227
2008-11-15	Donibane-Lohizune	A. Arzallus	233
2008-11-28	Donostia	A. Egaña, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, I. Elortza	234
2008-12-08	Markina-Xemein	A. Agirre, J. Uria, M. Arzallus, I. Ibarra, On. Enbeita, M. Lujanbio	243
2008-12-12	Zarautz	I. Lazkano, I. Elortza, U. Alberdi	250
2008-12-19	Azpeitia	S. Lizaso	254
2008-12-20	Barakaldo	I. Elortza	256
2008-12-20	Arrasate	J . Maia, M. Amuriza	257
2008-12-25	Larrabetzu	U. Iturriaga, On. Enbeita, A. Estiballes	260
2008-12-27	Hernani	U. Agirre, I. Elortza	266

Bat-bateko sariketak

Data	herria	bertsolariak	or.
2008-02-23	Getxo	K. Mitxelena, G. Hiribarren	271
2008-02-29	Azpeitia	A. Martin, U Gaztelumendi, A. Urbieta	274
2008-03-01	Asteasu	I. Izagirre, A. Agirreazaldegi, N. Gabilondo	279
2008-03-14	Bilbo	A. Zipitria, A. Illaro, O. Bartra	284
2008-04-26	Gabiria	M. Velarde, U. Alberdi, J. Soto	287
2008-09-05	Zarautz	A. Barandiaran, A. Martin	293

BERTSO HAUTATUAK

www.bertsozale.com

1. 2008-01-06	Oiartzun	X. Paya, A. Mendiluze, X. Silveira, A. Egaña, J. Maia, A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Martin, E. Lagoma	66
2. 2008-01-06	Oiartzun	J. Maia	70
3. 2008-02-01	Mutiloa	A.M.Peñagarikano, I.Murua, A. Egaña, S. Lizaso	87
4. 2008-02-01	Mutiloa	A.M.Peñagarikano, A. Egaña, I.Murua, S. Lizaso	89
5. 2008-02-09	Errenteria	M. Lujanbio, A. Egaña	93
6. 2008-02-29	Azpeitia	A. Urbieta, A. Martin	276
7. 2008-03-01	Alegia	J.M. Irazu, I. Zubeldia	100
8. 2008-03-01	Asteasu	I. Izagirre	279
9. 2008-03-28	Zumaia	A. Sarriegi, S. Colina	108
10. 2008-03-28	Zumaia	S. Lizaso, A. Mendiluze	110
11. 2008-04-12	Getaria	M. Lujanbio, A. Agirre	117
12. 2008-04-19	Urretxu	F. Paia	126
13. 2008-04-20	Mendexa	B. Gaztelumendi, X. Paya	130
14. 2008-04-26	Gabiria	J. Soto, U. Alberdi	291
15. 2008-06-08	Durango	U. Iturriaga	140
16. 2008-07-13	Lezama	S. Colina, X. Paya	153
17. 2008-07-25	Donostia	J. Maia, A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio	162
18. 2008-08-07	Aia	A.M. Peñagarikano, A. Arzallus	170
19. 2008-08-14	Gabiria	A. Mendiluze	178
20. 2008-08-22	Bilbo	J. Martin, A. Agirre, I. Ibarra	184
21. 2008-10-17	Durango	A. Mendiluze, A. Egaña	213
22. 2008-10-26	Urepele	A. Egaña, U. Alberdi	221
23. 2008-11-07	Ataun	A. Arzallus	230
24. 2008-11-28	Donostia	I. Elortza, M. Lujanbio	237
25. 2008-11-28	Donostia	M. Lujanbio	241
26. 2008-12-08	Markina-Xemein	J. Uria, A. Agirre	243
27. 2008-12-12	Zarautz	I. Elortza, U. Alberdi	252
28. 2008-12-21	Arrasate	M. Amuriza	258

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A. . . . . .96(BI), 117(BI), 119(BI), 184(BI), 243(BI), 245(H)
Agirre, J. . . . . .165(GL), 194(GL), 202(BI)
Agirre, M. . . . . .206(BI)
Agirre, U. . . . . .266(BI)
Agirreazaldegi, A . . . . 119(BI), 121(B), 280(BI)
Alberdi, U. . . . . .119(BI), 176(BI), 199(BI), 219(BI), 221(BI), 252(BI), 287(BI), 289(BI), 291(BI)
Amuriza, M. . . . . .258(B)
Amuriza, X. . . . . .194(GL)
Arzallus, A. . . . . .66(H), 73(BI), 76(H), 92(BI), 123(H), 128(BI), 147(BI), 150(BI), 162(BI), 170(BI), 180(BI), 230(B), 233(H)
Arzallus, M. . . . . .245(H)
Barandiaran, A. . . . . .188(BI), 231(B), 293(BI)
Barberena, J. . . . . .224(BI)
Bartra, O. . . . . .286(B)
Colina, S. . . . . .76(H), 108(BI), 123(H), 138(BI), 153(BI), 224(BI)
Egaña, A. . . . . .66(H), 73(BI), 76(H),80(BI), 87(BI), 89(BI), 92(BI), 93(BI), 106(BI), 114(BI), 160(BI), 162(BI), 188(BI), 191(BI), 199(BI), 213(BI), 219(BI), 221(BI), 234(BI), 239(BI)
Elortza, I. . . . .210(BI), 234(BI), 237(BI), 250(BI), 252(BI), 256(H), 266(BI)
Elustondo, N. . . . . .123(H)
Enbeita, On. . . . . .245(H), 261(BI)
Enbeita, J. . . . . .217(BI)
Estiballes, A. . . . . .264(B)
Ezponda, T. . . . . .217(BI)
Gabilondo, N. . . . . .119(BI), 282(B)
Gaztelumendi, B. . . . . .114(BI), 130(BI), 199(BI), 202(BI), 204(B), 206(BI), 234(BI), 239(BI), 274(BI)
Gaztelumendi, U. . . . . .295(BI)
Hiribarren, G. . . . . .271(BI)
Ibarra, I. . . . . .119(BI), 160(BI), 184(BI), 245(H), 248(B)
Illaro, A. . . . . .284(BI)
Intxaurraga, E. . . . . .73(BI)
Irazu, J.M. . . . . .100(BI), 102(BI), 123(H), 144(BI)
Iturriaga, U. . . . .73(BI), 138(BI), 140(B), 147(BI), 260(B), 261(BI)
Iturriotz, I. . . . . .160(BI)
Izagire, I. . . . . .279(PE), 280(BI)
Lagoma, E. . . . . .66(H)
Lazkano, I. . . . . .165(GL), 250(BI)

Lekue, E. . . . . .208(B)
Lizaso, S. . . . . .87(BI), 89(BI), 110(BI), 135(BI), 144(BI), 160(BI), 172(BI), 191(BI), 254(B)
Lujanbio, M. . . . . .66(H),73(BI), 76(H), 80 (BI), 93(BI), 117(BI), 119(BI), 142(B), 157(BI), 162(BI), 176(BI), 234(BI), 237(BI), 241(B), 245(H)
Maia, J. . . .66(H), 70(B), 73(BI), 135(BI), 162(BI), 199(BI), 257(B)
Martin, A. . . . . .274(BI), 276(BI), 293(BI), 295(BI)
Martin, J. . . . . .66(H), 184(BI)
Mendiluze, A. . . . .63(BI), 66(H), 92(BI), 110(BI), 114(BI), 128(BI), 176(BI), 178(B), 210(BI), 213(BI)
Mitxelena, K. . . . . .271(BI)
Murua, I. . . . . .87(BI), 89(BI)
Murua, X. . . . . .76(H)
Otamendi, A. . . . . .113(H)
Paia, F. . . . . .126(B)
Paya, X. . . . . .66(H), 123(H), 130(BI), 153(BI), 160(BI)
Peñagarikano, A.M. . . . .87(BI), 89(BI), 170(BI), 172(BI), 180(BI), 182(B), 227(BI) . . . . . .
Sarriegi, A. . . . . .83(B), 108(BI), 114(BI), 176(BI)
Silveira, X. . . . . .63(BI), 66(H), 123(H)
Soto, J. . . . . .176(BI), 289(BI), 291(BI)
Urbieta, A. . . . . .276(BI), 278(B)
Uria, J. . . . . .243(BI), 245(H)
Urdangarin, I. . . . . .227(BI)
Velarde, M. . . . . .287(BI)
Xamoa . . . . . .92(BI)
Zabaleta, E. . . . . .76(H)
Zelaieta, J. . . . . .105(H), 150(BI)
Zipitria, A. . . . . .284(BI)
Zubeldia, I. . . . .96(BI), 100(BI), 102(BI), 106(BI), 157(BI), 176(BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.
(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.
(P): Puntutan egindako saioa.
(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.
(H): Gainerako ariketak
(GL): Gai librean egindako saioa.

IZEN ETA IZENGOITIEN DESKRIBAPENA

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

Liburuan	**Izen deiturak**	**Herria**
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Agirre, M.	Manex Agirre Arriolabengoa	Aramaio
Agirre, U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Agirreazaladegi, A.	Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo	Elgeta
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Amuriza, X.	Xabier Amuriza Zarraonaindia	Berriz
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Arzallus, M.	Maddalen Arzallus Antia	Hendaia
Barandairan, A.	Aitzol Barandiaran Munduate	Ataun
Barberena, J.	Jon Barberena Ibarra	Iruñea
Bartra, O.	Oihana Bartra Arenas	Bilbo
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Elustondo, N.	Nerea Elustondo Plazaola	Legazpi
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Enbeita J.	Jon Enbeita Ealo	Muxika
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Ezponda, T.	Txomin Ezponda Lagan	Ahetze
Gabilondo, N.	Nahikari Gabilondo Mendizabal	Zarautz
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Gaztelumendi, U.	Unai Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Hiribarren, G.	Gillen Hiribarren Erdozaintzi-Etxart	Itsasu
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Intxaurraga, E.	Eñaut Intxaurraga Uriarte	Zeanuri
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Lazkano, I.	Imanol Lazkano Uranga	Azpeitia
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani

Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Martin, J.	Jon Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Murua, X.	Xumai Murua Berra	Azkaine
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz “Fredi”	Algorta (Getxo)
Paya, X.	Xabier Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Silveira, X.	Xabier Silveira Etxeberria	Lesaka
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Iruñea
Urbieta, A.	Ander Urbieta Alkorta	Azpeitia
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Urdangarin, I.	Iban Urdangarin Lardizabal	Ataun
Velarde, M.	Maialen Velarde Mujika	Zumaia
Xamoa	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zabaleta, E.	Eneritz Zabaleta Apaolaza	Baiona
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zipitria, A.	Arkaitz Zipitria Mendizabal	Arrigorriaga
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Akarain	Zegama